

07.

LABURPENA ETA GOGOETA OROKORRAK



1. LABURPENA

1.1. Demografia eta inmigrazioa

EAEEn, 2008ko urtarrileko Biztanleriaren Udal Erroldako datuen arabera, biztanle kopuruak goranzko joera mantendu du azken urteotan. Hain zuzen ere, 2008an biztanleriaren zifra 2.157.112 pertsonakoa izan zen (2007an baino %0,71 gehiago); hau da, aurreko urtean baino 15.252 biztanle gehiago, eta 2002an baino 50.000 inguru gehiago. Zifra horiekin batera, esan behar da erroldaturiko biztanleria atzerriararen ehunekoa %5,4koa dela, eta 2007ko urtarrilaren lean %4,6koa izan zen. Hazkunde hori Estatuan aldi berean izandakoa baino handiagoa da, baina atzerriarrek EAEen duten ehunekoa oso urrun dago Estatuko %11,3tik.

Bestalde, EUSTATEk 2007rako emandako behin-behineko datuetan ikusten denez, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldaketa, jaiotzen eta heriotzen arteko kenduratzat, migrazio-mugimenduak aintzat hartu barik) positiboa izan da, laugarren urtez jarraian, EAEen: urte honetan 20.559 pertsona jaiotzen dira, aurreko urtean baino %2,8 gehiago, eta 19.252 pertsona hil dira, 2006an baino %4 gehiago. Horren ondorioz, +1.344ko hazkunde begetatiboa egon da, edo, beste modu batera esateko, milako 0,6koa. EAEko hazkunde begetatiboak beharakada iraunkorra izan du 14 urtetan, eta, oraindik behin betiko daturik ez badugu ere, badirudi beharakada hori gelditu egin zela, azkenik, 2004an. Halaber, EUSTATEn Migrazio Mugimenduen Estatistikak, 2007ari buruzkoak, 17.692 pertsonako hazkunde zenbaturik du urte horretan gure erkidegoan (aurreko urtean baino %22,4 handiagoa), zortzigarren urtez jarraian migrazio-saldo positiboa izatearen ondorioz.

Europar Batasuneko biztanle kopurua, EUROSTATEk egindako kalkuluaren arabera, 497,5 milioi biztanlekoa da, 2008ko urtarrilean (2007ko urtarrilean baino 2,4 milioi gehiago). Milako 4,8ko hazkunde horri esker (aurreko urtean milako 4,3koa), urte honetan ere mantendu egin da 1960tik honako hazkunde-joera iraunkorra (urte horretan oraingo Batasuneko biztanle kopurua 400 milioi biztanlekoa). Bilakaera positiboa, urte honetan ere, inmigrazioaren jokabidearen eraginezkoa da, aldaketaren %20 ere ez baita hazkunde naturalaren edo begetatiboaren ondoriozkoa.

Izan ere, inmigrazioa, hazkunde osoan biztanleak gehitzeaz gain, hazkunde naturalerako ere lagungarria da: jaiotzen zati handia pertsona immigranteenak dira. Immigranteak, gainera, gazteagoak dira, sarritan, eta, ekarpen urriagoa egiten dute hilkortasun-tasan. Hori garrantzi handikoa da Espainian (2007an milioi bat immigrante jaso) eta beste zenbait estatutan, adibidez, Irlandan, Zipren eta Luxenburgon, azken hiru estatu horiek 1.000 biztanleko 10 immigrante baino gehiago hartu baitzituzten; horrek ekarpen handia egin zuen bertako biztanleriaren zifren bilakaeran.

Bestalde, EUSTATEk proiektzio demografiko berriak egin ditu EAERako; horietan esaten denez, 2020ko epemugarekin, mende-aldaketak hausteak ekarri zuen EAEko biztanleriaren bilakae-

ran, aurreko urteetako atzeranzko dinamika alderantzikatu eta demografia hasteko etapan sartu baikinen. Hilkortasunaren, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruzko hipotesietan oinarrituz aurreikusitakoaren arabera, joera hori mantendu egingo da epe laburrean, eta, ondoren, egonkortasuna helduko da biztanleria-zifretara. Aldi berean, eta haurren efektiboak apur bat suspertu egingo diren arren, nabarmendu egingo da EAEko biztanleria heltzeko eta zahartzeko prozesua.

2020rako, 100.000 pertsonako hazkunde dago proiektatuta, eta horrek batez besteko milako 3,3 tasa adierazten du, urtean. Bilakaera positiboa lehenengo urteetan izango da, eta epe ertainean, berriz, dezelerazio handia egongo da: aldiaren amaieran hazkunde nulua. Joera hori urteko hazkunde-tasaren bilakaeran egiaztatzen da, tasa hori 2007ko milako 9,1etik 2020ko milako 0,0ra igaroko baita.

Hazkunde-eritmoaren apurka-apurkako murriztapena, bestalde, bi faktore konbinatzearen eraginezkoa izango da: alde batetik, lehenengo urteetan saldo begetatiboa positibo samarra izango da, baina 2014tik aurrera joera aldatu egingo da, heriotza kopurua berriro ere jaiotza kopurua baino handiagoa izango baita. Bestalde, migrazio-saldoa positiboa izango da, baina gero eta txikiagoa: 2007ko 18.000 immigranteetatik 2020ko 4.000ra (apur bat gehiago) igaroko gara.

1.2. Hezkuntza

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren gastuen aurrekontuaren behin betiko llikidazioa, 2008an, 2.589.172 mila eurokoa izan da, eta horrek %7,7ko hazkunde adierazten du, aurreko urteari dagokionez; hazkunde hori, hala ere, 2006tik 2007ra bitartekoa (%12,3) baino txikiagoa izan da.

Gastu hori EAEko BPGren %3,78 da, eta 0,16 puntuko hazkunde izan du 2007koari dagokionez (%3,62). Irakaskuntzak banatuta ikusten denez, Unibertsitatekan kanpoko Irakaskuntzan (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza, HHI izan ezik) BPGren gaineko gastua hazi egin da (%2,6tik %2,73ra), eta Unibertsitateko Irakaskuntzan egonkor mantendu da (%0,48).

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko duen gastuaren ratioa (ikasle guztiak, hau da, araubide orokorrekoak eta berezikoak) 5.477 eurotik 5.353 eurora murriztu da; izan ere, azken urte honetan, ikasle kopuruak hezkuntzako gastuak baino hazkunde handiagoa izan du.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaraturiko azken datuen arabera (2005ari buruzko datuak), Hezkuntza Administrazioek BPGri dagokionez egindako gastua %3,55ekoa da EAEen (Unibertsitatekan kanpoko Hezkuntzan %2,90 eta Unibertsitateko Hezkuntzan %0,58); Estatuan gastu hori %3,77koa da (Unibertsitatekan kanpoko Hezkuntzan %2,82 eta Unibertsitateko Hezkuntzan %0,84).

EAEko 2008-09 ikasturteko matrikulazioari dagokionez, EUSTATEn datu-aurreapenean adierazitakoaren arabera, unibertsitate aurrekoak %1,9ko hazkunde izan du. Aurreko urteetan

ez bezala, hazkunde hori beheko mailetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH), Derrigorrezkoaren osteko Goi Irakaskuntzan (DOG) edo Irakaskuntza Ertainetan izandako hazkundeak eragin du. Baina, zalantzarik gabe, aipagarria da DBHko matrikulazioak gora egin duela lehenengoz; hain zuzen ere, %0,3ko hazkundea izan du. Beste modu batera esateko, hazkunde demografikoa 12 urtetik gorako biztanleen artekoa izan da.

Bestalde, Derrigorrezkoaren osteko Goi Irakaskuntzan (DOG) edo Irakaskuntza Ertainetan matrikulaturiko ikasle kopuruak %2,2ko hazkundea izan du. Hazkunderik handiena, Lanen Ikaskuntza albo batera utzita, Goiko LHn izan da (%3,4), eta, gero, Erdiko LHn (%2,7); hirugarrenez, berriz, Batxilergoan (%1,4). EAEn irakaskuntza ertainetan dabiltzan ikasleen %53,2k Batxilergoan aukeratzeko dute, derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren; gainerako %46,8k Lanbide Heziketa hautatzen dute (2006-07ko beherakadaren ostean goranzko joera).

Gehien eskatzen diren goi mailako lanbide-titulazioak honako hauek dira: Administrazioa %13 (aurreko ikasturtean %12,7), Elektrizitatea eta Elektronika %12,6 (0,3 puntuko murriztapena), Metala eta Fabrikazio Mekanikoa %11 (aurreko aldirian %11,4), Zerbitzuak erkidegoari/gizarte- eta kultura-zerbitzuak %9,6 eta Informatika %8 (beheranzko joerari eutsi, 2006-07 ikasturtean %9,3; 2005-06an %11,8 eta 2003-04an lanbide-familiarik eskatuena, ikasleen %13,3rekin).

Unibertsitateko Goi Hezkuntzako matrikulazioa (lehenengo bi zikloetan), unibertsitate publikoetan eta pribatuetan, INEren datuen arabera, berriro ere murriztu egin da, bai Estatuan eta bai EAEn. Matrikulazioek titulazioen arabera duten bilakaeraren azterketak agerian jarri duenez (EUSTATEk emandako datuen arabera), guztietan ere murriztapena egon da, honako hauek izan ezik: haur-hezkuntzako irakaslea, gizarte-hezkuntzako diplomatura eta medikuntzako eta kirurgiako lizentziatura.

Unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoak gora egin du 2007-08an. EAEn, 2006-07an %30,7koa zen, eta 2007-08an %31,2koa. Estatuan, bestalde, unibertsitateko biztanleria 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoa %30,6tik %31ra igaro da.

EUSTATEN arabera, eskaririk handiena duten titulazioak (2.000 matrikulazio baino gehiago) honako hauek dira: lizentziatura enpresen administrazioan eta zuzendaritzan (5.186 ikasle, eta %0,5eko hazkundea aurreko urtetik), enpresa-zientzietako diplomatura (3.923, eta %2,2ko murriztapena), industria-ingeniaritza (2.949, eta %2,5eko murriztapena), ingeniaritza teknikoaren barruko mekanika-espezialitatea (2.849, eta %4,8ko murriztapena), psikologiako lizentziatura (2.734 matrikulazio, eta %1,5eko murriztapena) eta zuzenbideko lizentziatura (2.673, eta %4,4ko murriztapena).

Bestalde, EUSTATEN datuak kontuan hartuta, unibertsitateko hirugarren zikloan (doktoregoa) 2001-02 ikasturteetik aurrera izandako hazkundea hautsi egin da 2005-06an, eta harrezkero jarraitu egin du. Gehienek (guztizkoaren %68) sare publikoaren barruko zentroetan egiten dituzte hirugarren zikloko ikasketak; eta, generoari dagokionez, emakume kopurua gizon kopurua baino handiagoa da (1.173 eta 1.076, hurrenez hurren).

Hezkuntza-adierazleei dagokionez:

- Eskolatzeari. Eskolatzeko-tasa garbia maila eta adin talde bakoitzeko eskola-efektiboaren eta adin talde horretako biztanleria osoaren arteko lotura da.
- 18 urteko eskolatzeko-tasekiko nazioarteko konparazioak agerian jarri duenez, EUROSTATen eta EUSTATEN datuak aintzat hartuta, EAE (2006an %77,7 eta 2007an %76,7) EB-27an erregistraturiko batez besteko tasaren gainetik dago (%77,4), baina EB-25eko tasaren azpitik (%78,3), eta eurozonako ehunetik urrun (%81,4); beraz, erreferentziako lurralderik gehienetako ehunetik urrun dago.
- Irakaskuntza iraunkorreko partaidetza. EBk ezarritako helburua 2010ean lan egiteko adinean (25-64 urte) dagoen biztanleriaren %12,5ek (gutxienez) irakaskuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzea da, eta tasa hori inoiz ere %10etik behera ez gelditzea. EUROSTATen datuen arabera, irakaskuntza iraunkorreko partaidetza egonkor mantendu da azken urteotan, eta 2007an %11koa izan da EB-15ean, %10ekoa EB-25ean eta %9,5ekoa EB-27an. Egonkortasun hori aintzat hartuta, 2010ean nekez lortu ahal izango dugu %12,5eko helburu hori. EAEn, Hezkuntza Ebaluazioa eta Ikerketako Euskal Institutuko (VEHSEI) datuen arabera, aldiraren bilakaerak aditzera ematen du etengabeko aurrerakuntza egon dela heziketa iraunkorraren tasan; hain zuzen ere, 1995eko %4,3tik 2007ko %13,2ra igaro da, eta, horrenbestez, lortu egin da 2010erako finkaturiko helburua.
- Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua. OCDEK 2006ko datuetan oinarrituz argitaraturiko azken datuek (*Education at a glance, 2008*) agerian jartzen dutenez, irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEkoak baino altuagoak dira Oinarriko Hezkuntzan (16,2 eta 13,9, hurrenez hurren), Bigarren Hezkuntzan (13,2 eta 9,7) eta Goi Hezkuntzan (15,3 eta 13,5).
- Egokitasuna ikasleen adinean (euren adinerako maila teorikoan matrikulaturik dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko lotura). Murriztu egiten dira adinarekin, baina azken etapetan hobetu egiten dira. Hain zuzen ere, 12 urtera arte oso altuak dira, 16 urtera arte murriztu eta, gero, berriro ere hazi egiten dira. Izan ere, aipatzekoa da tasan 17 urteko adinean izan den hazkundea, aztertutako bi urteetan: 2006-07 ikasturteko %57,7tik 2007-08ko %74,5era.
- Eskola sasoiak aurretik uztea¹. Lisboako 2000ko martxoko Europako Kontseiluaren ostean, ikasketak sasoi aurretik uzten dituzten gazteen %19,3 murriztu beharra funtsezko alderdi bihurtu eta helburu hauxe ezarri zen: "2010erako, estatukide

¹ Eskola alde aurretik uzteko tasarako erreferentziako biztanleria 18-24 urte bitarteko biztanleak dira, gehienez bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa amaitu dutenak (ISCED O, 1, 2 edo 3c) eta ikasten jarraitu ez eta heziketarik egiten ez dutenak, inkesta egin baino lehenagoko lau asteetan.

guztiek, gutxienez, erdira murriztu behar dute eskola uzteko tasa (2000ko datuei dagokienez), EBko batez besteko indizea %10etik gorakoa ez izateko”.

EUROSTATen datuen arabera, Espainiako uzte-tasa %31koa izan zen 2007an. EB-15eko estatuaren batez bestekoa %16,9koa da; baina, beste 10 estatu sartu ondoren, tasa %15era murriztu da.

ISEI-IVEIren datuak aintzat hartuta, tasa %13,2tik %15,8ra bitartekoa izan da, eta, beraz, pentsa daiteke nekez beteko dela EBk 2010erako ezarritako helburua. Emakumeen kasuan ere, horiek beti mugitu baitira %10etik beherako tasetan, %11 tasa dago. Bestalde, gizonen tasa %19,6koa da.

- Graduazio-tasa. Ikasketa mailen arabera graduazio-tasak (DBH, Batxilergoa, Teknikaria, Goi Teknikaria, Diplomatu, Arkitekto Teknikoa eta Ingeniari Teknikoa; eta Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria) murriztu egin dira 2005-06 ikasturteik 2006-07 ikasturtera; Diplomatuaren, Arkitekto Teknikoen eta Ingeniari Teknikoen kasuan izan ezik, horien ehunekoak %22tik %22,4ra igaro baita.

- Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitzea, 20-24 urte bitartekoaren artean. EBk ezarritako helburua 2010ean 20-24 urte bitarteko pertsonen %85ek (gutxienez) derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzako ikasketak amaituta edukitzea da (*ISCED 3a, 3b edo 3c long*).

EUROSTATen datuen arabera, ikasketa horiek amaitzeko tasa gero eta handiagoa da estatukiderik gehienetan. Hala eta guztiz ere, EB-27ko, EB-25eko eta EB-15eko batez bestekoak, hurrenez hurren, %78,1, %78 eta %75,2 direnez, pentsa daiteke 2010ean nekez lortuko dela %85eko helburua. EAEn, 2000tik 2007ra, ehunekoak %81 ingurukoa izan da, eta hori nahiko urrun dago %85eko helburutik.

- Zientzia, matematika eta teknologiko goi-graduatuak. EAEn, IVEI-ISEIren datuak aintzat hartuta, tasaren bilakaera iraunkorra eta positiboa izan da, eta 20-29 urte bitarteko biztanleen artean milako 20,2tik 27,1era igaro da, 2000tik 2005era; EBko estatu guztien arteko zifrarik altuenetarikoa da, segurutzat LH teknologikoak gure erkidegoan duen garrantziaren eraginez. Izan ere, iturri horrek dioenez, tasarik altuenak goi-mailako LHko irakaskuntza mailakoak dira, eta horien atzetik, hurrenez hurren, lizentziaturak, diplomaturak eta doktoregoak daude. Generoaren ikuspegitik, 2005ean, arlo horietako graduazio-tasa 22,1 puntu baxuagoa zen emakumeen artean gizonen artean baino (hurrenez hurren, milako 15,7 eta 37,8).

Amaitzeko, euskaren egoera aztertuko dugu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordeak 2006an egin eta 2008an argitaraturiko IV. Inkesta Soziolinguistikokoan jasotako datuetan oinarrituz.

Euskarazko hizkuntza-gaitasunari dagokionez, EAEko hiritarren herena elebiduna da. Euskaraz eta espainolez ondo moldatzen diren 15 urtetik gorako pertsonen ehunekoak %30,1ekoa da, eta 2001ean %29,4koa izan zen.

Hala eta guztiz ere, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, kasu askotan, kontrajarri egiten zaizkie **hizkuntza-transmisioari eta**

ama-hizkuntzari edo lehenengo hizkuntzari buruzko datuei. Hiru Lurralde Historikoetan, ama-hizkuntza nagusia espainola da. EAEko lau biztanlelik hiruren (%76,2) lehenengo hizkuntza espainola da, %18,7ren hizkuntza bakarra euskara da, eta %5,1ek bi hizkuntzak ditu.

Euskararen familia-transmisioa garrantzitsua izan arren, hori bezain garrantzitsua da euskara ama-hizkuntzat ez duten pertsonen ikastea; horrela, bi elementuak batuta, euskararen galeren/irabazien indizea ezar daiteke. Horrela, euskara lehenengo hizkuntzat izan duten pertsonarik gehienek, edo euskara eta gaztelania (biak) izan dituzten gehienek, mantendu egin dute euskara, eta orain elebidunak dira (%86,4). Hala ere, %13,6k guztiz edo neurri batean (%8,6 eta %5) galdu dute euskara (ulertu bai, baina ez dakite hitz egiten). Beraz, euskararen galerak oraindik ez dira guztiz geldiarazi.

Hala eta guztiz ere, euskaldun berri kopurua hizkuntza galdu dutenen kopurua baino hiru aldiz handiagoa da. Horrela, ama-hizkuntzat espainola izan duten artean, hamarretik 1,3k (%12,6) euskara ikasi du, eta orain elebidunak dira; beste horrenbestek (%21,4), euren lehenengo hizkuntza espainola izan arren, euskara ondo ulertzeko gaitasuna dute; euskaldunberriak dira, neurri batean.

Euskara eguneroko jardueretan erabiltzeari dagokionez, azken 15 urteotako bilakaera aztertzean ikusten denez, horren erabilerak gora egin du, apurka-apurka. 1991n %15,3, 2001ean %17,2 eta 2006an %18,6. Aldi berean, espainola soilik erabiltzen duen pertsona kopurua murriztu egin da, oraindik ere talderik ugariena izan arren, alde handiz (1991n %77,7; 2001ean %73,6, eta 2006an %70,4).

Zona soziolinguistikoen arabera, inkestak agerian jarri duenez, azken 15 urteotan euskararen erabilerak gorakadatxoa izan du 1. eta 2. zona soziolinguistikoetan (elebidunak, hurrenez hurren, %<20 eta %20-50); 3. zonan hazkunde handia izan du (elebidunak %50-80), ehuneko 5 punturekin, euskara espainolarene beste edo gehiago erabiltzen dutenei dagokienez; hala ere, 4. zonan 3 puntuko murriztapena egon da (biztanleriaren %80 euskalduna).

Euskarak eremuaren arabera duen erabilerari dagokionez, hauxe daukagu:

- Familian (bikotea, seme-alabak, neba-arrebak eta gurasoak), EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren %74k espainola baino ez dute erabiltzen. %14k beti eta gehienbat erabiltzen dute euskara, eta beste %4k espainolarene beste erabiltzen dute. Gainera, beste %8k euskara erabiltzen dute, baina espainola baino gutxiago.
- Inguruan (lagunak, auzotarrak, lankideak, dendak), EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren %15ek beti edo ia beti erabiltzen dute euskara lankideekin, %14k lagunekin eta %13k auzotarrekin eta merkatariekin. Halaber, %7k euskara eta espainola erabiltzen dituzte lankideekin eta lagunekin, eta %6k auzotarrekin eta merkatariekin.
- Arlo formalean (bankuak eta aurrezki-kutxak, anbulatorioa, udal-zerbitzuak):

- Udal-zerbitzuetan, euskara erabiltzen duten 16 urtetik gorako hiritarrak %18 dira, eta euskara eta espainola erabiltzen dutenak %4.
- Bankuetan eta aurrezki-kutxetan, euskara erabiltzen duten 16 urtetik gorako hiritarrak %17 dira, eta euskara eta espainola erabiltzen dutenak %4.
- Anbulatorioan eta osasun-zerbitzuetan, euskara erabiltzen dutenen ehunekoak %12 da, eta euskara eta espainola erabiltzen dutenena %5. Ehuneko hori aurrekoa baino baxuagoa da.
- Estatuko Administrazioaren mendeko erakundeetan (Gizarte Segurantzak, EEZP, NAN tramitatzeko bulegoak...) erabiltzen da gutxienez euskara. Hala ere, urteekin erabiltzaileen ehunekoak gora egin du.
- **Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrerari** dagokienez, EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren %64,7k euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera dute, %24k ez aldekoa eta ez aurkakoa, eta %11,2k aurkakoa. Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, bi puntuko aldea baino ez dago euskara sustatzearen aurkako jarrera dutenen artean, orain arte egindako lau inkesta soziolinguistikoetan. Aldiz, euskara sustatzearen aldekoen artean, aldea gero eta handiagoa da: 1996an %52 eta 2006an %64,7.

1.3. I+G+B jarduerak eta IKT-ak

2007an I+G jardueretan egindako gastua, EUSTATen datuen arabera, 1.090 milioi eurokoa izan da, eta horrek %20ko hazkundea adierazten du, aurreko urtean egindakoari dagokionez. Gastu hori BPGren %1,65 da, aurreko urtean baino 0,18 puntu handiagoa. Horrela, EAE, oraindik ere, Estatuko batez bestekoaren (%1,27) gainetik dago, I+G jardueretan egindako ahaleginaren arloan, baina EB-27ko batez bestekotik behera (%1,83).

INEk erregistraturiko ahalegina aintzat hartuta, EAE EB-27ko batez besteko balioaren gainetik egon da 2007an (%1,87 eta %1,83); dena den, konparazioa EUSTATen datuekin eginez gero ez da gauza bera gertatzen², batez besteko balio horrekiko alde murrizteko joera agerian gelditu arren.

EAEko I+G jardueren enpresa-betearazpena, berez, Estatuko enpresa-sektoreak egindakoaren antzekoa da; bertan, INEren arabera, I+G jardueretan egindako gastuaren %55,9 enpresek betearazi zuten (aurreko urtean %57,2). Hala eta guztiz ere, informazio hori interpretatzean kontuz ibili behar da. Frascati Eskuliburu³ metodologia aplikatuz gero, talde horretan gehienbat finantziario pribatua duten zentroak sartzen dira; horrela, Estatuko enpresa-ehunekoak EAEko I+G jardueren enpresa-betearazpena, berez, txikiagoa izango litzateke. EB-15ean, EUROSTAT aintzat hartuta, gastuaren %63,7 enpresek

egiten dute, baina lehen adierazitako arreta kasu honetan ere aplikatu behar da.

I+G jardueren finantziarioari dagokionez, azken urteotan sektore pribatuak bertan garrantzi apur bat galdu duela ikusi arren, sektore horixe da finantziario-iturri nagusia. Sektore pribatuak I+G jardueretan egindako gastu osoaren %58,9 finantzatzen du, eta Administrazioak %37,6. EAE 7,1 puntura dago Lisboako helburutik: I+G jardueretan egindako gastu osoa fondo pribatuekin finantzaturiko gastu osoaren %66 izatea. I+G jardueretan, finantziario pribatuaren ehunekorik handienak, EUROSTATen datuen arabera, honako estatu hauetan daude: Luxenburgoko (2005eko datua %79,7), Japonia (2005eko datua %76,1), Suitza (2003ko datua %69,7), Alemania (2005ean %67,4 eta 2006an %68,1), Finlandia (2005ean %66,9), Suedia (2005ean %65,7) eta AEB (2006an %64,9).

I+G jardueretako langile kopurua gero eta handiagoa da, lanaldi osoko baliokidetan neurtuta: 2007an 14.435 pertsonakoa izan zen, hau da, biztanleria landunaren %14,2 (aurreko urtean %13,2); milako hori Estatuko (%9,88) eta EBko (%9,9) baino handiagoa da, eta hurbil dago eta handiagoa da estatutik dinamikoenetan erregistraturikoa baino: Frantzia (%13,8), Alemania (%12,8) eta Japonia (%14,1).

Horiematik, %63,9 (9.220,3 pertsona) ikertzaileak dira. Emakumeak ikerketa-jardueran duen eginkizuna gero eta handiagoa da, baina oraindik ere gizonarena baino txikiagoa da (%33 eta %66, hurrenez hurren). Estatuan, INEren datuen arabera, emakumeek langileria osoaren %38,9 osatzen dute; ehuneko hori, beraz, EAEkoa baino handiagoa da.

Industriak I+G jardueretan egindako gastuari dagokionez, eduki teknologikoa kontuan hartuta, nolabait atzerakada ikusi da eduki teknologiko altuko eta ertain-altuko sektoreetan, batez ere enpleguari dagokionez; izan ere, balioa sortzearen aldetik ez dago argi, "saillatu gabeko" jarduerak kopuruak gora egin baitu. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da autore batzuk nabardurak egiten hasi zaizkiola saillapen sektorialari berari, OCDEk erabilitako intentsitate teknologikoan oinarrituz, produkzio-jarduerak batzuk bilakatu eta ez baitira teknologia batzuekin bahituta. Zientziak eta teknologiak produkzio-egitura osotik hedatzen dira, eta industria tradizionalako sektoreek (adibidez, ibilgailuak eta makineria) gero eta gehiago patentatzen duten elektronikaren sektorean; gainera, oro har, teknologia baxukotzat saillaturiko sektoreak horien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira, hau da, zientzian oinarrituriko sektoreak dira.

EUROSTATen datuen arabera, EB-27k esportaturiko high-tech produktuen ehunekoak, esportazio guztiei dagokienez, %17ren inguruan mantendu da 1995etik 2006ra. Hala ere, 2006an aldiko mailarik baxuenera jaitsi da (%16,6).

² EUSTATen laguna zentsukoa da (oinarritako datuak zentsutik zuzen-zuzen hartuta), eta INEren zentsukoa da enpresa handietarako, eta lagin-ekoak ETEetarako (lagina Enpresen Direktorio Nagusitik hautatuta, eta biztanleria osoari aplikatuz). Halaber, datuak argitaratzeko unean, BPG desberdina izan zen; EUSTATena INEren baino handiagoa zen (65.928.497 mila euro eta 65.146.711, hurrenez hurren).

³ Frascati-ren eskuliburuaren izen ofiziala "Ikerketa eta Garapen Esperimentaleko Inkestetarako Arau Praktikoaren Proposamena" da; OCDEren proposamena da, eta horrek, 1963an, I+G deritzonoko estatistika-adituen talde bat bildu zuen, eskuliburu idazteko. Gaur egun, Ikerketa eta Garapeneko hartzen diren jarduerak zehazteko erreferentziatzat onartzen da.

EUSTATEN Teknologia Berrikuntza Inkestako⁴ datuek diotenez, teknologia-berrikuntzarako jardueretan egindako gastu osoak %10,9ko hazkundera izan du, eta 2007an 2.610 milioi eurokoa izan da. Gastu hori BPGren %4 da (2006an %3,8), eta horrek hautsi egin du aurreko urteetan ikusitako egonkortasunerako joera. Urte honetan ere, gastu horren zatirik handiena barruko I+G jardueretarako eta makineria eta ekipamendua lortzeko da (hurrenez hurren, %41,8 eta %34); horiek, BPGren %1,7 eta %1,3 dira, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan ikusitakoari jarraituz, gastuak gora egin du enpresen tamaina handitzean; hala ere, 3 eta 9 enplegu bitarteko enpresak oso aktiboak dira, eta 10 eta 19 bitartekoak eta 50 eta 99 bitartekoak ez horrenbeste.

INEk horri buruz emandako informazioak beste desagregazio maila bat erabiltzen du (250 enplegatutik beherako enpresak eta hortik gorakoak); bertan oinarrituta ikusten denez, EAEn ETEek gastuan duten partaidetza, lehen bezala orain ere, 250 enplegutik gorako enpresen partaidetza baino handiagoa da. Bestalde, Estatuan, 2006ra arte, 250 enplegatutik gorako enpresek partaidetza handiagoa (eta gero eta handiagoa) zuten gastuan, eta 2007an joera hori aldatu egin da.

Jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresa guztiek ez dituzte produktu berriak eta oso hobetuak sartzen merkatuan. INEren datuen arabera, 2005-07 aldian produktuan edo prozesuan 9 enplegutik gorako Estatuko enpresen %25,3 dira berritzaileak, eta EAEn %31,8. Horrela, enpresa berritzaileen ehunekoa ehuneko 8,3 puntu handiagoa da EAEn Estatuan baino.

EUSTATEN datuen arabera, berrikuntzarako jardueretako gastuak gora egin du, eta enpresa berritzaileek (produktuan edota prozesuan) enpresa guztiei dagokienez duten ehunekoa, berriz, beheranzko joera izan du 2003tik, eta %16,5etik %16,1era igaro da. Egiten ari diren edota huts egin duten berrikuntzadun enpresak kontuan hartuta (EBGak: enpresa berritzaileak edo berrikuntzak egiten ari direnak edo arrakasta gabekoak), ehunekoa apur bat handiagoa da, eta nolabaiteko egonkortasuna mantentzen da %17ren inguruan. 9 enplegatutik gorako enpresa berritzaileak soilik aintzat hartuta, enpresa berritzaileen ehunekoa %32 da (aurreko aldia %32,7). 9 enplegatutik gorako EBGen kasuan ehunekoa %34,6 da (aurreko aldia %34,5).

Teknologia-berrikuntza mota berezita, prozesuko berrikuntzak, berriro ere, nagusitu egin zaizkie produktuko berrikuntzei, bai 9 enplegutik gorako establezimenduetan eta bai 9 enplegutik beherakoetan. Hain zuzen ere, enpresa guztiei dagokienez, prozesuko berrikuntzak egin omen dituztenak %14,5 dira (aurreko aldia %15,1), eta produktuko berrikuntzak egiten dituztenen kasuan ehunekoa %5,5 da (aurreko aldia %5,8). 9 enplegatutik gorako establezimenduetan, ehuneko horiek handiagoak dira, baina prozesuko berrikuntza hemen ere nagusitu egiten zaio produktuko berrikuntzari: prozesuko berrikuntzen kasuan %26,9

eta produktuko berrikuntzetan %14,1 (aurreko aldia, hurrenez hurren, %27,9 eta %14,4).

Kanpoko finantziarioari dagokionez, EUSTATEN datuen arabera, finantziazio publikoa jaso duten enpresa berritzaileen ehunekoa egonkor mantendu da, 2005-07an %27,7 inguruan. Laguntzen jatorriaren arabera, establezimendu kopururik handiena sustatzen duen administrazioa Eusko Jaurlaritzak da, baina horren garrantzia gero eta urriago da, beste iturri batzuk nagusitzen ari baitira, esate baterako, Foru Aldundiak eta EB. EUSTATEN Europako Berrikuntza Indizearen arabera (SII), 2008an, EAE II. postuan zegoen EB-27an, 0,49 punturekin; EB-27ko batez bestekotik gora zegoen, batez besteko hori 0,48 baita. Berrikuntzaren arloko estatu nagusien artean Suedia (0,64), Finlandia (0,61), Alemania (0,58), Danimarka (0,57) eta Erresuma Batua (0,55) daude. Europar Batasunetik kanpoko estatuak dagokienez, Suitza (0,68) talde horren barruan dago. Sektore honetako IKTei dagokienez, EUSTATEN datuen arabera, 2006an sektore horretan 2.175 enpresa zeuden, eta sektoreak EAEko balio erantsiaren %3,9 eta enpleguaren %2,5 lortu zituen.

Halako teknologiak sartzearen eta erabiltzearen arloan, INEK emandako datuak kontuan hartuta, EAE lehenengo postuan dago Estatuko autonomia-erkidego guztien artean, telefono finkoa (%92) duen etxebizitza-ehunekoari dagokionez; hirugarren postuan ordenagailua (%66,4) eta interneteko konexioa (%57) duen etxebizitza-ehunekoan (%66,4), Madrilen eta Kataluniaren atzetik; hamabigarrenean sakelako telefonoaren arloan (2007an seigarrena eta 2006an bosgarrena), eta hamahirugarrena banda zabalerako konexioa dutenen artean (aurreko aldia bederatzigarren postuan). Horrenbestez, EAEK Estatuan posizioak galdu ditu banda zabaleko konexioan eta sakelako telefonoen arloan.

EUROSTATEN eta INEren datuen arabera, 16-74 urte bitarteko kide bat (gutxienez) interneteko konexioarekin duten familien ehunekoa, 2008an, %60koa izan zen EB-27an; eta banda zabalerako dutenen ehunekoa %48koa; Estatuan ehunekoak %51 eta %45 dira, hurrenez hurren. Horrenbestez, EAE, %57rekin eta %44rekin, Europako batez bestekoa baino apur bat beherago dago, eta erreferentziako herrien balioetatik urrun: Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgoko eta Erresuma Batua.

Erabilerari dagokionez, INEK emandako datuak aintzat hartuz, EAE hazten ari da oraindik, eta posizioak mantendu edo irabazi ditu Estatuko sailkapenean. Horrela, 2007 eta 2008 bitartean, honako baliabide hauek erabili dituzten 16-74 urte bitarteko pertsonen ehunekoak hauexek dira: PCa %59,2tik %63,7ra igaro da; internet %53,6tik %59,5ra; eta erosketak internetez egin dituztenen ehunekoa %13,3tik %15,4ra. Lehenengo eta azken kasuetan, hau da, PCren erabileran eta interneten bidezko erosketetan, 6. posizioa mantendu da sailkapenean, eta bigarren kasuan, berriz, 6. postutik 4. postura igaro da.

⁴ Jasotzaileak neurri eta jarduera-sektore guztietako EAEko enpresak dira, lehen sektorekoak, herri-administrazioak eta etxeko zerbitzukoak izan ezik (INErenaren barruan, berriz, hezkuntza *osoa* sartzen da). Hau da, biztanleria-eremua hauexek dira: edozein neurritako establezimenduak eta jarduera-sektore hauetakoak, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (93) arabera. Ikusk.: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honako hauek kanpoan gelditzen dira: lehen sektorea (A eta B), herri-administrazioa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

EUROSTATen eta INEren 2008ko datuak konparatuta ikusten denez, interneten erabileraren arloan EAE (inkestak egin aurreko hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten pertsonen %51,5rekin) Estatuko batez bestekotik (%49) gora dago, baina EB-27ko (%56), EB-25eko (%58) eta EB-15eko (%60) batez bestekoetatik behera.

Transakzio elektronikoei dagokienez, interneten bidez erosi ez duten pertsonen ehunekoak kontuan hartuta, EAE (%53,8) postu onean dago gainerako autonomia-erkidegoen artean, hiruk baino ez baitituzte ehuneko txikiagoak: Balearrak (%46,9), Errioxa (%52) eta Aragoi (%52,7). Hala eta guztiz ere, datuak guztiz homogeneoak izan ez arren, Europarekiko konparazioak agerian jartzen du posta elektronikoa hedapen urriagoa duela EAEn.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, enpresetako informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren (IGI-enpresak) azken edizioak agerian jarri duenaren arabera, EAEko enpresetan IKTak sartzeko prozesua hazten ari da oraindik.

Enpresen tamaina bereizketarako funtsezko elementua dela ikusi da, berriro ere. Horrela, enplegu-geruza guztietan halako teknologietan hazkunde garrantzitsuak egon diren arren, hazkunderik urrienak establezimendurik handienek dituzte, euren ekipamenduak hobetzeko tarte handirik ez dutelako. Bigarrenez, esan daiteke desberdintasunok handiagoak direla establezimenduen arloan, enpleguaren arloan baino, besteak beste establezimendu txikiak aurrerakuntza handiagoa izan dutelako eta handietan enplegatu guztiek ez dituztelako halako ekipamenduak erabiltzen.

Interneten edo bide elektronikoen bidezko merkataritza-transakzioei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, merkataritza elektronikoa (zentu zabalean) egiten duten establezimenduen ehunekoak gora egin du, eta 2006ko %12,8tik 2007ko %15,3ra igaro da.

Establezimenduen tamaina aintzat hartuta, erosketak elektronikoen ehunekoak handiagoak da 10 enplegatutik beherako enpresetan, 10etik gorakoetan baino. Hala ere, salmenten ehunekoak handiagoak da enpresarik handienetan. Hala eta guztiz ere, EAEn on line motako salmentak egin zituzten 9 enplegatutik gorako enpresen ehunekoak %7,8koa izan zen 2007an; EUROSTATen datuen arabera, 2007an, ehunekoak %15ekoa (EB-27), %16koa (EB-25) eta %17koa (EB-15) izan dira.

Bestalde, on line motako erosketak egin dituzten 9 enplegatutik gorako enpresen ehunekoak, EAEn, %21,4koa izan da. EUROSTATen datuak aintzat hartuta, 2007an ehuneko hori EB-27an %29koa, EB-25ean %30ekoa eta EB-15ean %34koa izan da.

1.4. Ingurune naturala

Azken urteotan, EAEko produkzio-egituraren birmoldaketak eta atmosferaren kutsadura arintzeko ekintzek kutsadura mailak murriztea ahalbidetu dute. **Airearen kalitatearen⁵ eta**

partikula-isurpenen adierazleak positiboak dira, eta norabide egokian doaz; dena den, oraindik ere bizkortu egin behar dira PM₁₀ partikulen inguruko jarduketak.

Airearen kalitatea. Eusko Jaurilaritzak emandako informazioaren arabera, "ona" da, edo behintzat "onargarria", aztertutako azpizona guztietan. Horrela, airearen kalitate indize txarra edo oso txarra duten egunen ehunekoak, 11 laginketa-estazioetako egun kopuruari dagokionez, 3 hamarren murriztu da 2007tik 2008ra (%1,1etik %0,8ra); balio absolutuetan 43 egunetik 34 egunera. Bestalde, airearen kalitate moderatuko egunen ehunekoak nabarmen murriztu da, %5,1etik %2,4ra, eta balio absolutuetan 206 egunetik 96 egunera.

Kutsagarri atmosferikoei dagokienez, 2008an SO₂-ren isurpenetan behin gaintu zen eguneroko gehieneko balioa (Azpeitiko estazioan), eta gehieneko ordutegi-balioa 10 aldiz gaintu zen (Azpeitiko estazioan). Hala eta guztiz ere, legeriak eguneroko gehieneko balioa 3tan gaintutzea eta gehieneko ordutegi-balioa 24 aldiz gaintutzea ahalbidetzen duenez, ez dira gaintu ezarritako mugak. NO₂-ren isurpenetan urte zibileko⁶ gehienez 18 aldiz gaintu da tolerantzia-tartearen legezko muga, NO₂-ren ordutegi-balioetarako. Gizakiaren osasuna babesteko urteroko batez besteko balioaren aldetik, ezin estaziotan ere ez da gaintu tolerantziako muga+tartea (44 µg/m³). CO-ren isurpenek ez dute gaintu okto-ordutegiko batez bestekoa, legezko mugaren gainetik (10 mg/m³). PM₁₀-ren isurpenetan gaintu egin dira legezko mugak, baina halako kasuak 2007an baino gutxiago izan dira. Hain zuzen ere, 2007an 13 estazio urteko batez besteko muga gaintuzten zuten (urteko 35 egun), eta 2008an 4 estazio baino ez dira izan.

Uren kalitateari dagokionez, Eusko Jaurilaritzak emandako datuen arabera, **ibaien** kasuan, MBI indizearekin (makro-ornogabe bentonikoak) loturiko balorazioetan oinarrituz, Ingurumeneko II. Esparru Programaren (2007-2010) denbora-eremuan planteaturiko helburuak neurri txikian bete dira, eta horrek azken emaitzen (2004-2007) egonkortasuna jartzen du agerian. Hala ere, IFQ-R adierazleak ez du berretsi makro-ornogabe bentonikoei lotutako egonkortze hori; adierazle horrek komunitate biologikoen garapena ahalbidetzen duten baldintza fisikokimiko orokorren egoera adierazten du, ingurumen-helburuen araberrakoak: adierazleak hobekuntzarako joera argia adierazi du beti, eta 2007an eta 2008an betetze-ehuneko handiak adierazi ditu. Horrela, 1999an adierazitakoaren arabera, ibai kategoriako ur-masen %40 inguruk bete egiten zituzten ingurumen-helburuak, IFQ-R indizearen arabera; gaur egun, eta 2008an aztertutako ibai kategoriako 100 ur-masak kontuan hartuz, %83k bete egiten dituzte helburu horiek.

Trantsizioko uretan (estuarioak) arazo gehiago dago, baina bilakaera ona ikusi da. 2002an, masen %7k (laginketa-estazio-

⁵ EAEko airearen kalitate-indizea lortzeko, zaintzako eta kontrolako sare bat dago, eta horrek, denbora errealean, zenbait parametro neurtzen ditu; esate baterako, sulfuro-dioxidoko (SO₂) kutsagarriak, nitrogenoa eta oxigenoa proportzio desberdinetan dituen gas oso erreaktiboen taldea (NOx) [esaterako, oxido nitrikoa (NO) eta nitrogeno-dioxidoa (NO₂)] karbono-monoxidoa (CO), 10 µm-ko (PM₁₀) ebaketa duten partikulak eta troposferako ozonoa (O₃), EAEko zona desberdinetan banaturiko estazioetan.

⁶ Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

en %38) baino ez zituzten helburuak betetzen. Hala eta guztiz ere, 2008an, masen %50ek betetzen dituzte (kontrolako estazioen %69). **Kostaldeko uretan** egoera oso ona da, laginketa-estazioen %100ek bete egin baitituzte helburuak. **Aintziretan eta barrualdeko zona hezeetan**, badirudi bilakaera positiboa dagoela, baina hori oraindik ez da nahikoa. 2001-2002 ziklo hidrologikotik aztertutako 15 gune hezeetatik, lehenengo zikloan %7k soilik betetzen zituzten helburuak; baina azken zikloan %27k betetzen zituzten, aurreko aldiko emaitzak errepikatuz. Azkenik, eta **bainurako urei** dagokienez, 2008an egindako azterketak agerian jarri duenez, bainurako 10 zona hobetu egin dira, eta 3k txarrera egin dute: Karraspio hondartza Bizkaian, Gros-Zurriola hondartza (eskuinean) Gipuzkoan eta Ulibarri-Ganboa urtegia (eskuinean) Araban.

Iraunkortasun kontzeptuaren barruan, **baliabidearen kontsumoa eta horren erabilaren eraginkortasun maila** hartu behar dira kontuan. **Uraren** kasuan, banaketa-sarean galdutako urak %3,6ko murriztapena izan du 2005etik 2006ra, eta ur erabilgarri guztiaren %12,6 da (2005ean %11,3). Estatuan, banaketako sare publikoetan, ihesetan, apurzteetan eta halakoetan, ur erabilgarri guztiaren %16,7 galdu zen (aurreko urtean %17,9). Halaber, uraren per capita kontsumoak behera egin du zenbait autonomia-erkidegotan (EAEn ere bai), %7,9, hain zuzen ere, 129 pertsona/litro/egunetan daude, hau da, Estatuko batez bestekoaren azpitik, eta hori 166tik 160 pertsona/litro/egunera murriztu da. EUSTATEk Familiei egindako Ingurumenari buruzko Inkestan (FI) adierazitakoaren arabera (2008), EAEko familien %97,1ek ur-kontsumoa murrizteko aukera ematen dien ohituraren bat dute. Hala eta guztiz ere, %10ek baino ez dauka ura aurrezteko gailurik. Estatuan, halako gailuak dituzten etxebizitzaren ehunekoak %17koa da.

EAEn uraren balio unitarioa, 2006an, 0,87 euro/m³ izan zen, eta horrek %4,4ko murriztapena adierazten du, 2005eko balioari dagokionez. Estatuan batez besteko prezioa 1,08 euro/m³ da (%+5,9).

Bestalde, 2005etik 2006ra, **bildutako hondakin-uraren** bolumenak %27,5eko murriztapena izan du, eta 1.086.767tik 788.237 m³/egunera igaro da. Horietatik %83,4 **tratatu** egiten dira.

Bestalde, **energiaren azken kontsumoak** %2,7ko hazkundera izan du 2006tik 2007ra, eta 5.746 Ktep-ekoa izan da; hazkundera hori, batik bat, garraio-sektorean (%7,6, hau da, 1.867 Ktep-etik 2.008 Ktep-era) eta industria-sektorean (%2,8, hau da, 2.569 Ktep-etik 2.642 Ktep-era) izandako hazkunderaren eraginezkoa da, horietatik baitute eraginik handiena kontsumoan; hain zuzen ere, lehenengoak kontsumo osoaren %46 eragiten du, eta bigarrenak %34,9. Energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak⁷ %0,7ko hazkundera izan du, eta 7.773 Ktep-ekoa da⁸:

EAEn egindako oinarritzko energiaren produkzioak %10,8ko hazkundera izan du, eta 420 Ktep-ekoa da. Oinarritzko energiaren berezko produkzio txiki horrek EAEko eskariaren %5,4 betetzeko aukera baino ez du ematen (7.773 Ktep). Horrenbestez, EAE kanpoarekiko duen energia-mendekotasuna %94,6koa da. Gaur egun, oinarritzko energiaren EAEko produkzioa, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritzen da (hemengo iturri nagusia), baita energia deribatuetan ere. Hala ere, energia berriztagarrien bidezko produkzioa eskari osoaren %5 baino ez da. Intentsitate energetikoak, BPGren unitate bakoitzeko azken kontsumotzat neurtuta, agerian jartzen du, 2007an, 1997koaren %95 dela; aurreko urteari dagokionez puntu lean hobetu da, BPG energiaren azken kontsumoa baino gehiago hazi baita. Sektorea, industriako intentsitate energetikoa, 2007an, 1997koaren %90ekoa da, eta 2006koari dagokionez egonkor mantendu da. Garraioan, aldiz, intentsitate energetikoa %6,6ko hazkundera izan du 1997koari dagokionez, eta %3,9koa, aurreko urteari dagokionez; zerbitzu-sektorean intentsitatea 3,2 puntutan hobetu da aurreko urtetik, baina 1997ko balioa baino %11,9 handiagoa da oraindik.

Hondakinak sortzearen eta kudeatzearen arloan, INEren industria-sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestako azken datuek agerian jarri dutenez, aurreko urtean ez bezala, arriskurik gabeko hondakinen sorkuntzak gora egin du EAEn (%+1,9, eta aurreko urtean %-3,1). Aldiz, hondakin arriskutsuen sorkuntza, aurreko urteetan gertaturikoaren alderantziz, murriztu egin da apur bat (%0,1). Hala ere, EAE (381.452 tona) berriro ere bigarren erkidegoa da, industria-sektorean hondakin arriskutsurik gehien sortzeari dagokionez (Kataluniaren atzetik, 496.227 tona). EAE laugarren postuan dago Estatuoko industriako BPGn egindako ekarpenaren arloan, %10,5ekin; honako hauen atzetik: Katalunia (%25,5), Madril (%12,9) eta Valentzia (%10,9).

Hiri-hondakinei dagokienez, per capita baliotan, INEren **Hiri Hondakinak Biltzeari eta Tratatzeari buruzko Inkestako** datuen arabera, 2006an EAEn 488 kg bildu ziren nahasita, eta zifra hori Estaturikoa (500) baino txikiagoa da, baita aurreko urtekoa (501) baino txikiagoa ere. Bilketa hautakorrean, kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak), EAE Estaturikoa kasuan kasuko batez bestekoetatik gorako balioak ditu.

EUSTATEk Familiei egindako Ingurumenari buruzko Inkestako (FI-2008) datuek berretsi egin dute halako hondakinak birziklatzeko ohitura handiagoa. Horrela, inkesta hori kontuan hartuta, EAEn inkestaturiko familien %92,3k birziklatu egiten dituzten paperezko eta kartoizko hondakinak, %91,6k beirazkoak eta %90,2k plastikoak eta metalak. Inkestak agerian jarri duenez, hondakin organikoen banaketak askoz ere hedapen txikiagoa dauka (%32,3). Bestalde, Estatuan paperaren, beiraren eta plas-

⁷ Balantze energetikoetan barne-kontsumo gordinak edo energia-eskaria eta azken kontsumoa bereizten dira. Energia-eskaria edo barne-kontsumoa, funtsean, lurraldean bertan sorturiko oinarritzko energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren arteko balantzea da (garraioa, biltegiatzea, banaketa...). Azken kontsumoa, berriz, azken sektore kontsumitzaileen kontsumoaren batuketara da; hau da, industria, garraioa, lehen sektorea, zerbitzuak eta laguntza.

⁸ Ktep-ak: Milaka tona petrolio-baliokide.

tikoen eta metalen birziklapena %70-75 bitartekoa da, EAEkoa baino askoz ere baxuagoa; hondakin organikoak banantzeko ohitura, berriz, handiagoa da (%60).

“Ingurumenaren Egoera EAEn, 2009” txostenaren arabera, hondakinen ezabaketa ekiditeko erakunde-erantzunen kopuru, aniztasun eta intentsitate handia emaitzak ematen ari da; izan ere, balorazio-adierazleek hobekuntza iraunkorrak eta garrantzitsuak izan dituzte, Ingurumeneko 2007-2010eko Esparru Programan 2010erako ezarritako helburuak betetzeko. Horrela, lehen aipaturiko agirian esaten denez, 2007an hondakin arriskutsuak baloratzeko tasa %56,8koa izan da (helburua: %65), arriskutsuak ez diren hondakinena 2006an %67koa (helburua %75) eta hiri-hondakinena 2007an %30,6koa (helburua %35). Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen arloan bide luzeagoa dago egiteko (%35, eta helburua %70 da).

Sorturiko hiri-hondakinen zero isurketako konpromisoari dagokionez, 2007an horien %50 hondakindegira eraman ziren. Horrenbestez, zero isurketaren helburua betetzeko oraindik urrun egon arren, oraingo egoerak beste aurrerakuntza bat jarri du agerian, 2000ko egoerari dagokionez, urte horretan hiri-hondakinen %77 eraman baitziren hondakindegira.

Klimaren aldaketari eta negutegi-efektuko gasen isurpenen (NEG) aldetik, Kiotoko protokoloak zuzeneko⁹ isurpenen hazkundea %15ean murrizteko konpromisoa esleitu dio Espainiako Estatuari, oinarri-urteari dagokionez (1990), 2008-2012 bitarteko aldirako. *NEGen isurpen osoak* (zuzena eta zeharkakoa, hau da, inportaturiko elektrizitateari lotutakoak ere barne) gora egin duen EAEn, 2007an, “EAEko negutegi-efektuko gasen isurpenen inbentarioa 1990-2007an” deritzonoko datuen arabera; hain zuzen ere, 25,3 milioi tona CO₂ baliokidekoa izan zen; horrek %4,5eko murriztapena adierazten du 2006ko isurpenetatik, eta %21eko hazkundea oinarri-urtekoetatik.

Hiritarrek ingurumenarekiko duten jarrerari dagokionez, 2008ko Gizarte Ekobarometroaren eta EUSTATEk Familiei Ingurumenari buruzko egindako 2008ko Inkestaren (FI-2008) arabera:

- *Ingurumena babestearen eta kontserbatzearen aldeko sentsibilitateak* hazkunde etengabea izan du (2001eko Ekobarometroan inkestaturiko biztanleen %4k esan zuten helburu horixe zela garrantzitsuena; 2004koan ehunekoa %7koa izan zen, eta 2008koan %12koa). Hala eta guztiz ere, gehienek beste helburu batzuk aipatu zituzten, adibidez, aberastasuna eta enplegua sortzea (%32), pobretasuna murriztea (%21) edo laneko gatazkak urritzea (%20).

Planteaturiko ingurumen-kezken artean ikusten denez 2004an bezala, klimaren aldaketa lehenengo postuan dago (inkestaturikoen %63, eta 2004an %57). Bigarren postuan, uraren kutsadura (inkestaturikoen %52, eta 2004an %42) eta pertsonen eragindako hondamenak (%51, eta 2004an %39) daude. Aldiz, kezkarik txikiena sortzen duten ingurumen-

arazoak honako hauek dira: genetikoki aldatuta dauden organismoen erabilera, erabilitako garraiobideen ondorioak (autoaren erabilera, autobideen eta errepideen eraikuntza, trafikoaren ondoriozko kutsadura...) eta hirietako arazoak (auto-ilarak, zona berderik ez egotea...).

Datu horiek Eurobarometer 295 deritzonak argitaraturikoekin konparatuta ikusten denez, 2007an kezka nagusiak berberak ziren EBn eta EAEn, baina EAEko biztanleek EBko batez bestekoa baino kezka handiagoa honako gai hauetan: klimaren aldaketa, uraren kutsadura, ingurumen-hondamenak (be-rezkoak eta pertsonen eragindakoak), biodibertsitatearen galera, baliabide naturalak agortzea, hondakinen eta zaborren bolumena handitzea, zarata, kontsumo-ohiturak, hiri-arazoak eta garraiobideen ondorioak. Halaber, kezka gutxiago eragiten diete airearen kutsadurak, produktu kimikoek osasunean duten eraginak, nekazaritzako eta abeltzaintzako kutsadurak, eta genetikoki aldaturiko organismoen erabilera.

- Dirudienek, ez dago korrelaziorik *ingurumen-informaziorik* ez edukitzearen eta kezkatuta egotearen artean; izan ere, informazio eza handiko alderdi batzuek (esate baterako, produktu kimikoek eta genetikoki aldaturiko organismoen erabilera osasunean dituzten ondorioak) kezka txikia eragiten dute. Aldiz, biztanleriak hiru alderdirik kezkarrienen inguruko informazio eza ertaina-handia dauka: klimaren aldaketa, uraren kutsadura eta pertsonen eragindako hondamenak.
- Lau pertsonatik batek dienez, ez du ezer egiten ingurumena babesteko. Horretarako azaldutako arrazoen artean, aipatzekoak dira horrek oztopoak sortzea (taldearen %42) eta halako ekintzek ondorioz ez edukitzea (%31) daude, baldin eta kutsatzaile nagusiek beste horrenbeste egiten ez badute. EAEn gertatzen denaren alderantziz, Eurobarometer 217 deritzonaren arabera, EB-25ean ingurumena babesteko ahaleginik txikiena egiten duten pertsonen, 2004an, jokabide horren eraginezko oztopo pertsonalak baino gehiago (%21), halako ekintzen eragin urria aipatu dute, baldin eta kutsatzaile nagusiek edo gainerako pertsonen beste horrenbeste egin ezean (%33 eta %27, hurrenez hurren).
- Biztanleek ez diete erreparatzen *produktuen ingurumen-etiketei*; horrela, pertsonen %68k ez dute arreta handirik edo batere arretarik jartzen produktuetan eurok ingurumenean duten eraginari buruz jartzen diren etiketei; 2004ko Gizarte Ekobarometroan erregistraturiko ehunekoa %56koa da. Izan ere, EUSTATEk Familiei egindako Ingurumenari buruzko Inkestako (FI-2008) datuek diotenez, EAEko familiek, erosketak egiteko orduan, zenbait aldagairen artean (prezioa, marka, eraginkortasun energetikoa, etiketa ekologikoak eta tokiko produktua/produktzioaren hurbiltasuna) honako hauei ematen diete garrantzirik handiena: prezioa (inkestaturiko familien %91,7k lehenengo postuan

⁹ CO₂ kutsagarriak klimaren aldaketan ondorio globalak dituzenez, EAEko helbururako aintzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoak sortzen dituen isurpen guztiak (guztizko isurpenak), horiek edozein lekutan sortuta ere. Bestela, eta zuzeneko emisioak soilik kontuan hartuz gero, gerta daiteke isurpen-helburuak betetzeko elektrizitate kantitate handiagoa inportatu behar izatea, kontsumituriko energia elektrikoan ezertan eragin gabe.

jartzen dute); bigarren postuan eraginkortasun energetikoa dago (familien %75,8k garrantzitsuztat hartzen dute, etxetresna elektrikoak erostean); hirugarrenez, tokiko produktua edota hurbileko produkzioak izatea (familien %56,9); laugarrenez, marka (familien %54,7); eta, bosgarrenez, janarien kasuan etiketa ekologikoak (familien %52,6k garrantzitsuztat hartzen dute).

- EAE, 2007an, inkestaturiko pertsonen %75ek uste zuten klima aldatzen ari zela. Halaber, horien %75ek kezka handia edo nahiko handia zuten klimaren aldaketa horri zegokionez. %65en iritziz, fenomeno horrek etorkizunean eragina (handi edo nahiko handia) izango du bere bizitzan; %20k esan zuten euren eguneroko bizitzan eragin handia izango duela. Hala ere, ia %67ren ustez, eurek egindako CO₂ isurpenak txikiak eta ia nuluak ziren, eta antzeko proportzio batek uste zuten klimaren aldaketa murrizteko ezin daitekeela ezer egin, edo gutxi egin daitekeela.

Beste modu batera esateko, disoziazioa dago EAEko biztanleek klimaren aldaketaren inguruan adierazten duten kezka handiaren eta horrek etorkizunean izango dituen ondorio pertsonalen eta jokabide pertsonalei halako ondorioak arintzeko eratzkitzen zaien garrantzi urriaren artean. Hau da, arazoaren garrantzia egiaztatu bai, baina ez dira barneratzen hori ebazteko inplikazio pertsonalak, horiek gainontzekoei proiektatzen baitzaizkie.

Enpresa-sektoreari dagokionez, lhobek emandako datuen arabera, **ingurumen-ziurtagiri**en edo **ziurtagiri "berdeen"** kopurua (ISO 14001, Ekoscan Araua, Europako EMAS Araudia edo UNE 150.301-Ecodiseño) gero eta handiagoa da. Horrela, 2007 eta 2008 bitartean, ziurtagiri kopurua 1.130etik 1.228ra igaro da (98 gehiago). Gogoratu behar da Ingurumen Kudeaketako Sistema baten ezarkuntza, ingurumen-konpromisoa ez ezik, lehiakortasun-faktore garrantzitsua ere badela, nazioarteko merkatuan.

Bestalde, INEren **industria-enpresek ingurumen-babesean egindako gastuari** buruzko Inkestako azken datuen arabera, 2006an enpresa horiek ingurumen-babesean egindako gastuak, EAE, %4,3ko hazkundea izan zuten, 2005ean egindakoari zegokionez. Gastua BPGren ehunekoztat neurtuta ikusten denez, %0,38tik %0,36rako beherakadatxoa egon da. Eta, EAE oraindik ere lehenengo postuetan egon arren, bi postu galdu ditu sailkapenean, eta laugarren postutik seiga-

rrenera igaro da, Asturiasen (%0,86), Nafarroaren (%0,46), Galiziaren (%0,43), Kantabriaren (%0,39) eta Gaztela eta Leonen (%0,37) atzetik.

1.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

Munduko ekonomiak hogeita hamarrek hamarkadatik honako finantza-shockik garrantzitsuena jasan du. Izan ere, 2007ko abuztuan hasitako finantza-krisia, Amerikako Estatu Batuetako arrisku handiko hipoteken merkatua kolapsatu ondoren hasitakoa¹⁰, 2008an fase asaldatuan sartu zen, eta horrek kalte egin zion munduko erakundeekiko eta finantza-merkatuekiko konfiantzari¹¹.

Kaudimenik ezarekiko kezka gero eta handiagoaren ondorioz, elkarren atzeko porrotak, derrigorrezko bat-egiteak eta eskuhartze publikoak sortu ziren Amerikako Estatu Batuetan eta mendebaldeko Europan, eta horrek nabarmen aldatu zuen finantza-panorama. Gainera, bankuen arteko merkatuak ia geldiarazi egin ziren, konfiantza galtzearen eraginez.

Apurka-apurka, finantza-arazoak ekonomia errealean eragiten hasi ziren. Transmisio-biderik garrantzitsuenetariko bat banku-kredituaren baldintzak murriztea izan zen. Bankuak despalankatzen¹² saiatu ziren, merkatuak balantzeen arrisku gutxiago onartzen zuelako, kapitala gero eta garestiagoa zelako eta handizkako finantziario gero eta gutxiago lortzen zelako.

Finantza-sistema desblokeatzeko, Amerikako Estatu Batuetako eta Europako agintariak, urrian, garrantzi handiko neurriak iragarri zituzten, funtsezko erakundeak babesteko, merkatuak egonkortzeko eta konfiantza indartzeko; baina, aurrerantzean ere, egoera ez-egonkorra eta kezagarria izan zen, urte amaieran.

Munduko BPGren hazkundea, eskuratzeko ahalaren parekotasunaren arabera haztatuta, NDFK egindako zenbatespenen arabera, 2 puntu murriztu zen, aurreko urteko hazkundeari zegokionez: %+3,2 eta %+5,2, hurrenez hurren.

Oro har, ekonomia aurreratuek %0,9ko hazkundetxoa izan dute, aurreko urtean %2,7koa izan ondoren; bertan, AEBetako BPGren hazkundea bederatzita hamarrenetan moteldu da (%1,1 eta aurreko urtean %2); euroaren zonakoak %0,9ko hazkundea izan du, aurreko urtean baino 1,8 puntu gutxiago, eta Japoniakoa %0,6 murriztu da. Asiako lau industria-herri berrietan (Korea, Txinako Taiwan probintzia, Singapur eta Hong Kongeko AEB) hazkundea %1,5ekoa izan zen, aurreko urtean %5,7koa izan ondoren.

¹⁰ 2007an, Erreserba Federalak interes-tasak igo ondoren (2003tik 2006ra %letik %5,25era), AEBetan hipoteka-ordainketa ezak hazi eta etxebizitzaren prezioak murrizten hasi ziren. Horrela, zorra ez ordaintzearen eraginezko hipoteka-beteazpenak modu ikusgarrian handitu ziren, eta 2007ko abuztuan subprimeen edo arrisku altuko hipoteken krisia sortu zen; hori aktiboek euskarririko bonoan mundu-merkatu guztietara hedatu zen (Asset Backed), eta, gero, bankuen arteko merkatuetara, kreditu-merkatuetara eta burtsetara.

¹¹ AEBetan, abuztutik aurrera, bi enpresa erdi publiko handiek (Fannie Mae eta Freddie Mac) presioak jasan zituzten, euren kapitalizazio-oinarriari loturiko beldurren eraginez, galera-bolada gero eta handiagoa baitzegoen. Gobernuak etxebizitzarako finantza-erakunde federalaren tutoretzapean jarri zituen bi erakunde horiek, eta euren kapitalizazio eta finantziario egokiak mantentzeko beharrezko finantza-laguntzarako konpromisoa hartu zuten. Ahalegin horiek egin arren, munduko finantza-merkatuek zartada itzela hartu zuten, AEBetako inbertsio-bankuak (Lehman Brothers) porrot egin zuenean. Hurrengo egunetan, merkatuaren presioaren eraginez, beste inbertsio-banku bat (Merrill Lynch & Co.) eta merkataritza-banku garrantzitsu bat batu egin ziren, eta Erreserba Federalak munduko aseguru-enpresarik handiena (American International Group, AIG) eskuratu zuten, ordenarik gabeko porrota ekiditeko. Konfiantza hautsi egin zen eta bankuen arteko merkatuak geldiarazi egin ziren, likidezia-injekzioak egin arren. Gero, Amerikako Estatu Batuetako beste banku batzuk eta Europako zenbait banku itxi egin ziren, nazionalizatu egin zituzten edo bat egin zuten, Estatuaren babesarekin.

¹² Kredituak emateko murriztapen handiagoak.

Merkatu berrietako ekonomiek ere arazo larriak dituzte, eta, zifra agregatuetan, laugarren hiruhilekoan %4 uzkurto ziren. Kaltea finantza- eta merkataritza-bideetatik heldu zen, batik bat ekialdeko Asiako estatuetan, manufakturen esportazioarekiko mendekotasun handia baitute, baita Europako eta Estatu Independenteen Erkidegoko (EIE) ekonomia berrietan ere, horien hazkundea kapital-jario garrantzitsuen mende egon baita. Oro har, BPG erreala %6,1 inguruko tasara hazi zen (aurreko urtean baino 2,2 puntu gutxiago). Txinak eta Indiak %9ko eta %7,3ko hazkundea izan zuten, hurrenez hurren.

Munduko ekonomia azkar hoztearekin batera, inflazio-presioak arin ezabatu ziren. Lehengaien prezioek murriztapen handia izan zuten, urte erdian izandako prezioei zegokienez, eta, horren eraginez, Ekialde ertaineko eta EIEko ekonomietako diru-sarreretan galera garrantzitsua egon zen, baita produktu horiek Amerika Latinoan eta Afrikan esportatzen zituzten beste estatu askotan ere.

Brent upelaren batez besteko prezioa 133,39\$/u-koa izan zen uztailen. Harrezkero, prezioak murrizten hasi ziren, eta finantza-merkatuetako turbulenziek nabarmendu egin zuten behe-rantzko joera; eta, 2008aren amaieran, prezioak 40,26\$/u-koak izan ziren. Horrela, urteko batez besteko prezioa 87,2\$/u-koa izan zen.

Testuinguru sozioekonomiko horren eraginez, banku zentral nagusiek diru-politika hedakorrak aplikatu zituzten, eta, horien ondorioz, interes-tasa ofizialak zerotik gero eta hurbilagoko mailetara heldu ziren.

2008an, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak best aldiz aldatu zuen, behetik, esku-hartze tasa. Horrela, 2007ko abenduan, erreferentziako interes-tasa %4,25ekoa izan zen; 2008ko urtarrilean %3ra jaitsi zuen, martxoan %2,25era, apirilean %2ra, urrian %1era, eta urtea %0,25ekin itxi zuen (2007ko abenduan izandako maila baino 4 puntu gutxiago).

Europako Banku Zentralak bitan igo zuen egun baterako esku-hartze tasa, %4tik (2007ko ekainean finkatuta) 2008ko uztailera %4,25era. Hala eta guztiz ere, 2008ko urritik abendura bitartean, murriztapenak egin zituen, eta horiek guztira oinarritzko 1,75 puntukoak izan ziren. Horrela, erreferentziako interes-tasa %2,5ekoa izan zen urte amaieran, urtarrilean erregistraturiko maila baino 1,5 puntu txikiagoa.

Japoniako Bankuak bitan murriztu zuen bere esku-hartze tasa (urrian eta abenduan). Horrela, erreferentziako interes-tasa (*call money*) %0,1ekoa izan zen urte amaieran, urtarrilean erregistraturiko maila (%0,5) baino ehuneko 4 hamarren txikiagoa.

Moneta-merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek hasieran epe guztietan handitu ziren, eta gero, irailetik urrira bitartean, behe-rantzko joera hasi zuten. Horrela, hilabeterako Euriborrak urtea %4,2an hasi eta %2,99an amaitu zuen; hiru hilabeterako Euriborra urtarileko %4,88tik abenduko %3,29ra igaro zen; eta urtebeterako Euriborra urtarileko %4,5etik abenduko %3,45era igaro zen.

Azkenik, finantza-tentsioek truke- eta burtsa-merkatuetan ere eragina izan zuten.

Dibisa-merkatuan, AEBetako dolarraren truke-tasa errealeak eremua galdu zuen, eta, horrenbestez, euroak balioa irabazi. Hain zuzen ere, Europako dibisak balioa irabazi zuen dolarrari eta libera esterlinari zegokienez, eta yenarekiko balioa galdu zuen. 2007ko abuztutik 2008ko azken asteetara bitarteko aldia, burtsa-merkatuei dagokienez, mundu osoko finantza-merkatuen historiako negatibo, konplexu eta garrantzitsuenetarikoa izan zen.

Europako *Euro Stoxx zabala* indizeak urteko %26ko batez besteko murriztapena izan zuen (418,9tik 309,80ra), aurreko urtean %16,1ko hazkundea izan ondoren. New Yorkeko Burt-sako *Dow-Jones* indizeak urteko %15eko batez besteko murriztapena izan zuen, aurreko urtean %15eko hazkundea izan ostean; eta Tokioko Burt-sako *Nikkei* indizeak %28,9ko batez besteko murriztapena izan zuen, aurreko urtean %4,4ko hazkundea izan ondoren.

IBEX 35 deritzonak %40ko murriztapena izan zuen 2008ko azaroan, bere historia osoko emaitzarik txarrena eta Espainiako Burt-san azken 135 urteetan (adierazle orokorrak ordutik honakoak) izandako emaitzarik txarrena. Urtea %39,4ko murriztapenarekin itxi zuen (15,182,3 puntutik 9.195,8 puntura). Urteko batez besteko murriztapena %21,2koa izan zen (14.894,23 puntutik 11.742,69 puntura).

Euroaren zonari dagokienez, dezelarazioaren jatorria, batik bat, kontsumo pribatuaren eta egoitza inbertsioaren bilakaera da. Hala eta guztiz ere, udaren ostean kanpoko eskaria uzkurdu-seinale nabaria ematen hasi zen, Amerikako Estatu Batuetako ekonomia dinamismoa galtzen eta merkatu sorberrietako jardueraren errotua moteltzen hasi baitzen, merkatu horiek ordura arte nazioarteko finantza-turbulenzietatik kanpo zeudela zirudien arren.

Enpresek, eskarien beherakada arinari aurre egiteko, gero-eratu egin zituzten inbertsio- eta hedapen-planak, eta izakinak murriztu egin zituzten, finantzazioa lortzea zailagoa eta mugatuagoa baitzen; aldi berean, familien aurrezpena gorantz zihuan, enplegu-perspektiben inguruko ziurgabetasun handi-agoaren eraginez.

Lehengaien prezioen gorakada handien ondorioz, familien kontsumo-saskiaren kostuek ere gora egin zuten, eta familiek gastua murriztea erabaki zuten, kontsumoa aurrezpena murriztuta mantendu beharrean. KPIA orokorraren batez besteko inflazioa %3,3koa izan zen, aurreko urtekoa baino 1,2 puntu handiagoa.

Lan-merkatuko perspektiben narriadura ere lagungarria izan zen kontsumitzaileen konfiantza-indizea murrizteko, horren gehienekoa 2007ko erdialdean izan ondoren.

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, jarduera ekonomikoaren dezelerazioa orokorra izan zen, baina industria-adarrean nabarmenagoa izan zen, horrek ekonomiaren zikloekiko sentikortasun handiagoa izatearen ondorioz. Manufaktura-jarduera murriztu egin zen, batik bat ekipamendu-ondasunen arloan, horiek kanpoko eskari ahulagoaren, eskari-zorroa murriztearen eta automobil-sektoreko jarduera nabarmen murriztearen eraginean gelditu baitziren. Eraikuntzak mantendu egin zuten

bere atonia, eta egoitza-sektorearen narriadura iraunkorra izan zen, batez ere estatu batzuetan. Zerbitzuak, berriz, hazi egin ziren, baina 2004an baino eritmo motelagoan, kontsumo pribatuaren ahultasuneko eta industria-jardueraren eritmoa galtzeko inguru batean.

Laneko kostuak garestitzen hasi ziren, eta laneko kostu unitarioek (laneko kostuen aldaketaren eta produktibitatearen aldaketaren arteko zatidura) goranzko joera izan dute 2008an, hazkunde horren eta laneko produktibitatearen hazkundera murriztearen ondorioz, 2008ko hirugarren hiruilekotik aurrera hazkunde hori negatiboa izan baita.

Gobernu orokorraren defizita, euroaren zona osoan, handitu eta BPGren %1,9ra heldu zen; zor publikoak ere gora egin eta BPGren %69,6koa izan zen.

Espainiako ekonomiari dagokionez, INEk emandako datuen arabera, urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan izandako sustapen-galera nabarmendu egin zen 2008ko azken hiruilekoan. Horrela, BPGren hazkunderaren hiruileko profila beheranzkoa da; hain zuzen ere, lehenengo lauhilekoan %2,7ko hazkunde erreala egon da, eta laugarrena %0,7ko murriztapenarekin amaitu da. Horrenbestez, 2008aren amaieran BPGren urteko batez besteko hazkunde %1,2koa izan da, aurreko urtekoa baino 2,5 puntu txikiagoa.

Ekonomiak 2008an izandako hazkunde-eritmoaren dezelerazio horrekin batera, enplegu okupatuaren maila ere murriztu egin da. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu kopuru osoak %0,6ko murriztapena izan zuen, eta, INEek emandako datuek diotenez, guztira 112,1 mila lanpostuko galera garbia egon zen. Soldatepeko kopuruaren murriztapena antzekoa izan zen, %0,6koa. Bestalde, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian jarri duenez, langabezia-tasa 3,09 puntu handiagoa da, %8,31tik %11,4ra igaro baita.

Jarduera agregatuak eta enpleguak izandako aldaketaren ondorioz, lan-faktorearen itxurazko produktibitatea %1,8ko eritmoan hazi zen (aurreko urtean baino puntu bat gehiago); gainera, produktu unitateko lan-kostua (ULK) %3,4ra igo da (aurreko urtean baino bost hamarren gehiago).

Inflazioa, KPIren bidez neurtuta (urteko batez bestekoa), %4,1eraino hazi da (2007an baino 1,3 puntu gehiago). Hala eta guztiz ere, kontsumoko prezioen joera beheranzkoa da, eta abenduko urte batetik besterako datua %1,4koa da (urtarrilean %4,3koa).

EDBrekiko prezio-aldea handitu egin da apur bat, 2007tik 2008ra 0,7 puntutik 0,8 puntura igaro baita. KPIA %4,1 hazi da Espainian, eta euroaren zonan %3,3 (aurreko urtean %2,8 eta %2,1, hurrenez hurren), eta, horrela, Espainia seigarren postuan dago euroaren zonan, inflazioz handiena duten estatuen sailkapenean.

Ekonomiaren finantziazio-beharrizana (defizita), bestalde, ekonomiako sektoreek sorturiko aurrezpena egindako inbertsioari

aurre egiteko nahikoa ez denean eta kanpoko aurrezpena behar denean sortzen da; beharizan hori 2007ko BPGren %9,7 izatetik 2008ko BPGren %9,1 izatera igaro da, eta horrek 99.193 milioi euro adierazten du, aurreko urtean baino 2.216 milioi gutxiago.

Bestalde, dezelerazio ekonomikoaren ondorioak eta garaturiko neurriak nabaritu egin dira diru-sarrera eta gastu publikoetan. Diru-sarrerak murriztu egin dira eta gastuek goranzko joera izan dute, langabeziako prestazioen eta kontsumo publikoaren eraginez. Horren ondorioz, defizit publikoa, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta, 41.840 milioi eurokoa izan da (BPGren %3,8), aurreko urtean 23.272 milioiko superatiba izan ondoren (BPGren %2,2).

INEren Eskualde Kontabilitateko datu ofizialen arabera, 2008an EAE BPGren hazkunde errealearen tasarik handiena izan zuen autonomia-erkidegoa izan zen; hain zuzen ere, %2,1eko hazkunde izan zuen, Estatuko batez bestekoa baino 0,9 puntu handiagoa. Ondoren, Nafarroa (%1,9), Balearrak, Extremadura, Galizia eta Ceuta daude (guztiek %1,8). BPG per capitari dagokionez, lehenengo postuan EAE dago, 32.133 euroekin (batez bestekoa baino %33,8 handiagoa); gero, Madril, 31.110 euroekin (batez bestekoa baino %27 handiagoa), Nafarroa (30.614 euro per capita, eta batez bestekoa baino %27 handiagoa) eta Katalunia (28.095 euro biztanleko).

EUSTATEN HKE deritzenetako lehenengo datu-aurrezpenaren arabera¹³ (2009ko otsailari buruzko datuak), EAEko ekonomiak %2ko urte batetik besterako hazkunde erreala izan du, aurreko urteko %4,1eko hazkunderaren erdia baino txikiagoa. Hiruhileko hazkunderaren profilak lehenengo hiruhilekoko %3,2tik laugarren hiruhilekoko %0,4rako dezelerazioa adierazten du. Hala ere, urteko emaitza Estatuan eta EBn izandako hazkunde baino apur bat handiagoa da.

Eskariaren ikuspegitik, jardueraren murriztapena barruko eskariak behera egitearen ondoriozkoa da; izan ere, %1,9ko hazkunde izan du, 2007ko %4,4ko hazkunde-tasa baino 2,5 puntu txikiagoa, honako hauek indarra galtzearen eraginez: kontsumo pribatua (%1,1eko hazkunde, eta aurreko urtean %3,4koa) eta inbertsioa (%1,4ko hazkunde, eta aurreko urtean %5,5ekoa).

Kanpoko eskariari dagokionez, atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzako datuek agerian jarri dutenez (Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak Aduana Erregistroetan oinarrituz eskainitako datuak), esportazioen balio korranteak %4,3ko hazkunde izan du 2008an, 2007koa baino 10,3 puntu txikiagoa. Bestalde, guztizko inportazioek %6,3ko hazkunde izan zuten (2007an baino 1,9 puntu txikiagoa). Esportazio ez-energetikoen aduana-zerga taldeen arabera azterketa kontuan hartuta, aurreko urtean gertaturikoaren alderantziz, ekipamenduko ondasunen esportazioak %1,5eko murriztapena izan du, garraio

¹³ 2005eko 2. hiruhilekotik, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen eta Urteroko Kontu Ekonomikoen neurketa-metodo berria erabiltzen dute, eta horrek ordeztu egiten du oinarri finkoko bolumeneko edo prezio iraunkorreko balioak, orain arte erabili direnak. Metodologia berriarekin, aldi bakoitzean agregatuen hazkunde dagoeneko ez da oinarri-urteko prezioetara deflatatzen: aldi bakoitzean, agregatuen balioa aurreko urteko prezioetan adierazita dator, eta, hortaz, oinarri mugikorra dago. Oinarri mugikor horren bidez, indize-zenbakien aldi baterako segida lortzen da. "Kateaturiko Bolumenaren Indizea" izeneko.

materialaren esportazioak izandako %-6ko murriztapenaren eraginez, makinen eta aparatuen atalak %3,2ko hazkundea izan baitu (aurreko urtean %+18,1). Inportazio ez-energetikoei dagokionez, metalen eta manufakturen inportazioek, inportazio guztien %25,2 direnek, aurreko urtean ez bezala, %1,8ko murriztapena izan dute; eta ekipamenduko ondasunek, inportazio guztien %20,6 direnek, %0,8ko murriztapena, garraioko materialaren inportazioak izandako beherakadaren ondorioz (%-6,5), aparatuen inportazioak %2,6ko hazkunde izan baitu.

EAEko esportazio ez-energetikoen helmuga-eremu geografikoen arabera, OCDEra doazenak eta, eremu horren barruan, EB-15erakoak garrantzitsuenak dira berriro ere; guztizkoaren %64,7 dira eta %4,8ko hazkundea izan dute. Aipagarrienak Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Baturakoak dira; hain zuzen ere, EAEk EB-15era bideraturiko guztien %74,6 dira. Hala eta guztiz ere, Italiarako (aurreko urteko joerari jarraituz) eta Erresuma Baturako esportazioek behera egin dute.

Eskaintzari dagokionez, murriztapena oso handia izan da eraikuntzan eta industrian. Eraikuntzak urteko %-0,1eko hazkundea izan du, eta industria zero hazkundetik gora itxi ahal izan du urtea, baina bere hiruhileko profila beheranzkoa izan da: lehenengo hiruhilekoan %2,3ko hazkundea eta laugarrenean %2,8ko murriztapena.

Enpleguaren hiruhileko hazkunde-profila beheranzkoa da, 2008ko lehenengo hiruhilekoko %2tik laugarren hiruhilekoko %-0,1era. Urteko batez besteko hazkundea %1,1ekoa izan da, eta horrek 10.671 enpleguko hazkunde garbia adierazten du. Langabezia-tasa, EUSTATEN BJAko datuen arabera, hazi egin da aurreko urtetik, eta %3,3tik %3,8ra igaro da. Lanaren itxurazko produktibitateak 3 hamarren galdu ditu, eta %1,2tik %0,9ra igaro da.

Bestalde, inflazioak gora egin du. BPGren deflatoea %3koa da (aurreko urteko aldi berean baino 5 hamarren gehiago), eta kontsumoko prezioen urteko batez besteko hazkundea %4,1ekoa izan zen (aurreko urtean izandako balio bera).

Amaitzeko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kanpo Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEn kanpoko inbertsioa nabarmen murriztu da 2008an, behin-behineko datuak aintzat hartuta. Horrela, EAerako atzerriko inbertsio gordinaren jarioak, AEDEak alde batera utzita, %82,3ko murriztapena izan du, eta 333,7 milioi eurokoa izan da. Horrela, 2008an, EAE bosgarren postuan zegoen, inbertsio-bolumenean, honako hauen atzetik: Madril (23.802,7 milioi euro jaso, AEDEak kontuan hartu barik); Katalunia (2.124,4 milioi euro); Balearrak (504,8 milioi euro), eta Valentzia (256,2 milioi euro). 2007an, EAE laugarren postuan zegoen inbertsio-bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Valentziaren atzetik; eta 2006an hirugarren postuan, Madrilen eta Kataluniaren ostean. Lurralde-ikuspegitik begiratuta, inbertsioaren azken titularraren egoitza-estatura, kasu guztien %95,7an, EB-15eko estaturen bat zen.

EAEk atzerrian egindako inbertsioa, AEDEak alde batera utzita, 2007 baino lehenagoko mailetara itzuli da, 28.243,4tik 4.483,4 milioi eurora. Aurreko urtean ez bezala, orduan EAE estatuko bi-

garren autonomia-erkidegoa izan baitzen (atzerrian egindako inbertsioaren arloan, Madrilen atzetik), 2008an laugarren postuan gelditu zen, Kantabriaren (5.224,8 milioi)¹⁴, Kataluniaren (5.898,3 milioi) eta Madrilen (9.370,5 milioi) atzetik.

Gure kanpoko inbertsioaren herrialde jasotzaile nagusiak honako hauek izan dira: AEB (EAEk atzerrian egindako inbertsioaren %70,6), Asia eta Ozeania (EAEk atzerrian egindako inbertsioaren %14,8) eta zerga-paradisua (inbertsioaren %14,6). Sektoreka, eta energiaren sektorea alde batera utzita, nagusiak Banka eta finantza-bitartekotza, eta Higiezin Agenteak eta Zerbitzuak dira (hain zuzen ere, "beste enpresa-jarduera batzuk" jarduera).

1.6. Sektore publikoa

Eusko Jaurlaritzak eta Hiru Foru Aldundiek likidaturiko diru-sarrerara guztiek (14.430 milioi euro) %2,3ko murriztapena izan dute 2008an, aurreko urtean %+10,5eko hazkundea izan ondoren, batik bat zeharkako zergen ondoriozko bilketan izandako beherakadaren eraginez (%-11,5); horiek, zuzeneko zergekin batera (%1,1eko murriztapena) administrazio horien diru-sarrera guztien %89 dira. Guztira, EAEko Sektore Publiko osoko diru-sarreraren multzoak %22,4ko murriztapena izan du urte horretan, eta BPGren %20,8 izan da. Jaurlaritza eta Foru Aldundiak bereizita, lehenengoak BPGren %12,5 bildu du, eta foru-erakundeek, berriz, %20,7.

Hitzarturiko Zergen eraginezko bilketari dagokionez (zuzeneko eta zeharkako diru-sarrerak gehi guztizkoaren %90), 2008rako behin-behineko datuek %6,8ko murriztapena adierazten dute, 2007an %9,7ko hazkundea izan ondoren. Behin baino ez da egon 2008koa bezain murriztapen handia, 1994an, eta hori jarduera ekonomikoaren ahultasunaren eta Jaurlaritzak 2007an eta 2008an harturiko neurri eta arauzko aldaketa batzuen eraginaren ondoriozkoa izan da.

Urteko azken hilabeteotako bilakaera oso negatiboa izan da, eta, zeharkako zergen beherakadari (aurreko hilabeteotakoa), zuzeneko zergen bilketaren beherakada gehitu zaio. Horien artean, salbuespena PFEZ da, horren bilketa (%4,5) aurreko urteotakoa baino txikiagoa izan arren. Bestalde, sozietateen gaineko zergak balio negatibo nabariak ditu (%-16,8), bai zergati ekonomikoen eta bai 2007ko zerga-tasa murriztearen eta zatikako ordainketak kalkulatzeko sistema aldatzearen eraginez, besteak beste.

Bestalde, EAEko Sektore Publikoaren gastu osoa 15.013 milioi eurokoa izan da (Toki Erakundeak aintzat hartu barik), eta 2008an %8,1eko hazkundea izan du, aurreko urtean baino 1,4 puntu txikiagoa; horrela, magnitude horrek EAEko BPGn adierazten duen ehuneko sei hamarren hazi eta 2007ko %21,1etik %21,7ra igaro da. Gastuaren hazkundea, urte honetan, askoz ere txikiagoa izan da aldundien artean, bertan %0,3ko gorakada baino ez baitu izan (2007an %+8,5); Eusko Jaurlaritzan, berriz, %8,5eko hazkundea izan du (2007an %+10,5).

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, 2008ko likidazioak agerian jarri duenaren arabera, %8,5eko hazkundea egon da, eta go-

¹⁴ Inbertsio hori desagregatuta ikusten denez, horren %96,8 "65. Banka eta beste finantza-bitartekari batzuk" sektoreari dagokio.

rakada itzelak egon dira honako sail hauetan: Lehendakariordetza (%+39,9); Industria, Merkataritza eta Turismoa (%+14,9); Garraioak eta Herri Lanak (%+13,9), eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak (%+10,9). Gastuaren bolumentan kontuan hartuta, bi sail nagusiak Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa (guztizkoaren %30,2) eta Osasuna (%37,7) dira, eta horiek, hurrenez hurren, %7,7ko eta %10,7ko hazkundera izan dute.

Halaber, EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbiak (Toki Erakundeak izan ezik) gora egin du 2008an, bi urtetan behe-rantz egin ondoren, eta urte amaieran zor bizia 2.730 milioi eurokoa izan da, 2007koa baino %5,6 handiagoa (azken urte horretan %8,1eko murriztapena). Hazkunde hori, batik bat, Foru Aldundietan izan da, urte amaieran euren zor biziak %12,7ko gorakada izan baitu; eta, neurri txikiagoan, Eusko Jaurilaritzan (%+1,4). Guztiarekin ere, zorraren zatirik handiena Eusko Jaurilaritzarena da (guztizkoaren %60,7).

Zorpetze gordinak %600eko hazkunde itzela izan du; izan ere, Eusko Jaurilaritza, bi urtetan zorpetu barik ibili ondoren, berriro ere zorpetu egin da 2008an, eta zorraren zenbatekoa 200 milioi eurokoa izan da. Ia 177 milioi amortizatu dituzte, urteko zor garbia 23 milioi eurokoa izan da. Horren ondorioz, Eusko Jaurilaritzaren zor bizia, urte amaieran (1.657 milioi euro), BPGren %2,4 da (2007an %2,5).

Foru Aldundien zorpetzea, bestalde, 213,5 milioi eurokoa izan da (2007an baino %262 handiagoa), eta 92,7 milioi amortizatu dituzte; horrela, urteko zorpetze garbia 121,7 milioi eurokoa izan da, eta, urte amaieran, euren zor bizia 1.073 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino 121 milioi handiagoa.

EAEko Herri Administrazio guztiak kontuan hartuta (Eusko Jaurilaritza, Aldundiak eta Udalak), azken datu erabilgarriak (2007ari buruzkoa) agerian jarri duenez, 3.110 milioi euroko zorra dago, eta zenbateko hori urte horretako BPG korrantearen %4,7 da (2006an %5,4). Ehuneko hori oso urrun dago 90eko hamarkadan izandakotik, orduan BPGren %12koa izan baitzen. Zor osotik, %52,5 Eusko Jaurilaritzarena da, %26,5 Bizkaiko Foru Aldundiarena, %2,2 Arabako Foru Aldundiarena eta %1,9 Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Gainerako 523,6 milioiak EAEko udaletako finantza-zorri dagozkie, eta EAEko administrazioen zor osoaren %16,8 da.

1.7. Gizarte ekonomia

Kooperatibek edo lan-sozietateek osatzen duten Gizarte Ekonomiako produkzio- edo merkatu-zatiaren dimentsioari dagokionez, datu erabilgarriek agerian jarritakoaren arabera, sozietate horiek EAEko balio erantsiaren %5,3 eta enpleguaren %6,6 adierazten dute, Eusko Jaurilaritzako Gizarte Ekonomiaren Kontuetako datuak kontuan hartuta (2005-2006 biurtekoari buruzko datuak). Gainera, estatistika horrek egindako 2007ko datu-aurreberapena aintzat hartuta, EAEko Gizarte Ekonomiaren barruan 3.167 establezimendu daude guztira, eta horietan 64.719 pertsonak egiten dute lan (establezimendu bakoitzeko batez besteko tamaina 20,4 langilekoa); erreferentziako urtean, gutxi gorabehera, 10.315 milioi euroko fakturazioa lortu zuten (2006koa baino %10,4 handiagoa).

Bestalde, Gizarte Segurantzak, 2008ko amaieran, 1.511 sozietate izan ditu erregistraturik EAEn, alta-egoerako kooperatiben izaera juridikoarekin (aurreko urtean baino 20 gehiago); horietan 55.507 langile daude (2007an baino %0,9 gutxiago), eta horrek kooperatiba bakoitzeko 36,7 langileko batez bestekoa adierazten du; kopuru hori aurreko urtekoaren berbera da, eta Estatukorik handiena (12,6ko batez bestekoa baino askoz handiagoa). Iturri horrek adierazitakoaren arabera, 931 lan-sozietatek kotizatzen zuten (2007an baino 92 gutxiago), eta horietan 12.435 langile zeuden lanean (2007an baino %7,6 gutxiago); sozietate bakoitzean 13,4 langile daude, batez beste, eta kopuru hori ere Estatukoa (5,7 langileko batez bestekoa) baino askoz ere handiagoa da.

Guztira, Gizarte Ekonomiako langileen garrantzia, Lan eta Inmigratio Ministerioak BAIn oinarrituz egindako kalkularen arabera, EAEko enpleguko milako 69,7koa da; garrantzi hori hiru aldiz handiagoa da Estatuko milako 20,8 baino, eta autonomia-erkidego guztien artekorik handiena da. Gainera, EAEko Gizarte Ekonomiak enplegu osoaren zati handia jasotzen du, estatuko Gizarte Ekonomiako enpleguaren %16,4 baita.

Bestalde, Eusko Jaurilaritzaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren Erregistroetan, 2008ko abenduaren 31n, 3.817 kooperatiba eta lan-sozietate zeuden jasota, eta horiek ondoren adierazitakoaren arabera banatzen dira:

a) *Kooperatibak*: 2008an kooperatiba kopuruak 47ko hazkundera izan zuten, eta zifra horrek %2,9ko gorakada adierazten du aurreko urteari dagokionez (azken urte horretan kooperatibek 40ko hazkundera, %2,5). 2008aren amaieran, EAEko kooperatiba kopuru osoa 1.688koa izan zen.

Aurreko urteetako joerari jarraituz, lan elkartuko kooperatibak lehenengo postuan daude kooperatiben arloko hazkundera; horrela, urte honetan 26 gehiago dira (hazkunde osoaren %55,3), eta guztira 1.083 dira, hau da, guztizkoaren %64,2 (2007an %64,4). Bigarren postuan, etxebizitzako kooperatibak daude (%14,1); 12ko hazkundera izan dute, eta guztira 236 dira. Gainerako sozietate motei dagokienez, horien garrantzia nahiko txikiagoa da, eta, aurreko urtearekiko aldateten arloan, horiek txikiagoak dira eta euren artean konpentsatzen dira.

b) *Lan-sozietateak*: 2008aren amaieran inskribaturiko lan-sozietate anonimoen eta mugatuena guztizkoa 2.129koa da (2007an baino 33 gutxiago); mugatuak anonimoak baino 81 gehiago dira (2007an 84). Azken urtean, 18 sozietate mugatu galdu dira (%-1,6), eta lan-sozietate anonimoen kasuan galera 15koa izan da (%-1,4).

Sektoreka, sozietate mugatuena zatirik handienak (%56,6) zerbitzuen sektorean egiten du lan, eta SAMen kasuan, jardueraren eremu nagusia (%51,4) industria da. Bereizketa hori, gainera, EAEko hiru lurraldeetan gertatzen da.

1.8. Lan merkatua

EUSTATen "*Biztanleria Jardueraren arabera Inkesta*" (BJA) inkestako datuek agerian jarri dutenez, EAEn 2008an izandako enplegu-galeraren ondorioz, 16-64 urte bitarteko pertsonentzat

okupazio- edo enplegu-tasa %67koa da. 2007ari dagokionez izandako puntu bateko murriztapen horrek urrundu egiten gaitu European enpleguari buruz ezarritako helburutik: 2010erako %70. Emakumeen enplegu tasa, bestalde, puntu erdi handiagoa da (%59,1), eta, beraz, 0,9 puntu behar dira 55 urtetik gorakoentzat ezarritako %50eko okupazio-helburura heltzeko. EAEko 2008ko tasa %41,7koa izan zen, eta puntu erdi urrundu zen helburutik, 2007ko datuari zegokionez.

Une honetan, EBko Enplegu Helburuei dagokionez, EAE Espainiaren, Luxenburgoren edo Belgikaren aurretik dago, eta Irlandatik edo Portugaletik hurbil. Hala eta guztiz ere, oraindik ere bide luzea dauka egiteko, harik eta adierazlerik onenak dituzten estatuen posizioa heldu arte; adibidez, Danimarka, Holanda edo Suedia (okupazio-tasaren arloan %70etik gora). Batez ere, gizonen enplegua ari da suntsitzen (enplegua duten gizonen ehunekoak %3,7ko murriztapena izan du azken urtean, eta %2,7koa laugarren hiru hilekoan); hala ere, azken hiru hilekoan enplegu-galera emakumeen artean ere hasi da hedatzen, baina oraindik ez oso gogor (%-0,2). Adinaren arabera, uzkurduraren eragina gehienbat gazteenek jasan dute: 25 urtetik beherakoen artean, beherakada handia izan da bi sexuetan (batez beste, %-13,5); 25-34 urte bitartean ere murriztapen handia ikusten da enpleguan (%-5,1), batez ere gizonen artean (%-8,4).

Industria-sektorean itxaropen handiak zeuden jarrita, eraikuntzaren gainbehera konpentsatzeko; hala ere, sektore horrek zuzentze handia izan du bere efektiboetan, 2008ko laugarren hiru hilekoan (%-3,7), eta, horrela, urte batetik besterako bilakaeran %0,7ko murriztapena egon da. Eraikuntza, bestalde, egonkortu egin da, baina azken urtean %9,2ko beherakada izan du. Enplegua galdu duen azken sektorea hirugarrena izan da; baina bertara ere, laugarren hiru hilekoan, galera heldu da (%-0,9), eta urteko bilakaeran %1,4ko murriztapena izan du. Okupazioaren sektore-banaketa aztertzean ikusten denez, urte honetan ere enplegua, lehenengo eta behin, zerbitzu-sektoreak eutsi du, EAEko enplegu osoaren %64,2koa baita (2007an baino 4 hamarren gutxiago).

Enpleguaren beherakadarekin batera, biztanleria aktiboak ere behera egin du (%-0,4), urte askotan gora egin ondoren: joera-aldaketa horrek, agian, aditzaera ematen du lan bila ari den biztanleriaren artean nolabaiteko etsipena zabaltzen ari dela. Hori aktiboan dauden gizonen artean gertatzen da bakarrik, horien kopuruak %2,3ko murriztapena izan baitu; aktiboan dauden emakumeen artean %2,3ko aurrerapenak egon dira, eta, horrela, 2008ko laugarren hiru hilekoan partaidetza orokorraren tasa aurreko hiru hilekoan izandako balioa baino bi hamarren txikiagoa da.

Aldi baterako kontratuei dagokionez, BJAren datuen arabera, murriztapena egon da seigarren urtez jarraian, eta aldi baterako kontratua duen soldatapeko biztanleriaren ehunekoak %20,4koa da, 2007koa baino 6 hamarren txikiagoa. Murriztapena, gainera, bi sexuen artean gertatu da: emakumeen artean

1,1 puntu eta gizonen artean 2 hamarren. Horren ondorioz, sexuen artean halako kontratuetan dagoen aldea, 2008an, murriztu egin da EAEn, eta 4 puntukoa da.

Bestalde, 2008ko uzkurduraren azterketak oraingo kointura ekonomikoa islatzen du; horri dagokionez, EAEko kontratu kopuruak %5,3ko murriztapena izan du (Estatuan %-10,8), aurreko bost urteetan bi lurraldeetan saldoa positiboa izan ondoren. Kontraturiko pertsona kopuruak ere behera egin du, baina beherakada hori txikiagoa izan da (%-4,1). Sektoreka, eraikuntzak kontratuen %14,3 galdu du, industriak %9,2 eta zerbitzu-sektoreak %4,2. Urte batetik besterako saldo positiboa izan duen bakarra nekazaritza izan da, 11.500 kontraturekin (%+13,1).

Guztira, EEZPK 822.866 kontratu erregistratu ditu 2008an (kontratu berriak eta bihurtutakoak kontuan hartuta), 2007an baino 46.396 gutxiago. Horietatik %52,4 emakumeek sinatu dituzte (aurreko urtean %51,2), eta horiek, gainera, kontraturiko pertsona guztien %45,4 dira.

Azkenik, soldatei dagokionez, INEren Soldata Egituraren Inkestak agerian jarri duenez, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia, 2006an, 22.930€-koa zen EAEn, eta %5,5eko hazkundea izan zuen aurreko urtetik. Zenbateko hori Estatuko aldi horreketako batez bestekoa baino %16,5 handiagoa da, eta, autonomia-erkidegoei dagokionez, Madrilak baino ez du gainditzen. Soldata gordina, EAEn, 25.947€koa zen gizonentzat, eta 18.581€koa emakumeentzat; horrenbestez, bi generoen artean %39,6ko aldea dago. Aipatzekoa da autonomia-erkidego ia guztietan alde hori murriztu egin dela azken urtean (Estatuko batez bestekoa 2,2 puntu), eta EAEn, berriz, 5,5eko hazkundea izan duela (2005ean %34,7); izan ere, gizonen soldatak %7,7ko hazkundea izan du, eta emakumeen soldatak %3,3koa baino ez.

Inkestan adierazitako beste emaitza bat hauxe da: langileen %36k, 2006an (azken informazioa urte horri buruzkoa), 7.500 eta 15.000€ bitarteko batez besteko irabazia zuten urtean (edo urteko soldata gordina)¹⁵, eta ehunekoak %40,8koa zen 15.000 eta 30.000 euro bitarteko banaketa-tartean. Halaber, langileen %9,1ek 7.500 euro gordin baino gutxiago irabazten zuten urtean. Ratio hori %14,1ekoa da emakumeen kasuan.

Jarduera-sektore bakoitzeko soldatei dagokionez, handienak industriakoak dira, bai EAEn eta bai Estatuan. Hain zuzen ere, sektoreko urteko batez besteko irabazia 25.733€-koa da EAEn; gizonen batez bestekoa 26.781€-koa da eta emakumeena, berriz, 21.160€-koa. Industriako batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %13,9 handiagoa da, eta bertan ere generoaren arabera aldea daude. Bigarren postuan eraikuntza-sektoreko soldatak daude (EAEko urteko batez bestekoa 21.807€, eta 2005ean baino %1,4 gehiago); horiek, gainera, Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoak dira (hain zuzen ere, %22,2 handiagoak). Azkenik, zerbitzu-sektoreko soldaten batez bestekoa 21.789€-koa da; sektore guztien batez bestekotik beherakoak dira, eta, gainera, hurbilago daude Estatuko balioetatik (%13 handiagoak).

¹⁵ Estaturako datuak dira, eta ez dago Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informaziorik.

Bestalde, langile bakoitzeko batez besteko irabazia, era berean, aldagarria da, kasuan kasuko lan-harremanaren arabera, eta zentzuzkoak dira enpresan antzinasunaren eraginez egoten diren soldata-handitzeak. Hain zuzen ere, urteko soldata gordina, batez beste, %52 handiagoa da kontratu mugagabea dutenentzat, aldi baterako kontratuekin lan egiten dutenentzat baino. Alde hori, gainera, handiagoa da gizonen artean (%60) emakumeen artean baino (%33).

Halaber, 2007ko Lan Kostuaren Inkestak adierazitakoaren arabera, langile bakoitzeko lan-kostua, EAEn, 32.106€-koa da guztira, eta horren %73 (23.425€) "soldatena" da. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %16,2 handiagoa da, eta, Madrileko Erkidegoarekin batera, autonomia-erkidego guztien artean handiena da.

"Soldaten" partida hau etengabe hazi da 2002tik, eta 2007an %4,8ko hazkundea izan du aurreko urteari dagokionez; hazkunde hori %+3,9koa izan da, batez beste, Estatuan. Horren eraginez, bi magnitudeen arteko aldea, beti %16 ingurukoa, 0,9 puntutan hazi da azken urtean.

1.9. Talde zaugarri batzuen bizi balditzak

Lehenengo eta behin, adin txikikoak zuzenbideko subjektuak dira; baina, gainera, euren ezaugarriak kontuan hartuta, biztanleria talde oso zaugarria osatzen dute, eta bermatu beharreko eskubide espezifikoak dituzte. Talde batzuk, gainera, arrisku bereziko egoeran daude, euren eskubideei dagokienez: babesik gabeko haurrak eta nerabeak, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarak, adin txikiko urratzaileak, hezkuntza-beharizan bereziak dituzten ikasleak, etab. Ezin da jakin zenbat adin txikiko dagoen babesik ezari lotutako egoeran, egoera horietariko batzuk ez baitira ezagunak, detektatzen ez direlako; beraz, ezin dira bidezko neurri egokiak hartu.

Osasun eta Gizarte Politika Ministerioaren "Haurtzaroa babes-tearen estatistika" deritzonak agerian jarri duenez, haurrekin eta nerabeekin harremanak dituzten profesionalak egindako kalkuluaren arabera, 1.000 adin txikiko 15 tratu txarren bat edo arduragabekeria fisiko edo psikikoren bat jasaten dute, agian, EAEn, Foru Aldundiek, urtero, 250 adin txikiko ingururen tutoretza hartzen dute euren gain (2004an 244), euren gurasoek ezin baitituzte ondo zaindu; hala eta guztiz ere, informazioa duen azken urteari dagokionez (2006), zifra hori bikoiztu egin da, eta guztira 524 alta dira; horrek 100.000ko 168,2ko tasa adierazten du, eta Estatuko tasa 97,1ekoa da.

Familiei laguntza ematen dieten teknikarien ustez, ez dago profil argi bat euren seme-alabak zaintzeko ezintasuna adierazi duten familiei buruz; baina, oro har, familia horiek zenbait faktore biltzen dituzte, adibidez, langabezia, gizarte-bazterkeria, drogaletasunak edota buruko gaixotasunak, eta, erakundeek haurtzaroaren arloan garaturiko politikaren baldintzatariko bat haurrak guraso biologikoen ondoan egotea bada ere, muturreko kasu batzuetan hori ez da bideragarria.

Oro har, halako egoerak udaletako Gizarte Zerbitzuek detektatzen dituzte, kasurik gehienetan ikastetxeek, auzotarrek edo udaltzaingoez emandako informazioari esker. Gero, Administrazioak tutoretza hori bere gain hartzen duenean, adin txikikoak gehienetan harrera motaren bat izaten du, bai egoitzakoa edo bai harrera-familiakoa. Ministerioak egindako kalkuluaren arabera, 2006an, 1.528 adin txikiko zeuden, batez beste, halako egoeran Euskal Autonomia Erkidegoan (855 egoitzetan eta 673 familietan); kopuru hori babespeko 1.171 adin txikikora murriztu zen, abenduaren 31n, eta horrek 100.000ko 375,9ko tasa adierazten du (2005ean 299,1).

Bestalde, EUROSTATEk egindako kalkulua kontuan hartuta, Europar Batasunean ezintasuna duten 50 milioi pertsona baino gehiago bizi dira¹⁶, eta horietariko asko guztiz baztertuta daude gizartearen erabateko partaidetza eta integrazioa izatetik. Pertsona horiek, gaixotasunen, arazoren, traumatismoren edo lesioren baten eraginez, edo beste zenbait arrazoiren ondorioz (esaterako, zahartzea edo jaiotzatiko anomalia batzuk), mugak dituzte gainerako pertsonen erraz egiten dituzten lanak edo jarduerak egiteko. Orainsu egindako azterketek agerian jarri dutenez, ezintasuna duten pertsonak neurritz kanpo salbuetsita daude lan-merkatutik, eta ezintasuna duten emakumeen egoera gizonena baino txarragoa da. Gainera, ezintasun psikikoak edo ikaskuntza-arazoak dituzten pertsonen oraindik ere aukera gutxiago dute lanpostua lortzeko, ezindu fisikoek baino.

INEren "Ezintasunari, Autonomiari eta Mendekotasun-egoerari buruzko Inkesta" (EAMI) deritzonak agerian jarritakoaren arabera, 2008an EAEko etxeetan bizi eta ezintasunen bat zuen pertsona kopurua 169.400koa zen, hau da, biztanleria osoaren %8,4koa, behin-behineko datuak aintzat hartuta (Estatuko batez bestekoa %9 da). Sexuaren arabera, EAEko 101.200 emakume diote ezintasuna dutela, eta, gizonen dagokienez, zifra hori 68.200koa da. Beraz, emakumeen/gizonen ratioa 60/40 da, Estatukoaren antzekoa. Gainera, emakumeen artean ezintasun-tasak gizonenak baino handiagoak dira, 45 urtetik gorako adinetan; hortik behera, berriz, gizonen tasa emakumeena baino handiagoa da.

Halaber, 2008ko EAMik aditzera ematen du EAEko familien %18,5ean ezintasuna duen pertsonaren bat bizi dela gutxienez (Estatuko batez bestekoa %20). Gainera, kasu guztien %18,4an ezintasuna duen pertsona bakarrik bizi da. Hala ere, kasurik ohikoenetan, familiek bi kide dituzte, eta horien artean ezindu bat.

Halako familietan bizi diren 6 urteko eta gehiagoko pertsonen ezintasun talde nagusiak mugikortasunekoak (biztanleriaren %6an dute eragina, eta ezintasuna duen biztanleriaren %70ean), etxeko bizitakoak (%4,9) eta zaintza pertsonalekoak (%4,3) dira. Izan ere, ezintasuna duten pertsonen erdiek hiru zergati horietarikoren baten ondorioz dituzte mugatuta euren jarduerak. 80 urteko eta gehiagoko talderako, hiru ezintasun talde nagusiok 10 ezindutik 7tan dute eragina.

¹⁶ 2002ko datuen arabera, 16 eta 64 urte bitarteko 44,6 milioi pertsonak, hau da, seitik batek (%15,7), diote iraupen luzeko ezintasunen bat edo osasun-arazoren bat dutela. 64 urtetik gorakoak gehituta, 50 milioi pertsona baino gehiago dira. 91/2007ko CEEren arakatzeko irizpenei, "Aukeraberdintasuna ezintasuna duten pertsonentzat".

Gainera, ezintasuna duten sei urteko edo gehiagoko pertsona guztien %74k esan dute zailtasunak dituztela eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko¹⁷: erdiek ezin dute jarduerari horietarikoren bat egin laguntzarik izan ezean. Sexuaren arabera, ezintasuna duten emakumeen %80,3k murriztapen horietarikoren bat dauka, eta gizonen artean ehuneko %64,6 da. Mugak handiagoak dira adinean gora egin ahala; horrela, 6-44 urtekoen artean hamarretik seik zailtasunen bat dute halako lanak egiteko, eta 80 urteko eta gehiagoko taldean, berriz, proportzioa 10etik 8,6koa da. Bestalde, Inkestak kalkulurikoaren arabera, zailtasunak dituzten pertsona horien %80,5ek laguntzaren bat jasotzen dute, eta horrek euren muga larritasuna nabarmen murrizteko aukera ematen du. Laneratzeari dagokionez, Eusko Jauriaritzako Enplegu Sailak 2006an egindako "Ezintasuna duten pertsonen enpleguarekiko duten egoera erreala" izeneko ikerketak agerian jarri duenez, ezintasuna duen biztanleriaren jarduerata-osa oso txikia da EAEn, batez ere emakumeen artean: pertsona horien erdiak baino gutxiagok egiten du lan, edo horretarako prest dago; ratio hori 22 puntu baxuagoa da urte horretan biztanleria osoak izandakoa baino. Gainera, urte horretan, 17.613 ezindu zeuden lanean EAEn, eta horrek %29,2ko ratioa adierazten du; EAEko biztanleria osoaren ratioa, berriz, %52,7koa izan zen.

1.10. Osasuna eta osasun sistema

EAEko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, Eusko Jauriaritzako Osasun Sailaren gastu-partida 3.240,7 milioi eurokoa izan zen 2008an, eta horrek %10,7ko hazkundea adierazten du aurreko urtetik. Gastu hori BPGren %4,68 da. Horrela, Osasun Saila lehenengo postuan dago oraindik, baliabideen ehunekoari dagokionez, guztizkoaren %34,8arekin; bertan, programa nagusia Osakidetzarako transferentzia da.

2007ko Memoria Sozioekonomikoan esan dugunez, EUSTATEN Osasun Kontuko datuak kontuan hartuta, EAEn osasunean egindako gastua 4.290 milioi eurokoa izan zen 2006an, eta horrek %7,9ko hazkundea adierazten du aurreko urtetik. Hori BPGren %6,95 da, merkatuko prezioetan. Gastu horren finantziarioa aintzat hartuz, gastaturiko 100 euroko 72,2 osasun publikoak finantzatu zituen.

Osakidetzaen aurrekontu-likidazioak, EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz egindakoak, agerian jartzen du erakunde horrek 2007an egindako gastua 2.160,9 milioi eurokoa izan dela (2006ari dagokionez, %13), eta hori BPGren %3,28 da. Hazkunde hori ustiapen-gastuek (langileria, hornidurak eta beste gastu batzuk) eta inbertsioek gora egitearen ondoriozkoa da. EAEko osasunaren panoramari dagokionez:

- Aipatzekoa da tumoreak zirkulazio-sistemako gaixotasunak baino ugariagoak izatea, hilkortasunaren eragile nagusitzat.
- Sasoi bako bako lehenagoko hilkortasunaren zergati nagusiei dagokionez, Eusko Jauriaritzako Osasun Sailak emandako

datuen arabera, emakumeen kasuan zergati nagusiak honako hauek dira, garrantziaren arabera ordenatuta: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoak; norbere burua hiltzea eta norbere buruari lesioak eragitea, trafiko istripuak (motorreko ibilgailuekin), txarto zehazturiko lekuetako tumore gaiztoak, bigarren mailakoak, burmuineko eta bihotzeko gaixotasunak eta kardiopatia iskemikoak. Gizonen kasuan: trakeako, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; trafiko istripuak motorreko ibilgailuekin; norbere burua hiltzea eta norbere buruari lesioak eragitea; zirrrosia eta gibebeko gaixotasunak; eta burmuineko eta bihotzeko gaixotasunak eta HIESA.

- Ospitaleko erikortasunaren arloan, jendeak uste du sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG) gaituta daudela herri garatuetan; hala eta guztiz ere, gaur egun Osasun Publikoko arazo gero eta handiagoa osatzen dute. EAEn laguntzako episodio berrien kopurua, STGko zerbitzu espezializatuetan, %166ko hazkundea izan du azken 12 urteotan. Hazkunde hori bat dator gure inguruko herrietan gertatu denarekin; adibidez, Erresuma Batuan STGko urteroko kasu berriek, STGko kliniketan, %268ko hazkundea izan dute 1996tik 2005era.

- *Euskadiko 2007ko Osasun Inkestako* datuen arabera, lodi-tasunak gora egin du azken 10 urteotan, bai gizonen eta bai emakumeen artean. Horrela, adinaren arabera estandarizaturiko tasetan, gizonen %13k eta emakumeen %12k loditasuna dute 2007an.

Halaber, elkarriketatuturiko pertsona guztien %53 geldikorrak dira, %22,1 nahiko aktiboak, %14,8 aktiboak eta %10,1 oso aktiboak. Bilakaera-datuetatik ondorioztatzen denez, *geldikortasunak* behera egin du, bai gizonen eta bai emakumeen artean (adin talde guztietan); 2007an, euren astialdian geldikorrak ziren emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa zen (%57,2 eta %48,5, hurrenez hurren).

Ospitalekoa eta ospitaletik kanpokoa izan daitekeen laguntza-jarduerari dagokionez, biak publikoak edo pribatuak, baliabideen eta langileen adierazleei buruz argitaraturiko azken datuek hauxe jarri dute agerian:

- EAEn, EB-27ko estaturik gehienetan bezala, 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopurua Europako beste estatu batzuetakoa baino handiagoa da (EUROSTATen datuak).
- EUROSTATen datuen arabera, ospitaleko ohe kopuruak, bai EBn eta bai EAEn, beheranzko joera dauka, eta, egindako kalkulua kontuan hartuta, murriztapen horren proportzio handia egonaldia laburtzearen eraginezkoa izan da. Hain zuzen ere, EUROSTATen datuek diotenez, Estatuan, 2005etik 2006ra, 100.000 biztanleko ohe kopurua 338,9tik 334,1era igaro da; eta EAEn 385,9tik 380,9ra. EUROSTATen datuek agerian jarri dutenez, 2004tik 2005era ohe kopuruak gora egin du, eta, gero, beheranzko joera hasi da.
- 100.000 biztanleko dentista kopuruak, salbuespen batzuk kenduta, gora egin du. EAEn adierazlea Estatuan baino txi-

¹⁷ Inkestak Eguneroko Bizitzako Oinarritzko jarduerari hauek hartzen ditu kontuan: norbere burua garbitzea eta bakoitzaren higieneko beste jarduerak batzuk, jantzea eta eranstea, jatea eta edatea, norbere osasuna zaintzea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea, otortuak prestatzea, etxeko lanak egitea, etxe barruan eta kanpoan ibiltzea, eta lan errazak egitea, batez ere.

kiagoa da (2007an 48,6 eta 53,7, hurrenez hurren), baita EBko estatutik gehienetan baino txikiagoa ere (EUROSTATen datuak).

- 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruak hazkunde iraunkorra adierazten du azken urteotan. Datuak estatutokoak baino handiagoak dira (2007an 1.190 eta 855,4, hurrenez hurren), eta EBko estatutetakoak baino handiagoak ere bai (EUROSTATen datuak).

Ospitaletik kanpoko jarduera publikoari dagokionez, EUSTATEN datuen arabera, aldagaiak orain dela urte batzuk hasitako goranzko joera mantendu dute.

- Ospitaletik kanpoko 467 zentro publikoetan, 2007an, 13,8 milioi kontsulta egin ziren, aurreko urtean baino %3,2 gehiago. Hazkunde hori enpleguak izandakoa baino txikiagoa da (2006tik 2007ra %1,2).
- Sendagile kopuruaren hazkundearen eraginez, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak behera egin du medikuntza orokorrean (1.413tik 1.397 biztanlera, sendagile bakoitzeko), baina ez pediatrian (834tik 844ra). Hau da, errepikatu egin da aurreko urtean pediatrian ikusitako joera, pediatria bakoitzeko biztanle kopurua 814tik 834ra igaro baitzen.
- 2007an sendagile bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua 4.974koa izan zen; medikuntza orokorreko sendagileek gaintu egin dute kopuru hori (6.345 kontsulta), baita pediatrek ere (5.456); gainerako sendagileen kasuan, berriz, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoak (4.287), traumatologoak (3.939), endokrinok (3.760) eta oftalmologoak (3.469).
- Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua 6,4koa izan zen, eta horrek gorakadaxoa adierazten du, aurreko urteko kopuruari dagokionez; hazkunde hori medikuntza orokorreko kontsulta kopuruak izandako hazkundearen eraginezkoa da (6,4tik 6,5era), pediatrian kopurua egonkor mantendu baita (14 urtetik beherakoak, batez beste, 6,5 aldiz joan dira osasun-zentrotan).

Ospitaleko jarduerari dagokionez (publikoa eta pribatua), EUSTATEN datuek hauxe jarri dute agerian:

- Baliabideen arloan, 2006tik 2007ra bitartean, ospitale kopuruak unitate bat galdu du, sare pribatuan 27tik 26ra igaro baitira (18 publiko eta 26 pribatu). Sektore publikoan, gainerako aldagai guztiek, inkubagailu eta erditze-gela kopuruak izan ezik (kopurua egonkor mantendu), gora egin dute. Bestalde, sektore pribatuak, ospitale kopuruak ez ezik, ohe, erditze-gela eta kanpoko kontsulta-gela kopuruak ere behera egin du.
- Laguntza-jarduerari dagokionez, horren jarduerak gora egin dute, larrialdiko interbentzio kirurgikoen (%-0,1) eta zesarearen bidezko erditzeen (%-0,4) kasuan izan ezik, sare publikoan izandako beherakaden eraginez, sare pribatuak ez baititu horiek xurgatu. Bestalde, erresonantzia magnetikoak murriztu egin dira sare publikoan, baina sare pribatuan izandako hazkundearekin konpentsatu dira. Eta erditze anitzek behera egin dute sare pribatuan; baina, aldiz, sare publikoan gora egin dute, eta horrela, oro har, %13,3ko hazkundera izan dute.
- 100 oheko sendagile kopurua gero eta handiagoa da, bai ospitale publikoetan eta bai pribatuetan; eta 2007an 100 ohe-

ko 49 sendagile egon dira publikoetan, eta 23,6 pribatuetan. 100 oheko erizain kopuruak gora egin du bi sareetan.

- 1.000 biztanleko ohe kopurua aurreko urteetako batez bestekoa mantendu da (3,8).

Osakidetzako ospitaleko eta ospitaletik kanpoko jarduerari dagokionez:

- Batez besteko okupazio orokorraren indizeak, aurreko urtean izandako koiuntura-hazkundearen ostean, 2008an behera egin du berriro. Hain zuzen ere, ehuneko 2,6 puntu, 2007ko indizeari dagokionez, eta %81,8koa da, aurreko urtean %84,4koa izan ondoren. %100 gaintuta eta, beraz, batez bestekoaren gainetik honako espezialitate hauek daude: digestio-aparatua (%112,7 eta 2007an baino handiagoa), barruko medikuntza (%108,4, eta aurreko urtean baino 10,2 puntu txikiagoa) eta pneumologia (%108,3, eta 2007an baino 37,6 puntu gutxiago). %100etik behera baina batez bestekotik gora daudenak: urologia (%82,5), neurologia (%82,6), errehabilitazioa eta zaintza aringarriak (biak %91,2), hematologia (%92,1) eta kardiologia (%93,4).
- Batez besteko egonaldia, egunetan, berriro ere murriztu egin da, eta 6,3tik 5,1era igaro da. Batez bestekoa baino askoz ere gorago daude errehabilitazioa (30,6), zaintza aringarriak (17,8), psikiatria (13,9), hematologia (10,4) eta barruko medikuntza (8,9); hala ere, aurreko urtetik beherakada ikusi da guztietan.
- Itxarote-zerrendetan dauden gaixoen eta berandutze-aldien zifrek agerian jarri dutenez:
- Kanpoko kontsultetan, itxarote-zerrendetan dagoen gaixo kopuru osoak, 2006tik 2007ra gora egin ondoren, 2008an behera egin du (88.750etik 72.507ra). 2007ko hazkundera espezialitate ia guztietan egon zen, anesthesiologian (%-6,8), oftalmologian (%-6,1), urologian (%-3,1) eta alergologian (%-0,4) izan ezik. Eta, 2008an, murriztapena espezialitate ia guztietan egon da, anesthesiologian (%+5,3) eta digestio-aparatuan (%+3,6) izan ezik. Beherakadarik handienak honako hauek izan dituzte: alergologia (%-45,4), oftalmologia (%-36,5), neurologia (%-28,8), otorrinolaringologia-ORL (%-24,7) eta kirurgia orokorra (%-24,3).
- Berandutze-aldiari dagokionez, 2007tik 2008ra, 3 hilabetetik gorako aldia itxaroten duen biztanleria-ehunekoa hazi egin da, eta %0,6tik %2,4ra igaro da. 1-3 hilabete itxaroten dutenen ratioak behera egin du, eta 19tik %17,1era igaro da. Bestalde, hilabetetik behera itxaroten dutenen ratioa %80 inguruan mantendu da.
- Itxarote kirurgikoari dagokionez, 2007tik 2008ra gaixo kopuruak %7,6ko murriztapena izan du, eta 16.086 pertsonatik 14.886 pertsonara igaro da; berandutze-egun kopurua 53 egunetik 51,9ra jaitsi da. Horren ondorioz, interbentziorako 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duen gaixo kopuruak behera egin du berriro, eta %15etik %13,8ra igaro da.

1.11. Hirigintza eta etxebizitza

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren "EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaint-

zari buruzko Inkesta' deritzonak adierazitakoaren arabera, azken urtean etxebizitza-eskaintza osoak (salmenta gehi alokairua) %21,4ko hazkundea izan du (aurreko urtean %+22,2), eta laugarren hiru hilekoan 26.766 unitate izan dira. Horrela, mantendu egin da 2004an hasitako goranzko joera, honako ezaugarri hauekin:

1. Salmentarako eraikuntza berriko etxebizitza askeen eskaintzak %14,3ko hazkundea izan du 2007ari dagokionez, eta etxebizitza horien batez besteko prezioa, 2008ko laugarren hiru hilekoan, 4.054 €/m²-koa izan da (2007ko batez bestekoa baino %1,4 gutxiago). Lurralde-azterketak batez besteko askoz ere baxuagoa adierazten du Araban (3.254 €/m²); Bizkaian eta Gipuzkoan batez besteko hori 4.234 €/m² eta 4.243 €/m² da, hurrenez hurren.
2. BOEen batez besteko salmenta-prezioa 1.372 €/m² da, aurreko urtekoa baino %3,7 handiagoa. Gogoratu behar da, 2007ko datuen arabera, lau etxebizitzatik ia hiruk (%72) 90.000 eta 120.000 euro bitarteko prezioa zutela. Gainerako kasuan, 90.000€-tik beherakoak %17 ziren, eta gainerako %11, berriz, 120.000€-tik gorakoak ziren, baina 150.000 €/etxebizitzara heldu barik.
3. Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Sailaren datuen bidez detektaturikoaren arabera, bigarren eskuko 13.395 etxebizitza eskaintzen dira guztira, aurreko urtean baino %26 gehiago¹⁸. Horien batez besteko prezioa 4.199 €/m² da, aurreko urtekoa baino %3,6 baxuagoa. E-mailza hori aurreko urtean batez besteko prezioaren bilakaeran egon den moderazioaren eraginezkoa da, urteko hazkundea hamar urteotan izandakorik txikiena izan baitzen¹⁹.
4. Babesturiko etxebizitzaren merkatuak, 2008ko laugarren hiru hilekoan, alokairuko 2.396 unitate izan ditu, aurreko urtean baino %58,4 gehiago. Horien batez besteko errenta hileko 194,1€-koa zen 2007an (Memoria ixteko unean ez daukagu 2008ko datua). BOE modalitatean prezioa hileko 325,2 €-koa izan zen, eta etxebizitza sozialen kasuan, berriz, batez besteko prezioa 131,7 eurokoa izan da.
5. 2008ko laugarren hiru hilekoan alokairuan eskainitako etxebizitza askeen lagina 603 unitatekoa da, aurreko urtean baino %24,3 handiagoa. Lurralde-banaketari dagokionez, Bizkaian %41 daude eta Araban %38; gainerako %21 Gipuzkoan daude. Batez beste, norbanakoenak izan eta alokairuan eskaintzen diren etxebizitzaren batez besteko errenta (higiezinen jabetzako agenteen bidez eskaintzen diren etxebizitzak) hileko 968,9€-koa izan da 2008an, aurreko urtean baino %8,9 handiagoa.
6. Bestalde, INE "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten hasi da 2008an: hiru hileko adierazle horrek 2007ko oinarria dauka, eta bere helburua prezio askeko etxebizitza berrien eta bigarren eskuko salmenta-prezioen mailaren aldi baterako bilakaera neurtzea da. Europar Batasuneko estatistika adostuen sorkuntzaren arloan planteaturiko informazio-

eskariaren eraginezkoa da EPI; beraz, estatukideen arteko konparazio-elementua ere izan nahi du, etxebizitza askearen prezioen bilakaerari dagokionez.

2008ko emaitzek agerian jarri dutenez, Estatuan etxebizitzaren batez besteko prezioek erortze orokorra eta gero eta handiagoa izan dute: baina badirudi EAE suspertu egin dela laugarren hiru hilekoan (hirugarren hiru hilekoan %4,3ko murriztapena izan ondoren); hala ere, merkatuaren egoera eta adierazlearen gaztetasuna kontuan hartuta, hori 2009ko bilakaerarekin konparatu beharko da. Urteko aldatetari dagokionez, EAE %8ko murriztapenarekin amaitu du 2008, eta Estatu batez bestekoa %5,4 da. Autonomia-erkidegoen arabera, urtean metaturiko prezioen erortzerik handienak Katalunian (%-10,1) eta Madrilen (%-8,1) izan dira. Hirugarren postuan EAE dago. Gainera, aditzera eman behar da, prezioak erkidego guztietan murriztu arren, Galizian murriztapen oso txikia izan dutela (%0,4).

Gainera, EAEn hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2007an %14,7ko hazkundea izan ondoren, 2008an %19,7ko murriztapena izan du. Guztira, 13.787 etxebizitza hasi dira, eta horietatik 8.147 askeak (%40,9), 4.793 babes ofizialekoak (%53) eta 847 sozialak dira (%6,1).

Halaber, 2006an Eusko Jaurilaritzaren 2006-2009ko Etxebizitza Plana abiatu ondoren, babeseko etxebizitzaren merkatuan sortu diren irudi berrien ondorioz, 2006an 125 zuzkidura-ostatu egin dira (guztiak Gipuzkoan), eta 2007an 361 baino gehiago. Gainera, 2007an alokairurako 100 udal-etxebizitza tasatu eraikitzen hasi ziren, baita 957 baino gehiago ere, jabetzan adjudikatzeke.

Bestalde, EAEn 2008an amaituriko etxebizitza kopuruak 14.083 unitate ditu, aurreko urtean baino %8,7 gutxiago, amaituriko etxebizitza askeen kopuruak izandako beherakadaren eraginez (%-15,8), eta horiek konpentsatu egiten dute babeseko etxebizitzaren segmentuan izandako hazkundea: 2008an babeseko 5.000 etxebizitza amaitu ziren (%+7,9); horietatik %91,8 babes ofizialekoak ziren, eta gainerako %9,2 etxebizitza sozialak. 2008ko datuek, azkenik, susperraldia adierazten dute, babeseko etxebizitzak EAeko eraikuntza-jardueran duen partaidetzaren arloan, aurreko urteari dagokionez: amaituriko etxebizitzaren artean, babeseko etxebizitzaren garrantzia 30etik 35,5era igaro da.

1.12. Pobretasuna eta gizarte bazterkeria

INEren "*Bizi Baldintzen Inkesta*" deritzonak 2007rako eman dako emaitzek agerian jarri dutenez, lehenengo eta behin, 2006an EAeko familia bakoitzeko batez besteko errenta 27.134 eurokoa zen (2005ean baino %2,8 handiagoa); Estatu batez bestekoa baino %10,6 handiagoa zen, eta azken hori 24.525 eurokoa zen. Balio hori Nafarroak (familiako batez besteko diru-sarrerarik handiena duen erkidegoa, 31.480 eurorekin) eta Madrilek baino ez dute gainditzen.

¹⁸ Lagin-datuak izan arren, informazio honek erabilitako etxebizitza-stockaren handitze nabarmena adierazten du, eta egoera hori ohikoa da higiezinen merkatuaren jardueran baxuko uneetan.

¹⁹ Eusko Jaurilaritzak ohartarazi duenez, gainera, estatistika honetarako jakinarazitako prezioak eskaintzaileek eskaturikoak dira, eta, oro har, murriztu egiten dira, salerosketa egiteko unean.

Inkesta horren arabera, pertsona bakoitzeko batez besteko errenta urteko 10.493 eurokoa da EAEn (aurreko urtean baino %5 handiagoa), eta kasu honetan ere aurretik dauden baka-
rrak Nafarroa eta Madril dira: errenta hori Estatuko batez beste-
koa baino %17,7 handiagoa da. Saillapeneko beste muturrean,
bi aldagaiei dagokionez eta aurreko urteetan bezala, Extrema-
dura, Gaztela-Mantxa, Kanariak eta Andaluzia daude.

Bestalde, Inkestak “*pobretasunaren atalasea*” deritzonaren
azpitik dagoen pertsona-ehunekoa kalkulatu du (diru-sarreraren
banaketaren batez bestekoaren %40). Estatuko batez beste-
koari dagokionez, ehuneko hori ia ez da aldatu eragiketa hon-
en lau urteko antzinasunean, eta 2006an %19,7koa izan
da. EAE, bestalde, Estatuko batez bestekoa baino askoz ere be-
herago dago; baina azken aldian hazkundea izan du: 2003an
%11,2 izan zuen, 2004an %9,5era murriztu, 2005ean %9,8ra
handitu eta 2006an %11,6ra hazi zen.

Familien bizi-baldintzak eta errenta maila adierazten dituen
beste adierazle bat, bestalde, etxerako ekipamendu jakina es-
kuratu ezin duen familia-ehunekoa da. Horrela, esate baterako,
EAEko familien %13,9k diotenez, ezin du automobilik eduki, eta
ehuneko horrek 3,7ko murriztapena izan du azken urtean. Tasa
hori %18,9koa da Estatuan; Andaluzian %26koa eta Ceutan eta
Melillan %43,2koa (2006an baino 6,7 puntu gehiago). Halaber,
EAEko familien %7,1ek diotenez, ezin dute ordenagailurik eduki
(aurreko urtean %11,6), eta ratio hori %18,3koa da Estatuan.

Era berean, Inkestak beste gastu batzuk egin ezin dituen
familia-ehunekoa ere adierazten du: %19,2k ezin du urtean
astebeteko oporraldirik izan (Estatuan %35,8), eta %19,4k ez
dauka ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik (Estatuan
%30,5, eta guraso bakarreko familien kasuan %49,7). Halaber,
Estatuko familien %2,3k ezin du okelarik, oilaskorik edo arra-
inik jan egun bitik behin gutxienez (EAEko familien kasuan
%0,5), eta %7,9k ezin du etxebizitza tenperatura egokian
mantendu (EAEn %3,9).

Bizi Baldintzen Inkestan, azkenik, pobretasunaren deskri-
pzio-azterketa egiten da, pobretasun hori diru-pobretasun
erlatibotzat hartuta; biztanleak pobreak direnetan eta ez
direnetan saillatzeko erabilitako metodoa, berriz, diru-
pobretasun erlatiboaren lerroa eraikitzean oinarritzen da.
Erabilitako pobretasun-lerroa familiako kontsumo-unitateko
diru-sarrera garbietan oinarritzen da; hau da, familiaren
diru-sarrera garbiak (errenta erabilgarria) zati kontsumoko
unitate kopurua. Horretan oinarrituz, pobretasun-lerroa edo
pobretasun-atalasea pertsonen adjudikatutako kontsumo-
unitateko²⁰ diru-sarreraren banaketaren batez bestekoaren
%60an finkatzen da. Horrela, atalase hori baino kontsumo-
unitateko diru-sarrera txikiagoak dituen edozein pertsona
“pobrea” da (horrenbestez, familia bereko kide guztiak

modu berean saillatuko dira, pobreak izango dira edo ez).
Atalase hori, Europar Batasunari dagokionez, estatukide
bakoitzerako kalkulatu da²¹, eta, beraz, estatu bakoitzaren
ikuspegi erlatiboa lortzeko aukera ematen du, estatuen ar-
teko konparaziorik egin ezin den arren.

Hortik abiatuz, Inkestak pobretasunaren atalasearen azpitik
dauden pertsonak kalkulatu ditu. Estatuko batez besteko-
rako, ehuneko ia aldaketa barik mantendu da estatistika-
eragiketa honen lau urteetan, eta 2006an %19,7ko tasa izan
du, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. EAEn, “po-
bretzat” katalogaturiko pertsonen tasa %11,6 da, eta azken
urtean 1,8ko hazkundea izan du.

1.13. Gizarte babesa

2008an, langabeziako prestazio-onuradunen batez besteko
kopurua 51.900 pertsonakoa izan zen EAEn (aurreko urtean
baino %15,1 gehiago). Onuradun kopuruak, horrela, zortziga-
rren urtez jarraian egin du gora, 90eko hamarkadan murriz-
tapen handia izan ondoren. Estatuan, onuradunen taldeak
tasa handiagoko hazkundea izan du: %27,7, eta, horrela, EAEk
onuradun kopuru osoan duen partaidetza murriztu egin da;
hain zuzen ere, %3,2tik 2,9ra igaro da.

Onuradunen hileroko bilakaera aztertuta ikusten denez, irai-
lean beherakada handia egon da, eta urteko azken hilabete-
tan, berriz, gorakada iraunkorra izan dugu, harik eta abenduko
64.300 jasotzaileetara iritsi arte (aurreko hilabetean baino %7,1
gehiago eta 2007ko abenduan baino %41,6 gehiago). Hilabete
horretan, jasotzaileen %73,3k kotizaziopeko prestazioak jasotzen
zitzuten, %25,3k sorospenak eta gainerako %14k Gizarteratzeko
eta Laneratzeko Errenta Aktiboa. Horrela, estaldura-tasa (EEZPn
erregistraturiko langabetuak kontuan hartuta) EAEko langabetu
kopuru osoaren (2007ko abenduan %79,76) %63,9koa zen, eta
Estatuko batez bestekoa, berriz, %74,09koa.

Datu horiek aintzat hartuz, esan daiteke 2008ko abenduan
EAEko 100 langabetutik 36k ez zutela prestaziorik jasotzen,
eta jasotzen zuten 64etatik 47k kotizaziopeko prestazioa, 16k
sorospena eta 1k Gizarteratzeko eta Laneratzeko Errenta Akti-
boa jasotzen zutela.

Halaber, 2008an 490.581 pertsonak Gizarte Segurantzaren
sistemako pentsioak jaso zituzte, eta zifra horrek %1,5eko ha-
zkundea adierazten du 2007tik (aurreko urtean erregistratu-
riko hazkunde bera). Azken urteotan gertatu denez, hazkunde
hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen taldeak izandako bi-
lakaeraren eraginezkoa da (%+1,6), gainerako modalitateetan,
intentsitate desberdinekin bada ere, jasotzaileen taldeak mu-
rrizteko joera baitauka. EAEn Gizarte Segurantzako prestazio
ekonomikoak jasotzen dituztenen ehunekoa 2007ko %22,7tik
2008ko %22,9ra igaro da.

²⁰ Kontsumo-unitateko diru-sarrera edo diru-sarrera baliokidea familiaren diru-sarrera osoa “kontsumo-unitateen” kopuruarekin zatituta lortzen da; hala ere, kontzeptu hori ez da per capita diru-sarreraren berdina, familia bateko kide guztiei ez baitaie diru-sarrera bera esleitzen, beste zenbait faktore ere aintzat hartzen baitira, adibidez, eskalako ekonomiak. Hau da, familiako bateko kide kopurua handitzearekin batera ez da beti diru-sarreraren handitze proporzionala egoten, lehengo ongizate maila mantentzeko; gainera, kontsumo-jarraibideak ez dira berberak, familiako kide bakoitzaren adinaren arabera.

²¹ Lehen esan dugunez, pertsonen esleituriko kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren %60 ezarrita. Beraz, errentak estatu bakoitzean duen banaketa aztertzen da, eta ez Europar Batasunean duen banaketa.

Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoak (898.27€) %6,6ko hazkundea izan zuen 2008an, aurreko urtean %4,4koa izan ondoren. Erretiroko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen %60,7k jasotzen dutena), aipatzekoa da 2008an horien batez besteko zenbatekoa hileko 1.023,70€-koa dela; hori Laneko Kostuko "soldatak" osagaiaren hileko batez besteko zenbatekoaren %48,6 da EAerako, INEk Laneko Kostuaren Urteroko Inkestan egindako kalkuluaren arabera. Osagai hori hileko 2.107,39€-koa da, eta EAeko 2008ko batez besteko soldatarako hurbilketatzat har daiteke.

2008an pentsioduntzat alta hartuta duten pertsonen erretiroko pentsioa soilik kontuan hartuta, batez besteko zenbatekoa 1.051,70€ da (Estatuko datua, ez baitago EAeri buruzko informaziorik). Horrek Laneko Kostuaren Inkestan Estaturako ezarritako "soldatak" osagaiaren %58,3 adierazten du. Ratio hori EAen pentsio berrien eta batez besteko soldataren artean mantenduz gero, erretiroa 2008an harturiko pertsonen batez besteko pentsioa 1.228€-koa izango litzateke, eta erretiroko pentsioen guztizkoa, berriz, 1.023€-koa da.

Guztira, pentsioen zenbateko osoa 6.045 milioi eurokoa da, 2007an baino %6,1 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioen zenbateko osoa 45 milioi eurokoa da, eta, beraz, %5,9ko hazkundea izan dute; abenduan jasotako hileroko batez besteko zenbatekoak %7ko hazkundea izan du Baliaezintasunean eta %8,4koa Erretiroan, 2007ko abenduari dagokionez. Azkenik, laguntzako pentsioetan egindako gastuak (horren zenbatekoa ez da aldatu azken urteotan) %7,4ko murriztapena izan du, eta jasotzaile kopurua urte honetan ere urritu egin da, baina 2007an baino neurri txikiagoan (%-3,6; eta 2007an %-8,4). EGL sorospenei dagokionez, horien onuradun kopuruak %10,4ko murriztapena izan du, eta zenbateko osoak %8koa.

Azken batean, EAen pentsioetan egindako gastu osoa, 2008an, behin-behineko lehenengo hurbilketa batean, 6.093 milioi eurokoa izan zen, eta %6,1eko hazkundea izan zuen 2007tik; horrela, BPGrekiko ehunekoak 2007ko %8,7ltik %8,80ra igaro da (EUSTATEN behin-behineko datuak).

Bestalde, 2008an, pobretasunari eta bazterkeriari dagokionez, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari eta Laneratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legea onetsi da; horren helburu nagusiak hauek dira: alde batetik, Diru-sarrerak Ber-

matzeko eta Gizarteratzeko eta Laneratzeo Euskal Sistema eratzea, sistema autonomotzat, horren kudeaketan gizarte-eta enplegu-zerbitzuek parte hartuta, eta herri-administrazioetako beste arlo batzuekin lankidetzan; bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko eta Laneratzeo Euskal Sistemaren egiturazko oinarriak ezartzea, eta hiritarrek gizarteratzeko eta laneratzeo tresnak eta prestazio ekonomikoak bermatzea, hori lurralde osoan modu homogeenan aplikatzea segurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuz.

Lege hau 2008ko azken egunetan onetsi zenez, azterketaren ondoretarako, azken urteotan EAeko pobretasunari, marjinezioari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko erabili diren tresnei buruzko datuak eskaintzen dira: Oinarrizko Errenta eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Pobretasunaren aurkako borrokarako Plan integrarean jasotako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Lehenengo eta behin, 2008an Oinarrizko Errentaren familia-jasotzaileen kopurua 39.715koa izan da, eta horrek %10,3ko hazkundea adierazten du aurreko urtetik (azken urte horretan 36.004 bizikidetz-unitate jasotzaile). Lurraldeka, jasotzaile kopururik handiena Bizkaian dago: 28.048 jasotzaile, eta horrek EAeko %70,6 adierazten du. Bestalde, unitate-jasotzaileen kopuruak 2007ari dagokionez izandako hazkundea handiagoa izan da Araban, hazkunde hori %23koa izan baita; Bizkaian %10,6koa izan da eta Gipuzkoan %8,2koa.

2008an Oinarrizko Errentaren kontzeptuan ordaindutako zenbateko osoa 197,3 milioi eurokoa izan da (2007an baino %17 gehiago); bizikidetz-unitate jasotzaile bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 502,08€-koa izan da hilean, eta horrek 2008rako ezarritako Lanbide arteko Gutxieneko soldataren %71,7 adierazten du (aparteko ordainketak hainbanatuta).

Bigarrenez, 2008an Gizarte Larrialdiko Laguntzen jasotzaile kopurua 27.300ekoa izan zen, aurreko urtean baino %34 gehiago; horietatik 16.528 Bizkaian (guztizkoaren %60,5), 6.102 Gipuzkoan (%22,4) eta 4.670 Araban (%17,1).

2008an Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideraturiko zenbatekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko aurrekontuen kontura bideraturikoa, 38 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino bi milioi gehiago, eta horrek %5,6ko hazkundea adierazten du. Onuradun bakoitzeko ordaindutako urteko batez besteko zenbatekoa 1.392 eurokoa izan zen, 2007koa baino %2 handiagoa.

2. GOGOETAK

2.1. Demografia eta inmigrazioa

EUSTATEN 2020rako egindako Biztanleria Proiekzioen arabera, azken bosturtekoetan gertatu denez, biztanleriaren bilakaera, batik bat, migrazio-jarioen intentsitatearen eta joeraren eraginpean egongo da, horiek baldintzatu egingo baitute demografiaren hazkundea.

Epe laburrean, jaiotza eta heriotza kopuruaren arteko aldeak eragin positiboa (baina garrantzi urrikoa) izango du hazkundera, eta horren joera laster aldatu egingo da; hain zuzen ere, aldiaren amaieran, saldo begetatiboaren eraginezko galerak joan den mendeko 90eko hamarkadakoak baino handiagoak izango dira. Zenbakitan, berezko hazkundeak 7.000 biztanleko ekarpena egingo du 2007tik 2011ra, eta 2016tik 2020ra bitartean, berriz, 15.000ko murriztapena izango du. Gero eta negatiboagoa izango den saldo begetatiboaren eraginezko galerak ezin izango dira konpentsatu migrazioekin; horrela, epe luzean, aurreikusitako joerak mantenduz gero, EAEko biztanle kopurua beheranzko fasean sartuko da berriro.

Horri dagokionez, Europar Batasunaren “*Regions 2020. Demographic challenges for european regions*” txostenean (2008) egindako kalkuluaren arabera, 2020an Europako eskualdeen heren batean (gutxi gorabehera) biztanle kopuruak behera egingo du. Eskualde horietatik gehienak Erdialdeko eta Ekialdeko Europako estatukide berrietan, Ekialdeko Alemanian, Italia hegoaldean eta Espainiako ipar-mendebaldean daude; beraz, beharrezkoa da ekonomia eta gizarte-sistemak prestatzea, biztanleria zahartzearen eraginari aurre egin ahal izateko. Zenbait adierazle erabilita, txostenak “*zaugarritasun-indizea*” adierazten du, aldaketa demografikoek Batasuneko eskualdeetan sortu duten eraginerako; horren arabera, EAEk 45eko puntuazioa lortu du 100etik, eta Estatu barruan laugarren postuan dago, Asturiasen (60 puntu), Gaztela eta Leonen (57) eta Galizian (60) atzetik. “Zaugarritasunik” urrireneko eskualdeak Kanariak eta Murtzia dira (hurrenez hurren, 10 eta 17 puntu). Ikerketa honek EAEkoaren posizioan jartzen dituen Europako beste eskualde batzuk Frantziako Loira eta Britainia, Italiako Emilia-Romaña eta Calabria, Erresuma Batuko Gales eta Alemaniako Düsseldorf dira.

Bestalde, familia-erakundeak azken urteotan izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izandako eraginak gero eta interes handiagoa sortu dute biztanleen artean, ondorio nabariak dituztelako; izan ere, bizikidetzaren unitateen barruan arazo berriak sortu dira, ordaindutako lana eta zaintzako jarduerak bateratu behar izatearen inguruan. Lanaren eta familiako bizitzaren nahiz bizitza pertsonalaren arteko gatazka hau bi unetan nabarmentzen dira: haurrak txikiak direnean eta, gero eta sarriago, mendekotasuna duten adineko pertsonak zaindu behar direnean.

EUROSTATEk oraintsu egindako inkesta baten arabera, amatasunaren eta enpleguaren arteko lotura negatiboa da Europar Batasuneko estaturik gehienetan (-12,4 puntuko batez beste-

koa); izan ere, seme-alaba kopurua zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txikiagoa da amen enplegu-tasa; gizonen kasuan, berriz, eragin hori positiboa da (+7,3 puntu). Hala ere, estatu batetik besterako desberdintasunak nahiko handiak dira, adin txikiak zaintzeko zerbitzu-eskaintzaren arabera. EUSTATEN BJA inkestak dienez, emakumeen lan-tasa handiagoa da, oro har, seme-alaba bakarra dutenen artean, ama ez direnen artean baino; oraindik ere handiagoa da bi seme-alaba dituzten artean, baina 3 seme-alabako edo gehiagoko emakumeen artean beherakada handia dauka.

Kezkagarria da, EMAKUNDEren ikerketa berri batean esaten denaren arabera, EAEko pertsona gero eta gehiagok lan-baldintzak malgutzeko neurriak hartu arren (familiako eta laneko bizitza adiskidetzeko), neurri horiek, batik bat lanaldiaren murriztapenak, pertsonen (gehienbat emakumeak) lanbide-garapena murgatzea. Galdeturiko pertsonen ustez, oro har, enpresek adiskidetzeko neurriekiko duten jarrera ez da beti berdina; zenbait kasutan, ordutegi-malgutasuna erraztu eta, beste batzuetan, zaildu egingo du. Ikerketak dienez, lan-tipologia oso desberdinak daude, batzuek arduraldi edo bidaiatzeko prestasun handiagoa eskatzen dute, eta, horien kasuan, oraingo adiskidetzeko neurriak ez dira bateragarriak. Halako lanpostuak gizonak betetzen dituzte gehienetan.

Halako egoerak arintzeko, 2002an, Eusko Jaurlaritzak “*Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakunde arteko I. Plana*” sustatu zuen. 2006an Bigarren Plana abiatu zen, eta horrek 2010era arteko indarraldia dauka; azken horren helburua seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriak indartzea, zabaltzea eta horiei jarraitutasuna ematea da, baita lehengo Planean aurreikusi gabeko gastu-kontzeptuak estaltzea ere. 2008rako Bitarteko Ebaluazioaren Txostenak datu batzuk ematen ditu; adibidez, esaten da urte horretan honako hau eman zela:

- Ardurapeko seme-alabetarako 28.175 laguntza, aurreko urtean baino %40 gehiago, eta, horretarako, 25,3 milioi euroko aurrekontua betearazi zen.
- 3 urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko 4.960 laguntza, baita hiru urtetik beherako haurtzarolari laguntzeko sarea finkatzeko ere, 2007/08 ikasturtean (aurreko urtean baino %11,2 gutxiago), eta zenbateko osoa 4,1 milioi eurokoa izan zen.
- Haurrak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi murriztapenean dauden inoren konturako langileentzat, 10.651 laguntza, 2007an baino %41 gehiago, eta betearazitako gastua 11,1 milioi eurokoa izan da.

Ebaluazioko Txostenak berak gabeziak onartu ditu, adierazle kuantifikagarrien eta prezioen arloan, zenbait programatan, horien estaldura mailak zenbatetsi ahal izateari dagokionez; halaber, atzerapenak ere onartu ditu, laguntzak langile autonomoei zabaltzearen arloan; aldi berean, esan du gizonen laguntza-eskariaren tasa baxua dela (esate baterako, seme-alabak zaintzeko eszedentziaren edo lanaldi-murriztapenaren laguntzen onuradun guztien %3 baino ez dira gizonak); ho-

rrenbestez, ordezeko soluzioak aztertu behar dira, adibidez, familia barruko sentsibilizazio-kanpainak.

Bestalde, nazioarteko migrazioak politikaren eta garapenaren arloko nazioarteko agendaren gai nagusienetarikoa dira, eta gizarte eta ekonomia globalaren oraingo etaparen ezaugarri bereizgarrietarikoa dira. Fenomeno horiek EAEn ere eragina dute, eta, horrela, bertako kultura-aniztasuna gero eta handiagoa da, biztanleria talde gero eta handiagoak oraintsu bertara joatearen eraginez.

Udal Erroldako datuen arabera, 2005etik 2008ra, EAEn erroldaturiko atzerriko biztanleriaren bolumenak %60ko hazkundera izan du. 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoan 72.894 immigrante bizi diren, eta 2008ko urtarrilaren lehen Udal Erroldan 116.650 zeuden erregistraturik, aurreko urtean baino %19 gehiago. Azken urteotan hemengo biztanle kopurua murriztu egin da, eta hori atzerriko biztanleriaren saldo positiboarekin orekatu da; horrela, immigrante kopuruak gero eta ehuneko handiagoa dauka biztanleria osoaren barruan: 2008an EAEko atzeritarren ehunekoak %5,4koa zen, eta Estatuan %11,3koa.

INEk 2008an (2007ko datuekin) lehenengoz argitaraturiko "Inmigrazio Inkesta Nazionala" deritzonak agerian jarri duenez, EAEn bizi diren immigranteak etortzearen eragile nagusiak honako hauek izan dira: lan hobeak aurkitzea (%42,9), familia-arrazoak (familia berriro biltzea) (%32,1), bizi-kalitatea hobetzea (23,9) eta lanik ez edukitzea (%21,8). Beraz, migrazio-fenomeno ekonomikoa da, gehienbat.

Ikuspegiren (Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazioaren Behatokia) 2008ko ekaineko Barometroak agerian jarri duenez, EAEko biztanleen ustez inmigrazioa ez da arazo: %2k soilik esan du EAEko arazo nagusia dela. Inmigrazioak EAEko ekonomian duen eraginari dagokionez, hemengo biztanleek ez dakite inmigratioak Euskadiko gizartean ondorio positiboak ala negatiboak dituen, eta Oitk 10erako eskalan, batez besteko puntuazioa 4,89koa da. Biztanleek onartu egiten dute atzerriko biztanleriak ekonomia hobeto ibiltzea ahalbidetzen duela, baina hemengoek nahi ez dituzten lanak betetzea ere; baina horrek soldatetan eragin negatiboak dituela eta, horrela, gizarteko talderik zaugarrienei kalte egiten zaiela.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren "EBtik kanpoko inmigratioak EAEko ekonomian duen eragina" (2008) ikerketan adierazitakoaren arabera, EAEko atzeritarrei atxikitako gutxi gorabeherako gizarte-gastua 233,9 milioi eurokoa izan zen 2006an (gastu osoaren %4), eta ratio hori immigranteen biztanleriak urte horretan izandako ehunekoaren antzekoa da. Gainera, 2006an, batez besteko gizarte-gastua immigrante bakoitzeko 2.905 eurokoa izan zen, eta hemengo pertsona bakoitzeko gastua 2.828 eurokoa. Laneko errenten eraginezko zerga-bilketari dagokionez, immigranteen ekarpena hemengoek egindako baino %23,5 handiagoa da: edo, beste modu batera esateko, immigrante bakoitzak gizarte-gastutik 76 euro gehiago bereganatu zuen batez beste, baina EAEko Ogasunean hemengo pertsona bakoitzak baino 1.097 euro gehiago ordaindu zuen zerga-zametan. Alde hori immigranteen

jarduera-tasa altuaren eta, hortaz, zergadun-ehuneko handiagoa izatearen ondoriozkoa da.

2.2. Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren gastu korranteak, 2008an, gora egin du, baina 2007an baino gutxiago; hurrenez hurren, %+7,7 eta %+12,3. Halaber, ikasle bakoitzeko gastua 5.477tik 5.353ra murriztu da, ikasle kopuruak gastuak baino hazkunde handiagoa izan baitu.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaraturiko azken datuen arabera (2005ari buruzko datuak), Hezkuntza Administrazioek BPGren %3,55eko gastua dute EAEn (Unibertsitatekanpoko Hezkuntzan %2,9 eta Unibertsitateko Hezkuntzan %0,58), eta Estatuan ehunekoak %3,77 da (Unibertsitatekanpoko Hezkuntzan %2,82 eta Unibertsitateko Hezkuntzan %0,84).

HZMk argitaraturiko "Hezkuntzaren zifrak Espainian" deritzon datuek diotenez, Unibertsitatekanpoko Irakaskuntzan ikasle bakoitzeko gastu publikoa, Lanbide Heziketan izan ezik, 2006an, 9.059 eurokoa izan zen EAEn (ikasle publiko eta kontzertatu bakoitzeko gastu publikoaren kasuan 6.251); horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten da, bi kasuetan, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Estatuak batez bestekoa 5.751 eurokoa da (ikasle publiko eta kontzertatu bakoitzeko gastu publikoa 4.888 euro), EAEtik hurbil, Nafarroa (7.324 euro), Asturias (7.050), Kantabria (6.648) eta Galizia (5.569) daude. Bestalde, EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioak bilakaera positiboa izan du; izan ere, EUSTATen 2008-09ko gastuen aurrerapenaren arabera, horrek 1,9ko hazkundera izan du; aipagarria da matrikulazioaren hazkundera DBHra heldu dela lehenengoz, bertan %0,3ko hazkundera egon baita. Halaber, %50eko banaketa proportzionalerantzko bilakaera ikusten da Lanbide Heziketaren eta Batxilergoaren artean. Irakaskuntza Ertainen matrikulazioan, eta, lehenengoak matrikula kopurua handitu du. Hala eta guztiz ere, emakumeak lanbide-ikasketan duen partaidetza oraindik ere gizonena baino txikiagoa da, eta hori sarriago gertatzen da lanbide-familietan.

Goi Hezkuntzako matrikulazioari dagokionez (lehenengo bizi-zikloetan), agerian jarri behar da, matrikulazioak balio absolutuetan behera egin duenean, unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoak gora egiten duela, eta 2007-08 ikasturtean %31,2 da. Estatuan, bestalde, ehunekoak %31 da. Beste modu batera esateko, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleria osoarekiko duen ehunekoak EAEn baino apur bat txikiagoa da, baina bertan ere bilakaera goranzkoa da.

Goi mailako graduatutasak (Unibertsitateko Ikasketak eta Goi Mailako LH), zientzietan, matematikan eta teknologian, Hezkuntza Ebaluazioko eta Ikerketako Euskal Institutuak (IVEI-ISEI) emandako datuen arabera, bilakaera positibo iraunkorra dauka; hain zuzen ere, 20-29 urte bitartean milako 20,2tik 27,1era igaro da, 2000tik 2005era; EBko estatu guztien arteko zifrarik altuenetarikoa da, segururik LH teknologikoak EAEn duen garrantziaren ondorioz. Izan ere, iturri horrek dioena kontuan hartuta, tasarik altuenak Goi Mailako LHko irakaskun-

tzakoak dira, eta horien atzetik lizentziaturakoak, diplomaturakoak eta doktoregokoak daude. Hala eta guztiz ere, generoaren ikuspegitik, 2005ean, arlo horietako graduazio-tasa 22,1 puntu baxuagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino (milako 15,7 eta 37,8, hurrenez hurren), eta horrek agerian jartzen du emakumeen artean zientziaren eta teknologiarik arloko graduazioa sustatu beharra dagoela.

Halaber, HZM-Ebaluazio Institutuak emandako datuen arabera, derrigorrezkoaren osteko hezkuntza amaitu duten helduen ehunekoa (20-64 urte bitartekoak) %62,2koa izan da EAEn, 2005ean, eta horren balorazio positiboa egiten dugu; Estatuan ehunekoa %50,2koa da, baina aipagarria da EB-27tik dirudienez (adin-lerruna ez baita homogeneoa) dugun distantzia luzea. EUROSTATen datuak aintzat hartuta, hezkuntza hori amaitu duten helduen ehunekoa (25-64 urte bitartekoak) %48,5koa da Estatuan eta %69,3koa EB-27an.

Guretzat pozgarria da, halaber, ikaskuntza iraunkorrek helduen ehunekoa, IVEI-ISEIk emandako datuen arabera, aurreakuntza iraunkorra izatea, eta 1995eko %4,3tik 2007ko %13,2ra igarotzea, horrek aditzera ematen baitu 2010erako ezarritako helburua gaindituta dagoela (lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren, hau da, 25-64 urte bitartekoak %12,5). Hala ere, oraindik ere bide luzea egin behar dugu erreferentziako estatuetako ratioetara heltzeko; adibidez, Suedia (2006ko datua %32), Danimarka (2007an %29,2), Erresuma Batua (2006an %26,6), Finlandia (2007an %23,4), Holanda (2007an %16,6) eta Eslovenia (2007an %14,6).

Berriro aipatu behar dugu unibertsitateko hirugarren zikloko (doktoregoa) matrikulazioak 2001-02tik izandako goranzko joera hautsi egin zela 2005-06an, eta horrek eraginak izan dituela oraingo Informazioaren eta Jakintzaren Gizartean.

Zalantzarik gabe, kezkarria da hezkuntza-adierazle batzuek adin txikiagoetan edota hezkuntza maila atzeratuagoetan izan duten bilakaera. Horrela, eskola garaia baino lehen uzteko tasa kontuan hartuta (%13,2 eta %15,8 bitartekoa), pentsa daiteke nekez lortuko dela EBk 2010erako ezarritako helburua, ezta emakumeen tasan ere, hori betidanik %10etik beherako tasetan ibili arren, 2007an %11koa izan baitzen. Gizonen tasak (%19,6) agerian jartzen du gaiari buruzko hausnarketa egin behar dela. Hausnarketa horretan aintzat hartu behar dira baliabideen atxikipena, curriculum dibertsifikatzeko programak eta aniztasunerako arreta eta hezkuntza- edo jokabide-arazoak dituzten ikasledun ikastetxeak, besteak beste.

Bigarrenez, EAeko 20-24 urte bitarteko biztanleek derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitzeko tasa, 2000tik 2007ra, %81 ingurukoa izan da, eta zifra hori nahiko urrun dago %85eko helburutik; horren zergati nagusia lehen aipatu den eskola-uztea da.

Horrela, 18 urteko adinean eskolatzeko-tasa garbia, EUROSTATen eta EUSTATen datuak aintzat hartuta, EB-27ko batez bestekoa baino altuagoa da (%77,7 eta %77,4, hurrenez hurren), baina EB-25ekoa (%78,3) baino baxuagoa; gainera, urrun dago eurozonako ehunetik (%81,4), eta, beraz, erreferentziako lurralde-rik gehienetako tasatik. Horri dagokionez, kontuan hartu behar

da gizartea lehiakorra izateko, ezinbestekoa dela biztanleek gutxieneko heziketa eta prestakuntza mailak izatea.

Laugarrenez, baina hau ere garrantzi handikoa, ikasketa mailaren arabeko graduazio-tasa (DBH, Batxilergoa, Teknikaria, Goi Teknikaria, Diplomata, Arkitekto Teknikoa eta Ingeniari Teknikoa; eta Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria) murriztu egin da 2005-06 eta 2006-07 ikasturteetan, diplomatuen, arkitekto teknikoaren eta ingeniari teknikoaren kasuan izan ezik, horien ehunekoa %22tik %22,4ra igaro baita.

Horrenbestez, berretsi egin behar da heziketa eta trebakuntza adin txikiagoetan edota hezkuntza maila atzeratuagoetan hobetu behar dela, ezagupenean oinarrituriko gizarterako beharrezkoa baita biztanle guztiek nolabaiteko heziketa eta hezkuntza maila edukitzea.

Amaitzeko, ahaztu ezin den gauza bat azpimarratu nahi dugu, adierazle batzuek generoaren ikuspegitik agerian jarri duten joera-aldaketarekin loturikoa; izan ere, emakumeen tasan bilakaera hobea aldatzen ari da, dirudienez. Hori ez dugu eskola uzteko tasan bilakaeran bakarrik ikusi; esate baterako, 12 urtetik aurrera emakumeek gizonen baino egokitasun-tasa handiagoak dituzte; hala ere, bilakaeraren aldetik, distantzia laburtzen ari da.

2.3. I+G+B Jarduerak eta IKT-ak

EUSTATen, EUROSTATen eta INEren datuek diotenez, I+G+b deritzonaren adierazle nagusiak aintzat hartuta, EAE Estatu autonomo-erkidegorik dinamikoa eta berritzaileenetarikoa da; baina oraindik ere bide luzea dugu egiteko, arlo honetan erreferentziakoak diren estatuen mailara heldu nahi badugu. Horrela:

- INEK I+G jardueretan erregistraturiko ahalegina aintzat hartuz, 2007an EB-27ko batez bestekoaren ginetik dago EAE (%1,83 eta %1,87, hurrenez hurren); hala ere, konparazioa EUSTATEk egiten duenean ez da gauza bera gertatzen (BP-Gren %1,65; aurreko urtean baino 0,18 puntu gehiago); hala eta guztiz ere, agerian gelditu da batez besteko balio horriko distantzia laburtzeko joera dagoela.
- Pozgarria da I+G jardueretako langile kopurua gero eta handiagoa izatea, eta kopuru hori Estatuak eta EBko baino handiagoa izatea; gainera, arloan dinamikoenak diren lurraldeetako balioetara heltzen da. EDPtan neurtuta, 2007an landunen % 14,2koa izan zen. Estatuan %9,88koa da, eta EBn %9,9koa. Guztira, %63,9 ikertzaileak dira.
- Azken urteetan ikusitakoaren arabera, sektore pribatuak garrantzia galdu du I+G jardueren finantziazioan, baina oraindik ere finantziatio-iturri nagusia da. Sektore pribatuak I+G jardueretan egiten den gastu osoaren %58,9 finantzatzen du, eta Administrazioak %37,6. Horrela, EAE 7,1 puntura dago Lisboako helburutik; I+G jardueretan egindako gastu osoaren %66 fondo pribatuekin finantzatzea. I+G jardueretako gastuaren finantziatio pribatuko ehunetik altuenak, EUROSTATEk dioena kontuan hartuta, honako estatu hauek daude: Luxenburgoko (2005ean %79,7), Japonia (2005ean %76,1), Suitza (2003an %69,7), Alemania (2005ean %67,4 eta 2006an %68,1), Finlan-

dia (2005eko datua %66,9), Suedia (2005ean %65,7) eta AEB (2006an %64,9).

- Berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastu osoak %10,9ko hazkundea izan du, 2006koari dagokionez. BPGren %4 da, eta hautsi egin da aurreko urteetako egonkortasun-joera. Aipatzekoa da barruko I+G jardueretan egindako ahalegin handiagoa (BPGren %1,5etik %1,7ra), kanpoko I+G jardueretan (BPGren %0,6tik %0,5era) edo makineria-lorpenean (%1,4tik %1,3ra) egindakoaren kaltetan.
- 2004-06 aldian produktuaren edo prozesuaren enpresa berritzaileen ehunekoa (9 langiletik gorako enpresak) 2,4 puntu handiagoa da EAEn Estatuan baino, eta ehunekoak, INEren arabera, %31,8 eta %25,3 dira, hurrenez hurren.

- EUSTATEk egindako Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EAEren ezaugarriak honako hauek dira:

- Zientzietan eta Ingeniaritzetan eta Gizarte eta Giza Zientzietan lizentziaturiko 20-29 urte bitarteko gazte-tasa altua; tasa hori milako 47,9koa da, eta Europakoa, berriz, milako 40,3koa; goi-hezkuntza (Unibertsitatekoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa) duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa %42,5koa da, ia bi aldiz handiagoa EBko %23,5koa baino; gainera, heziketa iraunkorreko jardueretan parte hartzen duen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa %13,2koa da, eta Europan %9,7koa.
- Ezagupen maila altuko zerbitzu-sektoreetan dabilizan langileen ehunekoa handiagoa da; hain zuzen ere, enplegu osoaren %19,3koa da, eta Europan %14,5koa. Teknologia ertain-altuko eta altuko manufaktura-sektoreetan enplegua guztizkoaren %8,8 da, eta EBko batez bestekoa %6,7koa da.
- I+G jardueretan egindako gastu pribatua %1,34koa da EAEn, eta %1,17koa EB-27n.
- Enpresa-berrikuntzaren ehunekoa %12,4koa da, eta Europakoa %5,1koa.
- Teknologia ertaineko eta altuko esportazioek esportazio guztiekiko duten ehunekoa %53,6koa da EAEn, eta %48,1koa EBn.
- Banda zabalaren hedapenari dagokionez, 10 enplegatuko edo gehiagoko enpresen %87,4k banda zabala dute, eta EBn ehuneko hori %77koa da.
- Eraginkortasunaren aldetik, enpresa berritzaileen %19,6k murriztu egiten dute langileria-kostuak, eta %9,4k materialen eta energiaren kontsumoa murriztu dute; Europan ehuneko horiek %18,0 eta %9,6 dira, hurrenez hurren.

Baina hobetu beharreko alderdiak ere badira; izan ere:

- I+G jarduerak BPGn duten gastu publikoa baxuagoa da: %0,31 eta %0,65, hurrenez hurren.
- Arrisku Kapitalerako BPGren ehunekoa txikiagoa da (%0,03 eta %0,16, hurrenez hurren).
- Berrikuntza-jardueretako gastuak (I+G jardueretako aintzat hartu barik) salmentei dagokienez duen ehunekoa, 10 langileko eta gehiagoko enpresetan txikiagoa da EBn baino; hurrenez hurren, %0,75 eta %1,03 EB-27n.

- Berrikuntza teknologikoren bat garatu duten ETEak %30,5 dira, eta EBn %33,7; eta berrikuntzan lan egiten duten ETE berritzaileen ehunekoa apur bat txikiagoa da (EAEn %8,2 eta EBn %9,4).

- EPO patente kopurua, milioi bat biztanleko, EAEn 6,6koa da, eta Europako batez bestekoa 10,3koa da. Izan ere, EUSTATEN datuen arabera, patente-eskabideen eta indarreko patenteen kopuruak murriztu egin dira 2004-06 eta 2005-07 aldietan, bai enpresa berritzaileetan eta bai enpresarik handienetan (10 langile edo gehiago). Horrela, 2005-07 aldian, euren establezimenduan garaturiko asmakizunak edo berrikuntzak babesteko patenteren bat eskatu zuten enpresen ehunekoa %1,4koa izan zen; eta 2007aren amaieran patenteren bat indarrean zuten enpresen ehunekoa %1,9koa. Aurreko aldian, ehunekoak %1,5 eta %2,5 izan ziren, hurrenez hurren. 10 langileko edo gehiagoko enpresa berritzaileen taldea aintzat hartuta, ehunekoak altuagoak dira, baina murrizteko joera mantendu egin da.

Horrenbestez, komenigarria izango litzateke I+G+b jardueretara baliabide publiko gehiago bideratzea, eta baliabideok, gure iritzian, aintzat hartu beharko dituzte:

- EAEko oraingo egitura ekonomikoa euskarritzen duen produkzio-egituraren beharrezan; helburua, hortaz, emaitzak lortzea izan behar da.
- Zehaztu egin behar da zer sektore sorberritan dituen EAEk arrakasta lortzeko aukerarik handienak, eta ahaleginak horien inguruan fokalizatu behar dira, ahaleginak barreiatu barik.
- Jarduketa-ildoen jarraipena egin behar da, helburuak bete egiten direla egiaztatuz; beharrezkoa izanez gero, gainera, helburuok berregokitu egin behar dira.

Familien edota biztanleen IKT ekipamenduei dagokienez, esan behar da pozgarria dela EAE hazten jarraitzea; hala ere, oraindik ere Europako batez bestekoetatik behera gaude. Horrela, interneteko konexioa duen 16-74 urte bitarteko kide bat (gutxienez) duen familia-ehunekoa, 2008an, %60koa da EB-27an, eta banda zabalerako konexioa dutenena %48koa. EAEn ehuneko horiek, hurrenez hurren, %57koa eta %44koa dira. Beraz, EAE Europar Batasuneko batez bestekoa baino apur bat beherago dago, eta erreferentziako estatuetakoko ehunekoetatik urrun (Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgoko eta Erresuma Batua).

Erabileraren aldetik, INEren datuen arabera, EAE hazten ari da oraindik, eta Estatuako sailkapenean posizioak mantendu edo irabazi egin ditu. Horrela, 2007tik 2008ra, azken 3 hilabeteetan PCa erabili dutenen ehunekoa %59,2tik %63,7ra igaro da, eta internet erabili dutenena %53,6tik %59,5era.

Baina EUROSTATen eta INEren datuak gurutzatuta ikusten denez (2008ko datuak), interneten erabileraren arloan, EAEn inkesta egin baino lehenagoko hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten pertsonen ehunekoa %51,5 da, eta Estatuako batez bestekotik gora dago (%49); baina EB-27ko (%56), EB-25eko (%58) eta EB-15eko (%60) batez bestekotik behera.

Horrenbestez, gure iritzian, gero eta beharrezkoagoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera sustatzea, horiek gutxien erabiltzen dituzten taldeen artean (seme-alabarik gabeko familiak edo bakarrik bizi diren pertsonak, adinik handieneko taldeak eta prestakuntzarik urrienekoak eta lan-egonkortasunik txikienekoak). Gainera, konexioa, edukiak eta banaketa konbinatzen dituen politika publikoa lagungarria izango litzateke IKTen hobariak maximizatzeko.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, halako ekipamenduak gero eta gehiago sartzen dira enpresetan; hala eta guztiz ere, establezimenduek, enplegu-tamaina handiagoa eduki ahala, hazkunde urriagoak dituzte arlo honetan, hobetzeko bitarte txikiagoa baitute.

Interneten edo bide elektronikoaren bidezko merkataritza-transakzio kopuruak, bestalde, gora egin du, bai horrek sortzen dituen negozio-zifretan, bai parte hartzen duen pertsona eta establezimendu kopuruan, baita bide hori erabilia salerosten diren ondasun eta zerbitzu kopuruan ere. Hala ere, eta datuak oso homogeneousak ez badira ere, Europar Batasunarekiko konparazioak agerian jartzen du merkataritza elektronikoak hedapen urriagoa duela EAEn.

2.4. Ingurune naturala

Azken urteotan hobekuntzak egon dira ingurumenaren egoeraren arloan, gizartea arazoaz jabetu delako eta garapen iraunkorra lortzeko jarduketara publikoak garatu direlako.

Horrela, honako hauek bilakaera ona izan dute:

- Airearen kalitatea, legezko parametroen arabera, ona edo, behintzat, onargarria da azterturiko azpizona guztietan.
- Kutsagarri atmosferikoen isurpenak murriztu egin dira, PM_{10} deritzon kasuan izan ezik (esekidurako partikulak), azken kasu horretan oraindik ere gainditu egiten baitira legezko mugak.
- Uren kalitatea:
 - *Ibaitako* uren kalitatea hobetu egin da.
 - *Trantsizioko uretan*, oraindik arazoak egon arren, bilakera ona da.
 - *Kostaldeko uretan* egoera oso ona da, laginketa-estazioen %100ek betetzen baitituzte helburuak.
 - *Aintziretan eta barruko zona hezeetan* badirudi bilakaera positiboa egon dela, baina hori oraindik ez da nahikoa.
 - *Bainuko uretan*, 2008an egindako azterketak agerian jarri du bainuko 10 zonak hobera eta 3k txarrera egin dutela.
- EAEn uraren balio unitarioa 0,87 euro/m³-koa izan zen 2006an, eta horrek %4,4ko murriztapena adierazten du, 2005ari dagokionez.
- 2007ko intentsitate energetikoa 1997koaren %95 da, eta 2006tik ehuneko puntu batean hobetu da, BPG energiaren azken kontsumoa baino gehiago hazi baita.
- Arriskutsuak ez diren hondakinen sorkuntzak, aurreko urteetan ez bezala, %0,1eko murriztapena izan du.
- Hondakinak baloratzeko adierazleetan hobekuntza iraunkorra egon dira; hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko, EAeko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) plan-

teaturiko helburuak lortzeko. Horrela, hondakin arriskutsuen balioztapen-tasa %56,8koa izan zen 2007an (helburua %65), arriskutsuak ez diren hondakinena %67koa 2006an (helburua %75), eta hiri-hondakinena %30,6koa 2007an (helburua %35). Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen balioztapenean oraindik ere bide luzeagoa dago egiteko (%35, eta helburua %70), baita sorturiko hiri-hondakinen zero-isurketako konpromisoaren arloan ere.

- Ingurumen-ziurtagirien edo ziurtagiri "berdeen" kopurua (ISO 14001, Ekoscan Araua, Europako EMAS Araudia edo UNE 150.301-Ecodiseño) gero eta handiagoa da. Horrela, 2007tik 2008ra ziurtagiri kopurua 1.130etik 1.228ra igaro da (98 ziurtagiri berri).
- 2008ko *Gizarte Ekobarometroak* agerian jarri du ingurumena babesteko eta zaintzeko sentsibilitatea etengabe hazi dela.

Dena den, aipagarria da:

- Banaketa-sarean galdutako ura; izan ere, galera absolutua %3,6ko izan arren, ur erabilgarri guztiaren %12,6 da (aurreko urtean %11,3).
- Bildutako hondakin-uren bolumenaren murriztapena (1.086.767tik 788.237 m³/egunera).
- Energiaren azken kontsumoaren hazkundea (2006tik 2007ra %2,7, eta 5.746 ktep-era heldu da); EAEn oinarriko energia gutxi erabiltzen da iturri berriztagarrien bidez (2007an eskariaren %5), eta negutegi-efektuko gasen (NEG) isurpenak gora egin du. Kontuan hartu behar da EBK 2009ko apirilaren 2lean onetsi duen Politika Energetikoaren konpromisoa 2020an energiaren produkzio osoaren %20 iturri berriztagarrien bidez egitea dela, baita energiaren kontsumoa %20an murriztea eta NEGen %20ko murriztapena lortzea ere (Kiotoko Protokoloan planteaturikoa baino asmo handiagoko helburua: Espainiaren kasuan 2012rako %15eko murriztapena). Alderdi horiek guztiak gure hurrengo Memoria Sozioekonomikoan (2009ari buruzkoa) aztertuko dira sakonago.
- Hondakin arriskutsuen sorkuntza; aurreko urtean ez bezala, gora egin du (%+1,9 eta %-3,1, hurrenez hurren).
- 2008ko *Gizarte Ekobarometroaren* arabera, elkarrizketaturiko lau pertsonatik batek esan du ez duela ingurumena babesteko ahaleginik egiten.

Gainera, honako joera kezagarri hauek mantentzen dira:

- Mugikortasunaren eta garraioaren hazkundea, eta desoreka modalak. Izan ere, pertsonen mugikortasuna, batez ere, ibilgailu pribatuan oinarritzen da; eta merkantzien garraioan errepidea nagusitu egiten zaio trenbideari.
- Negutegi-efektuko gasen (NEG) isurpenak. EAEn, *NEGen isurpen osoa* (zuzena eta zeharkakoa, hau da, inportaturiko elektrizitateari lotutakoak) 25,3 milioi tona CO₂ baliokidekoa izan zen 2007an, eta horrek %2leko hazkundea adierazten du oinarri-urteari dagokionez.

Izan ere, 2008ko *Gizarte Ekobarometroak* dioenez, bereizkuntza dago EAeko biztanleriak, alde batetik, klimaren aldaketarekiko eta horren eraginekiko (etorkizuneko eraginak) duen kezka handiaren, eta bestetik, eragin hori arintzearen arloan

jokabide pertsonalei ematen dien garrantzi urriaren artean. Hau da, arazoa garrantzitsua dela egiaztatu baina ez dira hori ebatzeko inplikazio pertsonalak barneratzen, eta inplikazio horiek gainerakoengana proiektatzen dira.

Horrenbestez, ahaleginak ez dira ahuldu behar, alderantziz. Eta, horretarako, EAEko CESen ustez, ezinbestekoa da biztanleen artean sentsibilizazioa hedatzea eta produkzio-prozesu garbiagoak abiatzea, ingurumena, gizartea eta ekonomia ondo bateratu ahal izateko; hori lortzeko egin beharreko gauzen artean, aipagarriak dira berrikuntza teknologikoari laguntzeko ildoak sortzea, ingurumen-sentsibilizazioko ekintzak sustatzea (zenbait taldetan), etab.

2.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

2007ko Memoria Sozioekonomikoan adierazitakoaren arabera, parametro ekonomiko garrantzitsuek 2007an izandako bilakaerak (esaterako, BPG, inflazioa, lana eta langabezia) ziklo ekonomikoaren aldaketa iragartzen zuen; izan ere, ekonomia-aren hazkundeko aldi luzea eten egin zen 2008ko laugarren hiruhilekoan, finantza-krisia bete-betean agertu zenean, krisi hori apurka-apurka ekonomia errealerazabaldutik baitzen.

Krisi orokorreko testuinguru horretan, estatu guztiek neurri politikoak hartu dituzte egoera zuzentzeko. Hala eta guztiz ere, NDFk dioenez, neurri horiek ez dira guztiz eraginkorrak izan finantza-merkatuak egonkortzeko eta produkzioaren beherakada geldiarazteko.

Munduko jarduera ekonomikoaren hozte azkarrarekin batera, inflazio-presioak arin barreiatu ziren. Lehengaien eta gordinaren prezioek atzerakada handia izan zuten, urteko erdialdean izandako gehienekoei zegokienez. Testuinguru sozioekonomiko horren eraginez, banku zentral nagusiek diru-politika hedakorrak aplikatu eta, horien ondorioz, interes-tasa ofizialak gero eta gehiago hurbildu dira zerora.

Finantza-tentsioek truke- eta burtsa-merkatuetan ere izan zuten eragina. Horrela, adierazle batzuek euren historia osoko galerarik larrienak izan zituzten, edo Depresio Handian eta petrolioaren 1974ko krisian erregistraturikoen moduko galerak.

Europar Batasuna ez da nazioarteko konbultsio horietatik kanpo gelditu, eta krisi ekonomikoak, neurri handiagoan edo txikiagoan, estatukide guztietan izan du eragina. Oro har, eragile nagusia kontsumo pribatuaren eta egoitza-inbertsioaren beherakada da, eta, gero, kanpoko eskariaren murriztapena. Horri erantzuna emateko, enpresek inbertsioak geroratu eta eskariak mugatu egin dituzte, kreditu gero eta zailagoaren murriztapenaren eta enplegu-itxaropenen ziurgabetasunaren eraginez; azken alderdi horrek, aldi berean, mesfidantza zabaldu zuen kontsumitzaileen artean eta familien aurrezpenean. Lan-kostuak handitzen hasi eta unitateko lan-kostuak (ULK, lan-kostuen aldaketaren eta produktibitatearen aldaketaren arteko zatiduratzat neurtuta) goranzko joera izan dute 2008an, hazkunde horren eta laneko produktibitate murriztearen ondorioz, 2008ko hirugarren hiruhilekotik aurrera produktibitate hori negatiboa izan baita.

Espainiako ekonomiaren kasuan, egoerak oraindik ere ziurgabetasun handiagoa dauka; izan ere, ekonomiako sektoreek sorturiko aurrezpena ez da nahikoa izan egindako egoitza- eta produkzio-inbertsioari aurre egiteko, eta kanpoko aurrezpena beharrezkoa izan da; horrek 99.193 milioi euro inguruko defizita sortu du (2008ko BPGren %9.1); gainera, finantza-tirabirak eta nazioarteko kredituaren murriztapena oso kezagarriak dira.

Bestalde, dezelerazio ekonomikoaren ondorioak eta hartutako neurriak nabaritzen ari dira diru-sarrerara eta gastu publikoetan; izan ere, diru-sarrerak murriztu egin dira, eta gastuak, berriz, gora egin dute, langabeziako prestazioak eta kontsumo publikoa haztearen eraginez.

EUSTATen HKEetako datuen arabera, EAEko hiruhileko hazkundeen profilak dezelerazioa jartzen du agerian, lehenengo hiruhilekoko %3,2tik laugarren hiruhilekoko %0,4ra. Beherakada oso handia izan da eraikuntzan (urteko batez besteko hazkundea %-0,1) eta industrian; azken horrek, urtea zero hazkundetik gora amaitu arren, beheranzko hiruhileko profila dauka: lehenengo hiruhilekoko %2,3tik laugarren hiruhilekoko %-2,8ra).

INEren datuen arabera, IPIko (indize orokorra) batez besteko tasa murriztu egin da EAEn, baina Estatuan baino gutxiago. Horrela, 2007tik 2008ra, EAEn %4,5eko hazkundetik %2,5eko murriztapenera igaro gara (7 puntuko beherakada), eta Estatuan %+2,4tik %-7,1era (9,2 puntuko beherakada). 2008ko abenduan, urte batetik besterako aldaketaren tasak %-14 eta %-16 izan dira, hurrenez hurren.

EUSTATEk dioenez, murriztapen horren jatorri nagusia honako hauetan dago: kontsumo iraunkorreko ondasunetan, horien aldaketa-tasak behera egin baitu berriro (urte honetan %15,7ko beherakada); bitarteko ondasunetan, %4,5eko hazkunde-tasatik %5eko murriztapen-tasara igaro baitira (9,5 puntuko beherakada); eta ekipamendu-ondasunetan, %7,3ko hazkunde-tasatik %2,2ko murriztapen-tasara igaro baitira (9,5eko beherakada). Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen produkzio-indizean ere murriztapena egon da, baina lehen aipaturiko hiru kasuetan baino txikiagoa. Energiak, aldiz, %5eko hazkundea izan du, aurreko urtean %1eko murriztapena izan ondoren.

Beste modu batera esateko, kontsumo iraunkorreko ondasunek izan dute beherakadarik handiena produkzioan (etxebizitzak hornitzeko etxetresna elektrikoaren gama osoa), hau da, barruko eskariaren dinamismoa galtzearen (batez ere, kontsumo pribatua) eta etxebizitza-salmentaren beherakada itzelaren eraginpeko ondasunek.

IPIren azterketa sektorialetik (datu gordinak) ondorioztatzen denez, EAerako hiru sektorerik garrantzitsuenek, *metalurgiak*, *makineriak* eta *garraioko materialak*, jokabide desberdinak dituzte; izan ere, lehenengo biek, azken 5 urteotan aldaketa-tasa negatiborik izan ez arren (azkena, bien kasuan, 2002an), 2008an aldaketa-tasa negatiboak izan dituzte. Horrela, makineria-sektorearen indizeak 11,4 puntu galdu du, %6,3tik %5,1era igaro baita. Sektore metalurgikoak 10,2 puntuko beherakada

izan du, %5,3tik %-4,9ra. Bestalde, garraioko materialaren sektoreak %3,2ko batez besteko hazkundera izan du (2007an baino 5,9 puntu gutxiago), baina oraindik ere goranzko produktio-indizea dauka.

EAEko funtsezko hiru sektoreetariko bakoitzaren IPRIk desberdintasunak ditu. Horrela, garraioko materialaren IPRI %4,9tik %2,1era murriztu da (2,8 puntu baxuagoa), eta metalurgiarene eta metalezko produktuen IPRI %7,2tik %4,7ra murriztu da (2,5 puntu gutxiago); makineriarene IPRI hamarren 1 hazi da (%2,4tik %2,5era).

Langabezia-tasa, EUSTATEN BJaren arabera, %3,3tik %3,8ra igaro da, eta lanaren ageriko produktibitateak 3 hamarren galdu du (%1,2tik %0,9ra). Industria-sektoreak 2007koak baino irabazi apur bat txikiagoak izan zituen (%0,7tik %0,5era igaro da); eraikuntza %3,5etik %4,1era igaro da, eta zerbitzuak %1etik %0,9ra.

Produktibitate errealearen bilakaera hori EBkoa baino handiagoa da (EB-27n eta euroaren zonan emaitza negatiboa egon da 2008an: bi kasuotan %-0,1, 2007an %1 inguru eduki ondoren); tasa errealik altuena, berriz, Espainiako estatuan egon da, %1,6koa (2007an %0,6), bertan egon baita enplegu-galtzerik handiena.

Bestalde, 2008ko datuek agerian jartzen dute gure ekonomiako ULKek hazkunde handia izan dutela, aurreko urteari dagokionez (hain zuzen ere, %4,8 eta 2007an %2,5), batik bat industriako (%+6,6) eta zerbitzuetako (%+4,4) emaitzen ondorioz. Bi kasuotan, lan-kostuek produktibitate errealeak baino hazkunde handiagoa izan dute. "Prezioen" efektua BPGren deflatoarearen bidez deskontatuz gero, lan-kostuen aldaketa-tasa errealeak askoz ere txikiagoak dira bi sektore horietan (%2,4 eta %0,9), eta eraikuntzan negatiboak dira (%-2,9).

2007 eta 2000 konparatuta ikusten denez, bestalde, eduki teknologiko altuko eta ertain-altuko sektoreek atzera egin dute, batez ere enpleguaren arloan; izan ere, balioa sortzeari dagokionez, hori ez dago argi, "saikatu gabeko" jarduerak gora egin baitute. Era berean, aipatzekoa da produktibitateak eduki teknologiko ertain-altuko sektoreetan izan duen beherakada, eta ertain-baxukoetan egon den hazkundera.

Hala eta guztiz ere, zenbait autore OCDEren sailkapenari (intentsitate teknologikoaren arabera sailkapen sektoriala) ñabardurak egiten hasi dira; izan ere, produktio-jarduerak bilakaera dute, eta ez dira teknologia batzuen baldintzapean gelditzen. Zientziak eta teknologiak produktio-egitura osotik hedatzen dira, eta industria tradizionalako sektore batzuek (adibidez, ibilgailuak eta makineria) gero eta gehiago patentatzen dute elektronikaren sektorean; oro har, gainera, teknologia baxukotzat sailkatutako sektoreak halako teknologien erabiltzaile nagusiak dira, eta zientzian oinarritutako sektore bihurtzen dira.

EAEko CESeu ustez, funtsezkoa da produktibitatearen eta lehiakortasunaren arloan aurrera egitea, zenbait jarduerari garrantzi handiagoa emanez: hezkuntza eta heziketa, ikerketa,

ezagupena, prozesuko eta produktuko berrikuntza, teknologiarren zabalkundera eta transferentzia, eta balio erantsi eta kalitate handiko ondasunen eta zerbitzuen sorkuntza; alderdiok garatzeko, enpresen konpromisoa ez ezik, batez ere Gobernuaren eta zientzia- eta teknologia-inguruaren konpromisoa ere ezinbestekoa da, *Hezkuntza eta I+G+b Jarduerak* eta *IKTak* epigrafeetan adierazi dugunez.

Errentari dagokionez, biztanleko errenta gordinik handiena dutenak EAEko familiak dira; hain zuzen ere, 18.335 euro, Estatuko batez bestekoa baino %29,2 gehiago (14.192€). EAEren atzetik Nafarroa, Madril eta Katalunia daude, ordena horretan. Bilakaeraren aldetik, EAEko biztanle bakoitzeko errenta gordinak %7,2ko hazkundera izan du azken urtean, eta Estatuko batez bestekoak %5,6ko hazkundera izan du.

Bestalde, EUROSTATEk, BPGren (per capita) estatistiketan oinarrituz, EAEk Europar Batasunarekiko eta horren barruko estatu eta eskualdeekiko posizio erlatiboa jakiteko aukera ematen du. Biztanleko BPGk lotura positiboa dauka leku bateko biztanleen bizi mailarekin.

2007an, eta EBko batez bestekoari dagokionez, EAEk %139,5eko BPG per capita dauka (EUSTATEN datuen arabera); horrela, indize horretan berriro ere gora egin du, hamahirugarrenez jarraian, 1995ean EBrekiko %109,6ko balioa izan zuenetik. 2007an lorturiko balioarekin, EAE hirugarren posturik onenean egongo litzateke, EBko estatuen artean, Luxemburgoren eta Irlandaren atzetik.

EAEk atzerrian egindako inbertsioari dagokionez, gure erki-degoaren produktio-gaitasuna gutxiago hazi da; izan ere, atzerriko balioak dituzten enpresen (ABDE)²² kasuan izan ezik, 2007 baino lehenagoko balioetara itzuli gara, eta 28.243,4 eurotik 4.483 milioi eurako murriztapena egon da. Estatuan ere murriztapena egon da, 95.712,4 milioi eurotik 28.902,6 milioi eurora. Sektoreka, eta energiaren sektorea alde batera utzita, aipagarriak dira Banka eta finantza-bitartekotza (EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %25,9 eta Estatuak sektore horretan kanpoan egindakoaren %7,7) eta Higiezinen Agentek eta Zerbitzuak, hain zuzen ere, "beste enpresa-jarduera batzuk" adarra (EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %1,3 eta Estatuak kanpoan sektore horretan egindakoaren %2,1).

2.6. Sektore publikoa

EAEko sektore publikoari dagokionez, aipagarria da diru-sarrera publikoek 2008an izandako %-2,3ko murriztapena, aurreko urtean %+10,5eko hazkundera izan ondoren; murriztapen hori zeharkako zergen bilketan izandako %-11,5eko beherakadaren ondoriozkoa da, eta, neurri txikiagoan, zuzeneko zergetan izandako %-1,1eko beherakadaren ondoriozkoa ere bai; horrela, EAEko sektore publikoko diru-sarrerek (14.430 milioi euro) 1,6 puntuko murriztapena izan dute BPGri dagokionez, eta 2007ko %22,4tik %20,8ra igaro dira.

²² Halako sozietateen helburua atzerriko sozietateen akzioak edukitzea da. Akziodunen zerga-optimizazioak estrategien eraginezkoak dira (ja horren eraginezkoak bakarrik). ABDE kontzeptuaren barruko enpresen helburu soziala, beste modu batera esateko, lurralde jakinean ez dauden enpresen fondoak ordezkatzen dituzten balioak kudeatzea eta administratzea da, baliabide materialak eta pertsonalak ondo antolatuta.

EAEko Sektore Publikoaren gastu osoak %8,1eko hazkundera izan du, aurreko urtean baino 1,4 puntu txikiagoa; hazkundera handiagoa izan da Eusko Jaurlaritzan (%+8,5) Foru Aldundietan baino (%+0,3), eta, horrela, magnitude horrek BPGrekiko duen ehuneko sei hamarren hazi eta, hain zuzen ere, %21,7koa da. Sektore Publikoaren diru-sarrera arruntek %5,2ko murriztapena izan dute, eta gastu arruntek, ostera, %8,1eko hazkundera; beraz, aurrezpen gordinak %54,1eko beherakada handia izan du, hariak eta EAEko BPGren %2,1ekoa izan arte, 2007an %4,7koa izan ondoren; halaber, lau urteko superabita egon ondoren, 518 milioi euroko defizita egon da (ekitaldiko BPGren %0,7), finantzatu gabeko gastuak diru-sarrerak baino handiagoak baitira; aurreko urtean 1.400 milioi euroko superabita egon zen (BPGren %2,1). Finantza publikoetan defizita agertzeak (koiuntura konplexuaren ondorioz) larriagotu egin du Administrazioaren funtzionamendugastuetan %11tik gorako hazkundera erregistratzea; dena den, azken ekitaldian gastu horiek aurrekoan baino gutxiago hazi dira, bai Eusko Jaurlaritzan eta bai Foru Aldundietan. Aldiz, inbertsio errealek 2007an baino ia lau puntu gutxiago hazi dira.

2.7. Gizarte ekonomia

Gizarte Ekonomia izenaren barruan, eraketa eta helburu desberdineko erakunde mota aintzak sartzen dira. Memoria honen aurreko edizioetan, atal honetan egindako tratamendua merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituztenen errealitatea aztertu da, gizarte-izaera soileko jarduerak dituzten beste erakunde batzuk alde batera utzita. Oraingoan, gainera, Europako Gizarte Ekonomiaren panorama orokorra eskaintzen da, zentzu zabalagoan; horren barruan, merkaturako ez diren jarduerak dituzten erakundeak sartzen dira, EAEn gero eta garrantzitsuagoa den sektore baten ikuspegi osagarria eskaintzeko, giza alderdietan eta ekonomikoetan oinarrituz.

Gizarte Ekonomiaren barruan ekonomia- eta gizarte-helburuak dituzten erakundeak sartzen direla esaten da, gero eta gehiago; erakundeok partaidetza sustatu eta, ezinbesteko baldintzat, kideen baterako erantzukizuna sartzen dute, erabakiak hartzeko orduan. Sektore publiko eta enpresa-sektore konbentzionalaren kasuan ez bezala, halako erakundeen helburua merkaturaren askatasun ekonomikoa taldeko gizarte-arazoan konponketarekin bateratzea da (esate baterako, lana, etxebizitza, hezkuntza, etab.). Hori kontuan hartuta, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen (EEGB) tesiei jarraituz, merkaturako edo enpresako Gizarte Ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan-sozietateek eta mutualitateek osatzen dute; merkaturako ez den Gizarte Ekonomia, berriz, gehienbat elkarrekin eta fundazioek osatzen dute, baina beste forma juridiko batzuk dituzten erakundeak ere egon daitezke barruan. Hain zuzen ere, kontabilitate nazionalak ezarritako irizpideen arabera merkaturako produktoreak ez diren Gizarte Ekonomiako erakundeak sartzen dira barruan, hau da, produktioa gehienbat doan edo prezio merkean banatzen duten produktoreak.

Gaur egun, ez daukagu Euskal Autonomia Erkidegoko datu konparagarririk; bestalde, EEGBk adierazitakoaren arabera, European Gizarte Ekonomia (merkaturako dena eta ez dena) errealitate ekonomiko eta giza errealitate oso garrantzitsua da: ordaindutako 11 milioi enplegu inguru, gutxi gorabehera EBko landunen %6 (2005eko datuak). Datuok gutxi gorabeherakoak dira, kontuan hartuta EBko estatu bakoitzeko gizarte- eta kultura-berezitasunen eta forma juridikoen aniztasuna; datu horiek agerian jartzen dute gizarteak eta erakundeak ezin dutela errealitate hau ahaztu, batez ere aintzat hartuta horren garrantzia gero eta handiagoa izango dela hurrengo urteotan.

Horri dagokionez, Europako Parlamentuak oraintsu harturiko ebazpen baten arabera, onartu egin behar dira Gizarte Ekonomiako enpresen balio espezifikoak, gizarte-kohesioa indartzeko funtsezko eginkizuna baitute. Halaber, Batzordeari eskabidea egin zaio, bere politiken bidez Gizarte Ekonomia sustatzeko eta enpresaren ikuspegi desberdina defendatzeko, baita Bata-sunak eta estatukideek Gizarte Ekonomia euren legerietan eta politikan kontuan hartzeko ere; aldi berean, horren osagai guztiak onartzen dituen esparru juridikoa ezartzen da.

2.8. Lan merkatua

2008an 18.600 lanpostu galdu diren, 2007an gehieneko galera historikoa izan ondoren: lehenengo eta behin, landun kopuruak behera egin eta kopuru hori 2006ko batez besteko mailan jarri da, eta, bigarren, enplegu-suntsipena handia (%2 ingurukoa) eta bat-batekoa izan da, urteko azken hiruhilekoan, eta horrek agerian jartzen du lan-merkatuak testuinguru ekonomikoarekiko duen subsidiarotasuna.

Gainera, BAIK eta BJAk adierazitako enplegu-suntsipenarekin sintonian, Gizarte Segurantzak hileko batez besteko afiliazioaren murriztapena egon dela dio²³, murriztapen hori txikiagoa izan arren. Urte amaieran, EAEko afiliatu kopurua aurreko urtekoa baino %1,1 txikiagoa izan zen; abenduko batez besteko afiliazioaren datua 965.494 pertsonakoa izan zen (2007ko abenduan baino 10.766 pertsona gutxiago).

Bestalde, eta urte honetan ere aldi baterako kontratuen ehuneko %20,4ra murriztu arren (halako kontratuen mendeko langile kopuruak %2ko murriztapena), aldi baterako kontratuen ratioak Europako batez bestekotik gora daude oraindik (EB-27n %14); hala ere, Estatuko tasa baino 8,9 puntu beherago daude. Alde hori murriztu egin da 2008an, 2007an 10,7 puntukoa baitzen. LANBIDEK (Lan Merkaturaren Euskal Behatokia) egindako interpretazioaren arabera, estatuan aldi baterako kontratuek izan duten murriztapen handia iraupen jakineko kontratudun soldatapekoen artean enplegu-suntsitze gogorra egotearen ondoriozkoa da.

Adin taldeen arabera, aldi baterako kontratuetan eta kontratu gabezetan tasarik handienak dituzten pertsonak gazteenak dira, baina horien kopurua murriztu egin da aurreko urtetik.

²³ Gizarte Segurantzako afiliazioak aldaketa diogunean (adierazpen oso erabilia) Gizarte Segurantzaren altan dagoen pertsona kopuruan izandako aldaketa adierazi nahi dugu.

Hain zuzen ere, 16 eta 24 urte bitarteko emakumeen %61,6 (2007an baino 8 hamarren gutxiago) eta adin horretako gizonen %61 (aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago) aldi baterako kontratua dute. "Kontraturik gabe eta beste batzuk" egoeran dauden soldatapeko adin horretako pertsonen tasak, hurrenez hurren, %3 eta %2 dira (biak murriztu, urte honetan)²⁴. Emakume gazteei dagokienez, %62,2k aldi baterako kontratuak dituzte, eta %4,6 "kontraturik gabe eta beste batzuk" egoeran daude.

Halaber, 2008an langabeziak bilakaera txarra izan du (%3,8ko batez besteko langabezia-tasa, EUSTATen urteroko erreferentzian, 2007koa baino 5 hamarren handiagoa). Tasa horren hiruhileko bilakaerari erreparatuta ikusten denez, %3,3rekin hasi baina laugarren hiruhilekoa %4,6rekin amaitu du. Europa ia osoa krisiaren eraginpean dago, eta, langabeziak gora azkar egiteari dagokionez, aipagarriak dira Baltikoko estatuak eta Espainia. EAEk, hala ere, Europar Batasunarekiko nolabaiteko aldea mantentzen du (4,6 puntukoa), oraindik ere, 2008ko laugarren hiruhilekoan.

Aldiko batez besteko datuak dioenez, EAEn 37.700 langabetu daude, 2007an baino 5.200 gehiago, eta horrek %16ko hazkundera adierazten du (2006an eta 2007an %-19,8). Sexuen arabera, langabeziaren hazkundera gizonen eta emakumeen artea ia berdin banatu da, eta batez besteko langabezia-tasak, hurrenez hurren, %5,3 eta %4,1 dira.

Sektoreka, langabetuen %58,4 zerbitzu-sektorekoak dira, eta, bertan, langabeziak %9,5eko hazkundera izan du. Halaber, industriari langabeziak %29ko hazkundera izan du (%16ko batez bestekoa baino handiagoa), eta eraikuntzan hazkundera oraindik ere handiagoa izan da: %29,4. Lehenengo enpleguaren bila ari den pertsona kopuruak 400 pertsonako gorakada izan du, eta urteko batez bestekoa 3.100 pertsonakoa da. Aldiz, iraupen luzeko langabetu kopuruak hazkundera handia izan du (%+7,6), eta bost langabetutik bat egoera horretan dago (%20ko tasa, eta 2007ko batez bestekoa %18,6koa).

Adinaren arabera, langabeziak erdiko taldean izan du hazkundera absoluturik handiena (+2.000), baina proportziorik handienan 25 urtetik beherako gazteen artean hazi da (%+30,4); 45 urtetik gorakoaren artean ere %25,8ko hazkundera garrantzitsua izan du. Langabezia-tasari dagokionez, hiruhileko bilakaerarik txarrena 25 urtetik beherakoena da; izan ere, lehenengo hiruhilekoan langabezia-tasa %8,8koa izan zen (batez bestekoa %3,3), eta urteko azken hiruhilekoan, berriz, %11,8koa (%4,6ko batez bestekoa). %12ren atalasean, EAE Europar Batasuneko batez bestekoa baino 4,6 puntu beherago dago, oraindik ere, gazteen langabeziaren arloan. Gazteen langabezian

hazkunderik handienak izan dituzten estatuak lan-merkatua nariatuen dutenak dira. Espainian ratioa 10 puntu hazi da, eta %29,4koa da orain (EB osokorik handiena); Irlandan 8,3 puntu hazi eta %17,4koa da; Suedian 4,8 puntu hazi eta %23,8koa da. Aipatzekoa eta Europa ekialdeko estatu batzuen kasua, adibidez, Bulgaria, Polonia eta Eslovenia, baita Italiaren kasua ere; izan ere, bertan, halako koituntura ekonomiko zaila egon arren, gazteen artean langabezia murriztu egin da.

Bestalde, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistraturiko langabeziaren zifrak estatistikako zifrak baino handiagoak dira. 2008ko abenduan 100.637 langabetu erregistratu ziren EEZPn (aurreko urtean baino %+34,9 gehiago); EUSTATen Biztanleria Jardueraren arabera Inkestak 46.400 kalkulatu ditu, urteko laugarren hiruhilekoan; izan ere, inkesta honetako langabetu-saillkapenak ez ditu aintzat hartzen enplegu-eskatzailatzat inskribaturiko pertsona asko²⁵. Gainera, iturri horrek adierazitakoa aintzat hartuta, jarduera ekonomikoaren hazkundera-eritmoa moteltzearen eraginik handiena jaso duten sektoreetan gizonak nagusi direnez (eraikuntza eta industria), langabeziak gora egitearen eraginik handiena gizonen gizonen langabeziak, 2008ko abenduan, %56,7ko hazkundera izan zuten, 2007ko abendukoari zegokionez; emakumeen artean, berriz, %19,4ko hazkundera izan zuten.

Bestalde, 2008an eten egin da kontratazio mugagabeak, gehienbat kontratu mugagabe arrunten bidez, 2004an hasi zuten goranzko joera positiboa. Oro har, kontratazio mugagabea %6,3koa izan da azken urtean, eta EEZPk erregistraturiko kontratu berri guztien %4,7koa da EAEn (2007an %5,3). Kontratu mugagabe arruntek (kontratazio guztien %2,4) %3,5eko murriztapena izan dute.

Halaber, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak (sinaturiko hamar kontratutik hiru) %1,3ko murriztapena izan dute (batez bestekoaren azpitik). Horien artean, garrantzia kontuan hartuta, aipatzekoak dira lanaldi partzialeko obra-kontratuak, eta guztira ia 84.000 dira (lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu guztien %35); baita produkzioaren eraginezko behin-behineko kontratuak ere, ia 90.000 kontratu (%37,5). 2008an bi kontratu mota horiek behera egin dute; lehenengok beherakada txikia izan dute (%-0,1), eta bigarrenek handiagoa (%-8,9). Beste alde batetik, lanaldi osoko aldi baterako kontratazioan EAEko kontratu guztien %62,2 sartzen dira (2007an %63,2), eta halako kontratuak %6,8ko murriztapena izan dute; guztira, mota honetako 512.195 kontratu egin dira.

Azkenik, eta oraingo egoera ekonomikoaren ondorioz, EAEko kaleratze kopurua (iturritzat Lan eta Inmigrazio Ministerioa hartuta), 2002tik beheranzko joera izan ondoren, 2008an

²⁴ EAEko gazteen lan-baldintzak zehatzago aztertzeko, irakurri 2007ko Memoria Sozioekonomikoko IV.1.2 kapitulua, "Taldea zaurgarri batzuen bizi-baldintzak: Gazteria".

²⁵ Bi eragiketen arteko desberdintasun metodologikoak oso garrantzitsuak dira, eta ez dute konparaziorik ahalbidetzen; izan ere, langabetuen saillkapen desberdinak egoteaz gain, EEZPren zifrak erregistroetatik ateratakoak dira eta BJArenak, berriz, lagin jakinari egindako inkesta batetik ateratakoak. Gainera, kontuan hartu behar da, Europako Batzordeko Araudiari jarraituz (1897/2000), urte horretatik aurrera, BJAk langabetutzat hartzen dituela, lanik (soldatapekoa edo independentea) ez edukitzeaz eta lana bilatzeaz eta lanerako moduan egoteaz gain, aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat ere egin dutenak (Araudian "aktibotzat" hartzen diren kudeaketak). Lan-eskaria berritzeko edo enplegu-bulego publikora heziketa-ikastaroen bila joateko tramieta ez da bilaketa aktibotzat hartzen. Horrenbestez, EUSTATen inkestak "langabetu" kontzeptutik kanpo uzten ditu EEZPn langabetutzat inskribaturiko pertsona asko.

19.574koa izan da, 2007koa baino %102,6 handiagoa. Hazkunde hori Estatu osoan gertatu da (%+66,7), eta, gainera, EAEko kaleratzeek guztizkoarekiko duten ehunekoa ere hazi egin da, eta azken urte honetan %5,7tik %7ra igaro da.

Kaleratze kopuruaren gorakada, batik bat, enplegua erregulatzeke espedienteen eraginpeko langileen artean gertatu da (%+177,7). Guztira, Estatuan erregistraturiko espediente guztien %10 dira; bertan, %153,6ko hazkundera izan dute. Urte honetako hileroko bilakaera aztertuta ikusten denez, hazkunderik handiena urrian izan da, hilabete horretan 269 langiletik 2.017ra igaro baita (%+650). 2008ko azken bi hilabeteetan, gainera, hazkunderak handiak izan dira berriro, eta abenduan 6.517 langile gelditu dira halako espedienteen eraginpean (urtarrilean 247). Gainera, langile horietako gehienak etete-espedienteen eraginpean daude; hain zuzen ere, urteko guztizkoaren %86,1 dira.

2.9. Laneko osasuna

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakunde) erregistraturiko EAEko laneko ezbehar-tasari buruzko datuek agerian jarri dutenez, 2008an laneko 50.640 istripu egon ziren, 2007an baino %1,1 gehiago. Hazkunde hori kontrajari egiten zaio azken urte horretan 2006ari dagokionez izandako %8,1eko murriztapenari. Guztiarekin ere, azken laurteko bilakaera aztertuta ikusten denez, laneko ezbehar-tasa egonkor mantendu da EAEn, %0,2ko hazkundera baino ez baitu izan.

Lanaldian baxa izan duen istripu kopuruak (44.437) %1,1eko hazkundera izan du 2007tik. Bestalde, Lan eta Inmigrazio Ministerioaren behin-behineko datuek diotenez, Estatuan baxadun 922.253 istripu daude, 2007an baino %9,8 gutxiago.

EAEn, istripu arinek %1,3ko hazkundera izan dute, eta istripu hilgarriek (%-7,8) eta, batik bat, larriek (%-17,9) murriztapena izan dute. Bestalde, "in itinere" eran gertaturiko istripu kopuruak (guztizkoaren %9,2) %2,7ko beherakada izan du.

Aitorturiko laneko gaixotasunei dagokionez (laneko ezbehar guztien %3,1), azken bi urteotako bilakaeraren ikerketa jakinarazpen-sisteman aldaketak sartzearen eraginpean dago; beraz, 2007ari buruz erregistraturiko %+113,1eko datua kontuz erabili behar da. Guztiarekin ere, 2008an baxadun laneko 1.547 gaixotasun berri erregistratu dira; horietatik %61,6 industriakoak dira, %27,6 hirugarren sektorekoak eta ia gainerako guztiak eraikuntzakoak. Larritasunari dagokionez, 2008rako ez daukagu datu hori, eta esan behar da 2007an baxadun gaixotasun berrien %99,7 arinak izan zirela, %0,3 (bi jakinarazpen) larritzat katalogatu zirela, eta ez zela gaixotasun hilgarriak erregistratu.

Sektoreka, nekazaritzan (%-2,2) eta eraikuntzan (%-3,8) laneko ezbehar-tasa txikiagoa da 2008an, aurreko urteari dagokionez; industrian (%2,1) eta zerbitzuetan (%2,7), berriz, handiagoa. Zifra horiek sektore bakoitzean lan egiten duen

persona kopuruarekin lotuta ikusten denez, bilakaera berbera da, baina intentsitate handiagokoa, batik bat eraikuntzan, bertan 1.000 landuneko istripu-bolumenak %3,8ko murriztapena izan baitu. Guztiarekin ere, ezbehar-tasarik handieneko sektorea eraikuntza da oraindik, milako 94,2ko tasarekin. 1.000 landuneko istripuen batez bestekoa 45,9koa da, 2007an baino %0,9 handiagoa.

Autonomia-erkidegoen arabera, Lan eta Inmigrazio Ministerioak kalkulaturiko lanaldiko istripuen intzidentzia-indizeak²⁶ agerian jarri duenez, 2007an istripu-tasaren sailkapeneko lehenengo postuan Balearak zeuden, eta, gero, Gaztela-Mantxa. EAE, 5.654ko indizearekin (2006koari dagokionez, %-11,9), Estatuko batez bestekotik behera dago, Nafarroarekin eta Gaztela eta Leonekin konparatzeko moduko mailetan.

Halaber, laneko istripuen datuek kontratu motaren arabera agerian jarri dutenez, ezbehar-tasa bikoitza baino handiagoa da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, kontratu mugagabea dutenen artean baino. Lan eta Inmigrazio Ministerioari 2007ari buruz emandako azken datuek horixe jarri dute agerian. Hain zuzen ere, kontratu mugagabea duten pertsonen artean ezbehar-tasa %40,7koa izan zen; aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean, berriz, intzidentzia tasa %112,3koa izan zen. Nolanahi ere, interesgarria izango litzateke istripuek sektoreen, adinen eta lan moten arabera zer banaketa duten jakitea, behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

2.10. Talde zaurgarri batzuen bizi baldintzak

Bakarrik dauden gazte atzeritarren presentzia fenomeno nahiko berria da EAEn, eta erronka garrantzitsuak planteatzen dizkie adin txikikoen babesean eskumena duten administrazioei. Esku-hartzearen premiak eta beharrianak zaildu egin dute, halako egoeren berritasunaren eraginez, beharrezko baliabideen planifikazioa. Arartekoak, gainera, taldeari buruz egindako ikerketan, aldaketa berriak detektatu ditu adin txikiko horien migrazio-proiektuan; izan ere, orain dela urte batzuk "ia helduen" migrazioa detektatzen zen, eta horiek migrazio-proiektu argia zuten (lan egitea, bizi-baldintzak hobetzea eta jatorrizko familiari laguntzea); gaur egun, berriz, "nerabeen" emigrazioa dago, eta horiek ez dute proiektu zehatzik. Mutilen erabateko gehiengoa, bestalde, mantendu egin da, neskei dagokionez; batez beste, hiru lurralde historikoetan lagundutako adin txikiko atzeritar guztien %95 mutilak dira.

2008an, Foru Aldundiek bakarrik zeuden adin txikiko atzeritarrei harrera egiteko 706 espedienteri eman zieten alta (aurreko urtean baino %10,5 gehiago); horietatik %57 Bizkaian erregistratu ziren, %32 Gipuzkoan eta gainerako %11 Araban. Kontuan hartu behar da 2006an (informazio finkatua duen azken urtea) EAEk adin txikikoen egoitza-harrerako 787 alta izan zituela guztira, eta horietatik 662, arartekoaren datuen

²⁶ Intzidentzia-indizea 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren arteko zatidura da (laneko istripuen kontingentzia berriaz babestuta duten afiliatuak).

arabera, atzerritarrek zirela. Horrek atzerritarren %84,1eko ratioa adierazten du, eta, horrela, agerian gelditzen da inmigrazioari loturiko arazo hori garrantzi handikoa dela. Izan ere, aztertutako adierazle guztiek %82-85 bitarteko ratioak adierazi dituzte, EAEn erakundeek lagundutako adin txikikoen arteko atzerritarren ehunekoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, horiek sorturiko arazoaren inguruan eragindako gizarte-alarma ez dator bat, arartekoaren iritzian, kasurik gehienekin²⁷; izan ere, gehienek erantzun positiboa ematen diete heziketa-programa publikoei, batez ere laneratzeko programei. Gainera, "*Parlamenturako 2008ko txostena*" deritzonean, arartekoak esan zuen azken urtean handitu egin dela talde horri laguntzeko baliabide-sarea; hain zuzen ere, zenbait kasutan, behin-behineko instalazioak egin dira, edo lehendik dauden zentroetan plaza kopurua handitu egin da; arartekoa, dena den, kezkatuta dago auzotarrek zentro berriak irekitzea nahi ez dutelako, eta gizarte-sentsibilizazioa lantzeko eta partaidetzako mekanismoak sustatzeko eskabidea egin du; halaber, beharrezkoa da gizarte-baliabideak zona berean ez metatzea, eta zerbitzu horien funtzionamendua egokirako bermeak eskaintzea.

Bestalde, EUROSTATEk egindako zenbatespenaren arabera, Europar Batasunean lan egiteko adina duten 300 milioi pertsona daude, eta horietatik 50 milioi ezintasunen bat dute. Pertsona horietariko asko lana garatzeko gauza dira. Hala eta guztiz ere, euren jardueraren ezaren tasak biztanleria orokorrenak baino bi aldiz handiagoak izan daitezke²⁸: 2003an ezintasuna zuten europarren %78k ez zuten lan-jarduerarik, eta iraupen luzeko osasun-arazorik edo ezintasunik gabeko pertsonen artean ehuneko %27koa zen.

Gure ustez, lana pertsonen sozializazioari estuen lotuta dagoen arloa denez, talde horren egoerak txarrera egin du, halako pertsonen jardueraren tasa urrien ondorioz. Horiek lana lortzeak, alde batetik, euren autonomia pertsonala sustatzea eta gizarte-laguntzen zirkuitutik urteko diru-sarrerak eskuratzea ahalbidetuko du; bestetik, gizarteratzeko, harreman pertsonaletako eta trebetasunak eta gaitasunak eskuratzearen prozesuetan parte hartzeko aukera emango die²⁹.

2.11. Osasuna eta osasun sistema

Gure iritzian, aipagarria da gizonen bizi-itxaropena, EAEn, ezintasunik gabeko bizi-itxaropenak (+1,4 urte) gora egitearen eraginezkoa izatea; baina ezintasunarekin bizi izandako urte kopuruak apur bat gora (8,4 urtetik 8,6 urtera) egitearen eraginezkoa ere bada bizi-itxaropen hori. Aldiz, emakumeen arteko bizi-itxaropenak gora egitearekin batera, ezintasunarekin bizi izandako urte kopurua murriztu egin da (10,8tik 10,4ra). Hala eta guztiz ere, emakumeek ezintasunarekin bizi izandako urte kopurua gizonen bizi izandakoa baino handiagoa da.

Bestalde, kezkarria da sexu-transmisioko infekzioen (STI) intzidentzia gero eta handiagoa izatea. Gakoa prebentzioa da, eta biztanleria orokorrerako eta eraginik handiena jasaten duten biztanleentzako programak garatzeko ahalegina egin beharko da, informazioa emateko eta ohiturak eta jarrerak aldatu ahal izateko. Horrekin batera, STI zerbitzuak sustatzen dituzten neurriak hartuko dira, eta, gainera, lankidetzaren estua garatu behar da zerbitzu horien, osasun publikoko adituen eta oinarrizko laguntzako sendagileen artean, gure biztanleen sexu-osasunean laguntza hobea lortu ahal izateko.

Halaber, aipagarria da loditasunak azken 10 urteotan izandako hazkundea, bai gizonen eta bai emakumeen artean; horrekin lotuta, geldikortasun mailak behera egin duen arren, oraindik ere biztanleriaren %53 geldikorrek dira.

EAEn, Osasunari buruzko 2007ko Inkestan adierazitakoaren arabera, azken bi urteotan zitologiarik egin ez duten 35-40 urte bitarteko emakumeen proportzioa %9,7koa da, eta hori pozgarria da guretzat; izan ere, %90,3k egin dute, eta, horrela, gaitzitu egin da Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarritako %80ko helburua.

Era berean, OMEk dioenez, mamografia ez da erabili behar detekzio masiborako, baldin eta, gutxienez, adin onuraduneko taldearen (50 urteko emakumeak) %70eko iragazketa eraginkorra eta fidagarria segurtatzeko baliabiderik ez bada. Eta, gainera, Osasun Sailak 2007an egindako *Osasunari buruzko Inkestak* dioenez, Programako adin taldean (50-64 urte), azken hiru urteotan mamografiak egin zituzten emakumeen ehuneko %91,1koa izan zen, eta hori gauza ona da. Baliabideen eta laguntza-jardueraren arloan ikusten denez:

- Europako joeren ildotik, 100.000 biztanleko doktore eta psikiatra kopurua, EUROSTATen datuen arabera, gero eta handiagoa da. Aipagarria da ospitaletik kanpoko jardueran, EUSTATen datuak aintzat hartuta, sendagile kopuruaren hazkundearen eraginez, medikuntza orokorrean sendagile bakoitzeko biztanle kopurua murriztuta egotea, baina pediatrian ez da halakorik gertatu.
- 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruak, EAEn, etengabeko hazkundea izan du azken urteotan; datuak Estatukoak baino handiagoak dira (2007an 1.190,8 eta 855,4, hurrenez hurren), baita EBko estatuetakoak baino handiagoak ere.
- EUROSTATen datuen arabera, 100.000 biztanleko dentista kopurua, EAEn, Estatukoa baino txikiagoa da (2007an 48,6 eta 53,7, hurrenez hurren), eta EBko estatuturik gehienetakoa baino txikiagoa ere bai.
- EAEn ospitaleko ohe kopurua gero eta txikiagoa da, eta egonaldi kopurua ere bai. EUROSTATen datuak kontuan hartuta, Estatuan, 2005etik 2006ra, 100.000 biztanleko ohe kopurua 338,9tik 334,1era igaro da; eta EAEn 385,9tik 380,9ra. EUS-

²⁷ EAEn immigranteekin lan egiten duten elkarteek ere zuzena ez den pertzepzioa eta nolabaiteko "gizarte-alarma" aipatu dute, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren inguruan sortutakoa; baina immigrante kopururik txikiena duen autonomia-erkidegoetariko bat EAE da. Halaber, asetasun-diskurtso baten sustapena ere kritikatu da, kontuan hartuta premia eta egoitzako harrera-baliabideak urriak direla.

²⁸ EUROPAKO BATZORDEA (2008): "Europe's policy response to the issue of disability". SOCIAL AGENDA aldizkaria, 2008ko abendua.

²⁹ CIDEK (2009): Ezintasuna eta lan-merkatua: EAEn egoera. Eusko Jaurlaritza, Laneko koadernoak, 42. zenb.

TATen datuek agerian jarri dutenez, 2004tik 2005era ohe kopuruak gora egin du, eta, gero, beheranzko joera hasi du. Hala ere, sare publikoan eta pribatuan desberdintasunak ikusten dira; lehenengoaren kasuan, ohe kopuruak gora egin du, eta bigarreanean, ostera, behera.

- 100 oheko sendagile kopurua gero eta handiagoa da, bai sare publikoan eta bai pribatuan.
- Ospitaletik kanpoko jarduera publikoan, jardueraren hazkundera, EUSTATen arabera, erabilitako langileriak izandako hazkundera baino txikiagoa da.

Kanpoko kontsultetako itzarote-zerrendei eta berandutze-aldiei dagokienez, Osakidetzak emandako datuak kontuan hartuta, aurrerakuntza positiboak egon dira; hala ere, gure iritzian, arlo honetan ahalegin gehiago egin behar dira, urte batean zerrendetako gaixo kopuruak gora eta hurrengo urtean behera egiten duela ikusten baita; gainera, hilabete baino gutxiago itxaroten dutenen ehunekoa egonkor mantendu da, %80ren inguruan. Kirurgiako itzarote-zerrenden datuei dagokienez, murriztu egin da bertako gaixo kopurua, baita batez besteko berandutze-aldia ere (53 egunetik 51,9 egunera); hala eta guztiz ere, Zuzendaritza Nagusiak erabakita, dagoeneko ez dira biltzen prozedura kirurgikoko itzarote-zerrendak, 2008ko urritik.

Bestalde, 2007an osasun-laguntzako aseguru pribaturen bat kontrataturik zuen biztanle kopurua 377.364 pertsonakoa izan zen, eta horrek 2006an baino %9,4 ehuneko handiagoa adierazten du. Azken 12 urteotako zifrarik altuena da, EUSTATEk dioenez. Horrenbestez, EAEko biztanleriaren %17,5ek osasun-aseguru pribatua dauka kontrataturik, eta aseguru-dun kopururik handiena (%48,3) biltzen duen modalitatea banakako edo familiako poliza da; horren atzetik, taldeko aseguruak datoz (enpresa batek edo beste talde zehatz batzuek zuzen-zuzen hitzartzen dituztenak, enplegatuen edo talde horien alde), %35,6rekin, eta gero mutualitate publikoak (%16,1). Aseguru-dun bakoitzeko urteko batez besteko prima 538 eurokoa izan zen EAEn, eta %0,2ko murriztapena izan zuen, 2006koari zegokionez.

2.12. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2008an izandako bilakaeraren ezaugarri nagusia hauxe da: Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestako datuen arabera, etxebizitza-eskaintzak %21,4ko hazkunde orokorra izan du (2006-2007 aldian %22,2), eta intentsitate desberdineko hazkundeak egon dira salmentako etxebizitza berrian (%+18,5), erabilitako etxebizitzan (%+26), alokairuko etxebizitza askean (%+24,3), salmentako etxebizitza babestuan (%+6,5) edo alokairuko etxebizitza babestuan (%+58,4). Etxebizitzaren eskariak edo beharrianak, berriz, %10,2ko murriztapena izan du, aurreko urtean beste %10,7 murriztu ondoren.

2008ko beste ezaugarri bereizgarri bat alokairuko etxebizitza-eskaintzak izandako gorakada da: %50,2koa, 2007ari dagokienez; edo, beste modu batera esateko, 1.000 unitate gehiago egon dira, baldintzotan eskaintako etxebizitza pribatua eta publikoa (soziala) aintzat hartuta. Guztiarekin ere, 2008aren

amaieran, eskaintza osoaren %11,2ra baino ez da heldu. Gainera, alokairuko bost etxebizitzatik bat baino ez da pribatua.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren "EAEn Hutsik dagoen Etxebizitzaren Kuantifikazioari eta Ezaugarri buruzko Biurteko Inkesta" deritzonak egindako kalkuluaren arabera (2007ko datuekin), EAEko hirietako zentsu-ataletan dauden etxebizitzaren %4,9 hutsik daude, eta, guztira, 42.000 etxebizitza inguru dira. Horietatik 18.500 inguru "kudeatzeko modukotzat" kalifikatzen dira, eta horrek etxebizitza guztien stock osoaren %2,2 baino ez du adierazten.

Gainera, Inkestak egindako kalkuluaren arabera, hutsik dauden alokairuko etxebizitzaren ehunekoa %3 ingurukoa da, eta %7 ere ez da salmentan eskaintzen. Horrela, alokairuaren eta salmentaren baterako eskaintza EAEn hutsik dagoen etxebizitzaren %9,4koa da; hau da, bertako parke osoaren %0,5ekoa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitza Beharrianen eta Eskariaren Oinarritzako Inkesta" deritzon adierazitakoaren arabera, lehenengo etxebizitza lortu beharra duten pertsonen proportzioa %8,98koa da, azken urteotan erregistraturikoa baino txikiagoa (2007an %10,37) eta orain dela 10 urte lorturikoaren antzekoa. Zifra absolutuetan, beharrian hori adierazi duen pertsona kopurua 74.461ekoa da, eta horrek aurreko urtean baino %10,1 gutxiago adierazten du. Eskariari dagokionez, lau urtean 50.954 etxebizitzako eskaria kalkulatu da, eta urtebetean (epe laburrean) 15.547koa.

Etxebizitza lortzeko beharrianak epean arabera konpontzeko itxaropen horiek aurreko inkesta guztietan adierazitakoak baino txikiagoak dira.

Halaber, Inkestak agerian jarri duenez, EAEko familien %4,9k ohiko etxebizitza aldatu beharra dute; edo, beste modu batera esateko, 40.894 etxebizitza behar dira. Eskariari dagokionez, aurreikuspena 19.678 etxebizitzakoa da 4 urtetan, eta 8.207koa epe laburrean (urtebete). Lortzeko beharrianaren kasuan gertatzen den bezala, aldatzeko beharriaren konpontzeko aukera, epean arabera, azken urteotako mailarik baxuenetarikoa dago.

Hala eta guztiz ere, Inkestak adierazten duenez, etxebizitzak birgaitu beharra duten familien proportzioa %14,2tik %15,5era hazi da azken urtean, eta, guztira, 128.669 familia dira. Eskariaren aldetik, familia horien %61,6k uste dute etxebizitza 4 urtetan birgaitzeko aukera handia edo nahiko handia dutela, eta %26,6k urtebeteko epean egin nahi dituzte berrikuntzak. Datu horietatik ondorioztaturikoaren arabera, hortaz, oraingo krisiaren ondorioz handitu egin da etxebizitzak birgaitzeko aukera, erosteko aukeraren kaltetan.

Halaber, Inkestak alokairuaren onarpen mailak behera egin duela egiaztatu du, etxebizitza lortzeko modutzat, lehenengo etxebizitza lortu behar duten pertsonen artean. Hain zuzen ere, %51,3k soilik planteatzen dute alokairua etxebizitza edukitzeko modutzat (2007an %70); hala ere, %96,4k diotenez, onartu egingo lukete adjudikaturiko etxebizitza babestu bat alokatzea. Dena den, etxebizitza aldatu beharra duten pertsonen artean, proportzioa %37raino murrizten da; azken hamar

urteotan proportzio hori egonkor mantendu da, aldaketa txiki batzuekin.

Beharrian babesgarriak bereizteko balio kritikoei dagokienez, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Sailak erreferentziako bi puntu finkatu ditu: 96.000€ BOEen prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000€ etxebizitza askea lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen multzorako. Lehenengo mugari dagokionez, 2008ko Inkestako datuek agerian jarri dutenez, etxebizitza lortu beharra duten pertsonen %3,8k (2007an %8,2) 96.000€-tik beherako etxebizitza erosi ahal dute (guztira, 2.850 etxebizitza), eta horietatik %14k 120.000€-ko etxebizitza erosteko aukera dute. Etxebizitza aldatu nahi eta etxebizitza erosi ahal duten familien proportzioa, prezioaren segmentu horri dagokionez, %6,2koa da (1.302 etxebizitza), eta aurreko urtean %7,9koa izan zen. Horrela, guztira, beharrian horien %20,2k etxebizitzaren arloko gizarte-laguntzak jaso beharko lituzkete (2007an %13,2).

Segmentu babesgarria nabarmen handitzen da 150.000€-ko bigarren muga kontuan hartuta; horrela, etxebizitza lortu behar duten pertsonen %30,7k eta etxebizitza aldatu behar duten familien %13,4k ez dute gaitasunik prezio horretako etxebizitza erosteko. Horrenbestez, 2008ko Inkestak detektaturiko beharriaren %44,1k zailtasun handiak dituzte etxebizitza askea lortzeko (2007an %60,3).

Azkenik, EAEko Etxebizitza Politikari dagokionez, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaitako Saileko Etxebizitza Programak betearazitako gastuak hazkunde nabaria izan du azken urteotan, eta 2008an gastu horren zenbatekoa 198,81 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino %5,3 handiagoa. Gastu hori EAEko BPGren %0,29koa da, behin-behineko datuen arabera, eta tasa hori ia aldatu barik mantendu da 2002tik.

Eusko Jaurilaritzak garaturiko etxebizitza-politika ez ezik, intergarria da zerga-gastuen zifra handiak zein diren ere jakitea, Foru Aldundiek etxebizitzaren arloan esku-hartze publikoa izateko tresnatzat. Hiru Foru Aldundien PFEZren likidazioetan oinarrituz ondorioztatzen denez, ohiko etxebizitzaren eraginezko murriztapenen zenbatekoa (alokairua, inbertsioa eta errentamendua), 2006an (datua eskaintzen duen azken urtea), 450 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %7,5 handiagoa; murriztapenok nagusiak izan ziren alderdi kuantitatibotik (murriztapen guztien %38,1). Zenbateko horrek Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Programak urte horretan betearazitako gastuaren %262 adierazten du.

2.13. Pobretasuna eta gizarte bazterkeria

Eusko Jaurilaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, lau urtean behin, "Pobretasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta" (PGDI) egiten du; inkesta horrek aukera ematen du pobretasunak gure gizartean duen eragina, bertan eragiten duten arrisku-faktoreak eta banaketa geografikoa zein diren jakiteko. Pobretasunak EAEn duen eragina aldagarria da, berori neurtzeko aukeratzen den adierazlearen arabera. Inkestak bi dimentsio desberdin erabiltzen ditu, metaketako pobretasuna eta mantenamenduko pobretasuna, eta, azken

horren barruan, pobretasun-arriskuko eta ongizate ezaren arriskuko egoerak sartzen dira. Oro har, 2008ko PGDIk honako datu hauek nabarmetzen ditu:

(a) *Mantenamenduko dimentsioan*, pobretasun-arriskuko egoeretan ez dago oinarritzko beharriari aurre egiteko baliabide nahikorik (janaria, etxebizitza, arropa eta zapatak); ongizate ezaren arriskuan, berriz, ez dago baliabide nahikorik gizarte jakineko gutxieneko ongizate eta erosotasun mailak mantentzeko behar diren gastuei aurre egiteko:

- PGDI metodotik ateratako datuek agerian jartzen dutenez, 2008an mantenamenduko pobretasunak %4,1eko eragina izan du. Arrisku hori %14,6ra handitzen da ongizate ezaren arazoei dagokienez.
- Ongizateari loturiko gabezia-adierazleek islaturiko epe luze-rako bilakaera-joerak, oro har, berretsi egin dira, mantenamenduko ongizate ezaren adierazleen bilakaera kontuan hartuta: ongizate ezaren arrisku-tasek beherakada nabaria adierazten dute 1986tik 2000ra; hurrengo laurtekoan mantendu eta, 2004tik 2008ra, berriro ere bilakaera oso ona izan dute, %24,3tik oraingo %14,8ra igarota. Pobretasunaren arriskuko PGDI adierazleak ere beherakada iraunkorra adierazten du, eta 1986ko %5,7tik oraingo %4,1era igaro da.

(a) *Metaketaren dimentsioan*, familiek ezin dituzte kontsumo iraunkorreko oinarritzko ondasunak eskuratu (adibidez, etxebizitza), epe luzean bizi maila egokia mantendu ahal izateko eta oinarritzko ondare-baliabideak metatu ahal izateko:

- Bestalde, PGDI metodoan lau posizio zehazten dira pobretasuna-ongizatea eskalan, metaketari dagokionez. Lehenengo muturreko kolokatasun diferentzialeko egoerari loturikoa da, eta 14.395 pertsonarengan dauka eragina (guztizkoaren %0,7), hau da, 4.126 familiarengan (%0,5). Metaketako pobretasun-arriskuan dagoen taldea da, zentzu zorrotzean. Bigarren taldean, kolokatasun handiagoko edo txikiagoko egoeran dauden familiak daude; familia horiek EAEko familien batez bestekoa baino nahiko metaketa maila baxuagoa dute. Egoera horretan 216.769 pertsona (%10,1) edo 67.749 familia (%8,5) daude.
- Hirugarren taldean kolokatasunaren nabaritasunak txikiagoak dira; gainera, EAEko familiarik gehienena baino metaketa maila baxuagoak egon arren, ia ongizateko egoera da, eta, bertan, EAEko biztanleriaren %20,3 edo familien %18,1 sartzen da. Azkenik, biztanleriaren %69 edo familien %72,9 ongizate egoeran daude, PGDIk adierazitakoaren arabera.
- Adierazleok denboran izandako bilakaerak aurrerakuntza handiak adierazten ditu, pobretasunaren eta kolokatasunaren aurkako borrokan; izan ere, hiru kolokatasun mailak etengabe murriztu dira 1986tik 2008ra, batez ere kolokatasunik handieneko maila, ia guztiz desagertu baita (1986an %5,6), eta kolokatasunik txikieneko maila, azken hori ia erdira murriztu baita, aztertutako aldian. Ongizate-egoeran dagoen biztanleriaren garrantzia 26,5 puntu hazi da aldi horretan. Azken batean, aztertutako adierazle guztiek bilakaera ona izan dute, Inkestaren indarraldian. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaur-

laritzak nabardurak egin dizkie datu horiei, ondoren adierazi-takoari dagokionez:

Alde batetik, eta azken urteotako hazkunde- eta enplegu-tasek bilakaera ona izan arren, ezin da ahaztu zenbait talderen egoera txarra dela; esate baterako, guraso bakarreko familiak, adin txikiko seme-alabak dituztenak, immigranteak, langabezian dauden pertsonak, etab. Europako Batzordeak berak ere onartu egin du orainsu, EBko estatu askotan, azken urteotan izandako aurrerakuntza ekonomikoarekin batera, pobretasun mailak ez direla nabarmen murriztu (egindako kalkuluaren arabera, gaur egun 78 milioi europar pobretasunean bizi dira); izan ere, pobretasuna murrizteko egiturazko neurriak hartu behar dira, gizarte-babeseko sistema nazioarteko testuinguru berrira egokitzen dutenak.

PGDiko datuak irakurrita, oraingo koiunturan galdera batzuk sortzen dira; esate baterako, jakin behar da ea datu horiek zein neurritan datozen bat, edo etorri beharko lukete bat, gizarte-erakundeek halako arazoen bilakaerari buruz duten pertzepzioarekin eta gizarte-prestazioen eskariak epe laburrean, er-tainean eta luzean izandako bilakaerarekin. Azkenik, galdetu behar da koiuntura berrian ea zein neurritan jarraitu ahal den ongizaterako aurrerapen-ildo horretan (azken urteotan garatu den ildo). Hain zuzen ere, jakin behar da, oso garrantzitsua baita, ea langabeziaren aurka borrokatzeko sistemek, errentak bermatzekoek eta gizarteratzekoek zein neurritan xurgatuko dituzten ondo krisiaren ondorioak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak lorturiko ongizate mailetan atzerakuntza handirik izan gabe.

2.14. Gizarte babesa

2008an, EAEko Gizarte Babesari dagokionez, abenduan Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berria onetsi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Estatistiken erregistroak 20. urte bete dituenean.

Aldi honetan aldagetak handiak izan dira, eta, adibidetzat, esan behar da 1988tik biztanle bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetan egindako gastua 8,7 aldiz handiagoa dela, prezio korranteetan, eta bertara bideraturiko BPGren ehuneko 2,4 aldiz handiagoa dela (%etik %2,4ra igaro da). Halaber, 1994tik, egoitzako plazen estaldura 1,6 aldiz handiagoa da, eta etxerik etxeko laguntza zerbitzuen, berriz, 3,3 aldiz handiagoa. Eguneko laguntza-zentroen estaldura ia 5 aldiz handiagoa da, eta lanbide-zentroena eta enplegu-zentro bereziena 2 aldiz handiagoa.

Datu horiek ez ezik, sektorean azken 20 urteotan izan diren aldageta kualitatiboak ere aipatu behar dira; izan ere, alde batetik, aurrerapausoak eman dira Gizarte Zerbitzuak normalizatzeko eta "sozializatzeko" prozesuan (oraindik amaitu ez den prozesua), zerbitzuok gizarte talde gero eta zabalagoek ezagutzen eta eskatzen baitituzte, normaltasun osoz. Bestek beste, Gizarte Zerbitzuek betetzen dituzten kontingentzia batzuen prebalentziak gora egitearen ondorioz (hain zuzen ere, mendekotasuna), gizarte-zerbitzu publikoak erabiltzea gero eta ohikoagoa da, baina erabilera horrek oraindik ez du lortu osasunean, hezkuntzan edo pentsioetan duen normaltasuna.

Aldi berean, sektorearen barruan paradigma-aldaketa egon da; hain zuzen ere, aukerakotasunean eta ongintzan oinarrituriko eredutik, hiritarrek beharizan jakinak betetzeko laguntzak lortzeko eskubidean eta beharizanok estaltzeko erantzukizun publikoan oinarrituriko eredura igaro da.

Testuinguru honetan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburua, bertako Zioen Azalpenean esaten denez, gizarte-zerbitzuen helburua zehazten eta mugatzen laguntzea da, jarduketa eremutat, hiritarrek horiek erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko; horri dagokionez, titular multzoa zabaltu, horien babesa hobetu eta handitu, eta, gainera, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira.

Lege berriak helburua zehaztea eta prestazioen (lehenengo) eta zerbitzuen (gero) multzoa identifikatzea aurrerapausotzat hartzen da; horiek erantzuna ematen diote gizarte-zerbitzuei dagokien gizarte-beharrizari. Gizarte Zerbitzuen Katalogoak zerbitzuak izendatzen eta zerrendatzen ditu; horien oinarrituko ezaugarriak eta lortzeko baldintzak, diseinua eta funtzionamendua, hala ere, Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroak eta horren etengabeko gaurkotzeek zehaztuko dituzte, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema kudeatzeko informazio integraleko sistemari dagokionez; halaber, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa jasoko duen Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa ere egingo dute.

Azkenik, indartu egiten dira bai Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren garapen koherentea eta orekatua, bai Sistemaren beraren artikulazio hobea eta bertan integraturiko prestazioak eta zerbitzuak bermatzeko behar diren erakunde arteko koordinazio-dispositiboak; horiek, hain zuzen ere, beste sistema eta politika publiko edo osagarri batzuekin artikulatuko dira, hiritarren ongizatea sustatzeko.

Arau honen tramitazioari dagokionez, Kontseiluak Gizarte Zerbitzuen Legearen Aurreproiektuari buruzko martxoaren 26ko 3/2008ko Irizpenean egindako gogoeta batzuk gogoratu nahi ditugu, horiek indarrean baitaude, onetsitako legeari dagokionez:

Lehenengo eta behin, gai batzuen eta besteen eskumena duen erakundea edozein izanik ere, gizarte-babeseko aha-lerin osoa geurea bezalako gizarte baten araberakoa izan behar da; hain zuzen ere, gure gizarteak estaturik aurreratuenetakoekin konparatzeko moduko errenta eta ongizate mailak ditu; horri dagokionez, ahalegin handiagoa egin behar da desberdintasunak murrizteko eta gizarte barruko bazterkeriari eta marjinazioari aurre egiteko, batez ere oraingo atzeraldian. Horretarako, sistema eta politika publikoen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

Halaber, Kontseiluak beharrezkotzat jo zuen Gizarte Zerbitzuen Lege berria; hori baliozkoa izango zen, 1996ko Legea onetsi zenetik hamarkada bat igaro ondoren, gizarte-zerbitzuetarako eskubidea sustatzeko eta bermatzeko asmoa betetzeko behar diren kudeaketa- eta koordinazio-tresnak artikulatzeko. Horretarako, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema arautzen eta antolatzen duen lege berria behar da; sistema hori oraingo

testuingurura egokitu eta Ongizatezko Estatuaren benetako zutoina izango da (biztanle guztietara bideraturiko sistema unibertsala).

EAEko CESeK, bestalde, onartu egin zuen lurraldeen arteko desberdintasunak zuzentzearen arloan aurrerapausoak ematea ahalbidetzen duten mekanismoek aurrerakuntza dakartela. Gizarte Zerbitzuen estalduraren eta halako zerbitzuak erabiltzearen arloan; halaber, Erkidego osorako Katalogoa eta Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa aurreikusi zuen.

Era berean, Lege Aurreproiektuak Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta Eudelen lorturiko adostasuna baloratu zen; horrek arauan ezarritako erakunde arteko koordinazio-dispositiboak hobeto garatzeko aukera eman behar zuen.

Erakunde arteko laguntza horri dagokionez, gogoratu behar da Gizarte Zerbitzuen Sistema garatzearen aldeko apustuarekin batera, Legea garatzeko orduan, beharriaz egokituriko finantziarioa behar dela; horretarako, era berean, inplikaturiko erakunde guztien konpromisoa behar da, eta, gainera, gizarte-partaidetzako bide handiagoak ireki beharko dira, zerbitzuen garapen komunitarioa eta jarduteko moduen partaidetzazko ikuskerak eta ebaluazioa ahalbidetzeko.

Euskadiko CESeK, azkenik, aditzera eman zuen beharrezkoa zela Prestazioen eta Zerbitzuen etorkizuneko Zorroa zehaztea, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemak emango duen gizarte-babeseko eta estaldurako mailaren benetako irismena zehatzago baloratzeko.

